

urrats feminista

02.Historiatik ikasten gure
feminismoa zehazteko!



ernaigazte.cc

2014ko abendua

“Eskerrak eman nahi dizkiogu gure ama eta amamei, gure kideei, eta historian zehar Euskal Herri Feminista lortzeko borrokatu diren emakume guztiei. Eskerrik asko”.



<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/2.5/deed.eu>

Independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu. Luzea da egiteko dugun bidea eta urrats guztiak ezinbestekoak dira. Ibilbide honetan, bidea egiteko moduari erreparatu diogu, urratsak emateko moduari. Helmuga ez delako bidearen bukaeran dagoen zerbit, bidea ondo eginda lortzen dena baizik. Ez da Euskal Estatu Sozialista eta Feministarik egongo, guk bidea horren arabera egiten ez badugu. Bidea ibiltzen eraikiko dugu, urratsez urrats. Horregatik, balore zein praktika sozialista eta feministetan oinarrituta behar ditugu gure oinatzeak. Sistema kapitalista eta patriarkarra, esturaturak izateaz gain, gure baitan ere aurkitzen ditugu, gure erraietan, gure barrenetan, hortaz, esturatura horren errotiko eraldaketa gugandik hasi behar da! Niregatik, zuregatik, guregatik.

Barne prozesu feministaren bide honetan, sexu-genero sistemaren erraldoia antzeman dugu, kapitalismo eta patriarkatuaren arteko ezkontza identifikatu dugu, hura, maitasun erromantiko, monogamo eta heterosexualean oinarritzen da. Ikasi dugu kapitalismoak patriarkatua behar duela bizirauteko, baina patriarkatuak, haatik, ez duela kapitalismoa behar (a ze maitasun istorio korapilatsua!).

Mugimendu iraultzaile askoren akatsa izan da feminismoa iraultzaren osterako etxerako lantzat uztea, eta horren ondorio izan da benetako jendarte eta bizimodu askeak lortu ez izana. Haatik, historian zehar mugimendu feminista aitzindari izan dugu, mugimendu iraultzaile horien kontraesanak agerian jartzeko, mugimendu horiekin batera borrokan tinko egoteko, edota beste batzuetan, mugimendu horien aurrean planto egin eta erresistentzia sendoak artikulatzeko. Borroka honengatik guztiagatik, ezkerreko mugimenduek aspalditik izan dute euren burua feministatzat, halere, gehienetan bigarren maila batean geratzen den borroka jarraitu du izaten.

Zoritxarrez, Ezker Abertzalean ere antzera gertatu zaigu: feminismoaren garrantziaz aspaldi oharitu gara, baina ez digu duen balio estrategikoa eman, eta ez ditugu gure arteko harremanak eta barne funtzionamendua balore feministen arabera eraldatu. Horregatik, feminismoa Ernairen helburu estrategikoa izateak izugarritzko erronka zabaldu digu altzoan, arduraz eta erantzukizunez jokatzera eramaten gaituena. Feminismoa izendapen hutsal bat izatetik horren izana landu, barneratu, praktikan jarri eta helmuga dugu orain. Euskal Herri Feministarentz doan bidea urratsez urrats egingo dugu eta iraultza feminista eta sozialista esku beretik joan behar dira, iraultza bera baitira.

Berdintasun faltsuaren garai hauetan, emakumeon zapalkuntza hainbat eremutan oso nabaria den arren, beste batzuetan, berriz, sotila, ia ikusezina da. Horrela, gure bidean ematen ditugun urratsetan ere, patriarkatuak esku sartu nahi du, batzuen pribilegioak mantenduz beste batzuen zapalkuntza iraunarazteko. Horregatik, teoritik harago, arlo guztietan praktikan jarri behar dugu feminismoa, bai norbanako gisa, bai antolakunde gisa. Erdietsi nahi dugun jendartearen isla izan behar dugu, gaurdanik hasi bizi eredu berri eta askatzaileak, sozialista eta feministak eraikitzen, praktikan jartzen, bizitzen.

Baina, argi dago lan handia dugula egiteko. Azken batean, ez gara isolaturik bizi, jendarte kapitalista batean bizi gara, eta gu ere balore patriarkalen arabera hezi gaituzte. Zaila da betaurreko moreak jartzea, eta oso nekagarria behin jarrita, ikusten ditugun zapalkuntza guztien aurrean borrokatzea. Patriarkatua gure bizitzako zirrikiturik txikienean ere sartu zaigu eta atsedetik gabeko borroka dugu, eremu pribatu eta pertsonalena zalantzan jartzera eramaten gaituena, hura ere iraultzera bultzatzen gaituena. Baina praktika feministak iraultza gozamenarekin lotzera eramango gaitu ere, gure buru zein gorputzak trebatzera, zerua iraintzera, gaiztoak izatera! Bizi eredu askeagoak sortuz, gu geu askeago bihurtuz! Erretzea lortu ez zenituzten sorginak izango gara! Askea izango den herria, jendarte askez osatua.

Beraz, goazen elkarrekin beste urrats more hau ematera!

o. Lurreratzea 20 min

Ariketak:

1. Historiako emakume ikusezinak (20 min)

Helburua: Jendarteen historia ofizialean emakumeak kontuan hartu ez direla ohartzea.

Dinamikaren azalpena: Ariketa hau hainbat ataletan garatuko dugu.

a) Bakoitzak paper bat hartuko dugu, eta bertan Historian zehar famatuak izan diren 10 emakume idatzi. Historia datetan mugatzeko, Historiaurretik 2000 urtera arteko emakumeak. 5 minutuko ideien jautzia izango da, eta bakoitzak burura datorkiona idatziko du. Zerbaitengatik esanguratsuak izatea da inporta diguna, berdin du zerk egin dituen famatuak. Hamar bururatzen ez bazaizkizu lasai.

b) Behin bost minutuak igarota, ronda bat egingo dugu, bakoitzak idatzi dituenak botata. Bitartean, kide batek denak arbelean idatziko ditu, baita bakoitza zenbat aldiz errepikatu den markatu ere. Ezagutzen ez dugun izenen bat ateraz gero, idatzi duenak nor izan zen azalduko du. Era berean, norbait nor den oso seguru ez bagaude, denon artean argitzen saiatuko gara.

d) Azkenik, arbeleko zerrenda aurrean dugula, denon artean hurrengo galderak erantzungo ditugu, eta erantzunek adierazten dutenaren inguruan hausnartuko dugu.

- Horietatik zenbat dira erreginak, printzesak, lehenengo damak, etab.?
- Zenbat dira iraultzaile edo politikari esanguratsuak?
- Zenbat dira teorika feministak?
- Zenbat kirolariak?
- Zenbat abeslari, aktore edo bestelako artistak?
- Zenbat dira zientzialariak?
- Eta, azkenik, horietako zenbat dira Euskal Herrikoak?

1. Iraganetik aztertzen 2 ordu

Ariketak:

1. Ariketa (Ordu 1, 20 min)

Helburua: Emakumeen historia eta mugimendu feministaren historiaz dakigunaz eta ez dakigunaz jabetzea izango da ariketa honen helburua. Urrats feminista abian jarri genuenetik, asko eztabaidatu dugu feminismoaren inguruan, gehienetan eduki teorikoez busti ditugu eztabaidak (sexu-genero sistema, patriarkatu eta kapitalismoaren arteko harremana, praktika feministaren ezaugarritzea...) baina bere garaian nork bultzatu zituen gogoeta hauek guztiak? Nork borrokatu emakumeon eskubideak? Mugimendu feministaren sorreraz eta garapenez jabetzea tokatzen zaigu oraingo urrats honetan, eztabaida teoriko guztiek bere oinarria mugimenduan dutelako, elkar elikatzen baitira. Beraz, gaur egungo testuingurua ulertzeko eta Ernaik duen erronka feminista konprenitzeko, ezinbestekoa dugu iraganean gertatu zenari erreparatzea. Azken finean, gaur garena, atzo izan ginenaz edan du eta etorkizunean izango garena elikatuko du.

Dinamikaren azalpena: Hurrengo orrialdeetan datozkigun edukiak irakurriko ditugu, I blokeari dagozkionak. Lan honetan, bilatu dezakegu guretzat zein taldearentzat erosoan suertatuko zaigun formula: denon artean zatika irakurri eta guztion artean gogoeta eginez, bakoitzak bakarka edukia irakurri eta ondoren guztion artean eztabaidatuz... Testuan zehar atalka galdera ezberdinak topatuko ditugu. Hauek edukia lantzeko lagungarriak izango zaizkigu, baina ez dugu zertan galdera hauek erantzun behar, soilik eztabaidarako abiapuntu izango dira. Beraz, hauek landu edo otuko zaizkigun beste batzuen inguruan eztabaidatu dezakegu, helburua edukia ulertu eta honetan sakontzea dela kontutan hartuz.

2. Ariketa (40 min)

Helburua: Irakurri ditugun edukiak barneratu eta prozesu historikoaz jabetzea. Mugimendu feministaren lorpenak, eztabaidak, erronkak,.. denboran zehar kokatzea gaur egun dugun egoera ulertu dezagun.

Dinamikaren azalpena: Hiru fitxa multzo edukiko ditugu: batzuetan feminismoaren historiari lotutako pertsonaien izenak agertuko dira; beste batzuetan momentuko aldarrikapenak islatuko dituen esaldi, testu edo aldarrikapenen bat ; eta azkenengoetan, bizi izan ziren testuinguruaren azalpen bat. (*Fitxak Dinamizatzaileen Gidan daude, eranskin gisa*).

Lantaldeka jarriko gara eta lantalde bakoitzari pertsonai kopuru bat eta horiei dagozkien fitxak banatuko dizkiegu, nahastuta (4 pertsonai banatu ditugu, 4 testu/esaldi eta 4 testuinguru). Lantaldeetan jarrita, hirukoteak egingo ditugu, pertsonai bakoitza dagozkion bi fitxekin lotuz. Esaterako: Olimpe de Gouges, Frantziako iraultza eta "Emakumea eta Hiritarren Eskubideen Adierazpena".

Ondoren, plenarioan, lantalde bakoitzak egin dituen loturak aurkeztuko ditu. Baten bat lotzea lortu ez badugu, denon artean saiatuko gara; eta loturaren bat gaizki eginda egonez gero, denon artean zuzentzen ahaleginduko gara.

Azkenik, arbelean edo horman marra bat egingo dugu, garai historiko desberdinak jasoko dituen mapa kronologiko bat marraztuz, eta fitxa-hirukoteak dagozkien tokian itsatsiko ditugu. Mugimendu feministen historia irudikatuko dugu horrela. Aurrean dugula, hausnartu egingo dugu: lotura dago aldarrikapenen artean? Zelan iritsi gara batetik bestera? Aldarrikapenen bat iritsi da gaur egun arte? Zergatik?

1.

IRAGANETIK AZTERTZEN

Mugimendu feministaren lehen hastapenak: Sorginak

Feminismoaren edo mugimendu feministaren abiapuntua zehaztea zaila da. Askotan, feminismoa zer den edo zer ez den definitzea, mendebaldeko emakume zuri eta burgesen (zisgenero* eta heterosexualak) aurreiritzi eta pribilegioen arabera epai bihurtu da. Mendebaldeko feminismoak, feminismoa ulertzeko eredu bakarra ezarri nahi izan du, feminista “zer eta nor” den erabakiz, gainontzeko adierazpen eta borroka epaituz eta emakumeen askatasunera heltzeko bide bakarra inposatuz. Esaterako, “beloa” eramaten duten emakumeen kasuan, erlijio musulmana eta feminismoa zerbait kontrajarria balira bezala aurkeztu dira, baina aldi berean, tradizio mendebaldarraren baitako kristautasuna aintzat hartu gabe. Alta, gertaera historikoek argi erakusten duten moduan, feminista izateko eta feminismoa borrokatzeko modu asko daude, bakoitzaren aukeren, baldintzen, testuinguruaren arabera. Beraz, gu ez gatoz feminismoa zer izan den edo feminista gisa zer uler daitekeen edo zer ez epaitzera, **historian zehar emakumeen eskubideen alde eta balore feministetan oinarritutako gizarte baten alde borrokan egon diren teoria zein mugimendu ezberdinak irudikatu nahi baititugu**, tokian tokiko feminismoei erreparatuz. Bide honetan, teoria eta praktikaren arteko etengabeko elkar-ekintza azpimarratu nahi izan dugu, feminismoa bulego akademikoetan bakarrik eraiki ezin dela uste dugulako. Adostasunik ez dago, beraz, mugimendu feministaren abiapuntua ezartzerako orduan. Halere, bai autore ezberdinek bai gure senak berak, **emakumeen borroka lehen adierazpenak feudalismotik kapitalismora doan trantsizioan kokatzera eramaten gaituzte: sorginen ehizaren garaia**, hain zuzen ere.

Sorginen ehiza oso gutxitan agertu da proletarioaren historian. Are gehiago, Europako historian gutxien ikertu den fenomeno izaten jarraitzen du. Izan ere, sorginen ehizen biktima nagusiak emakume nekazariak izan ziren, eta hortik historiagileen axolagabetasuna genozidio honekiko. Alta, soilik mugimendu feministak lortu izan du sorginen ehiza klandestinitatetik erreskatatzea, batik bat, feministak sorginekin identifikatu direlako emakumeen matxinadaren ikur gisa. Hasiera batetik argi ikusi zuten ehunka miloi emakume sarraskitu eta tortura krudelenetara zigortzearen arrazoia: sistemak eurengandik espero zuenari men egiten ez zioten emakume haiek botere estrukturalarentzat mehatxu itzela suposatu zutela. Emakumeen kontrako guda hau Europako emakumeen historia ulertzeko erabakigarria da: “bekatu originalaren”² ideia emakumeon gutxiespen sozialerako prozesuan abiapuntua izan zen, kapitalismoaren sorrerarekin bat egin zuena, eta ez kasualitatez.

Sorginen garaian nekazarien mugimendu sendo bat garatu zen, “Erdi Aroko proletarioa” deritzona. Feudalismoaren botereen kontra (erregea, jauntxoak eta eliza) euren lurra aldarrikatzen zituen mugimendua dugu hura eta aurrera eramanez bitartez «mugimendu heretikoaren» izena hartu zuen, “heretikoen”* figura azpimarratuz. Mugimendu honek komunismoaren lehen aitzindari izan ziren estruktura komunitario alternatiboak eraiki zituen, eta horregatik, euren aldarrikapen nagusia “Omnia sunt communia!” esaldiarekin

¹- Ikusi “Genesis, el pecado original” material kaxan.

barnebildua izan da. Emakumeak, aski ezagunak izan ziren mugimendu honen baitan. Lurren jabetza zein irabazietara sarbiderik ez zeukaten heinean, populazio txiroena osatzen zuten eta horrexegatik, landa eremuetatik hirietara migratu zuten gehienek, mirabeak, saltzaileak, merkataria, iruleak eta sexu langileak izan zirelarik, batik bat. Hiriek emakumeei autonomia maila handiagoa eskaintzen zieten: askotan bakarrik bizi ziren, euren familien "buruak" ziren, burujabeak. Emakumeak, beraz, eraldaketa sozialerako agente garrantzitsuak izan ziren².

Mugimendu heretikoak hierarkia sozialak, jabetza pribatua eta aberastasuna esku gutxitan metatzea kritikatu zituen, herrietan zehar gizartea ulertzeko era iraultzaile berriak zabalduz, eguneroko bizitzaren aspektu guztiak birdefinituz (lana, jabetza, erreprodukzioa, sexualitatea, emakumeen egoera,..) eta burujabetzaren alde borrokatuz. Horregatik, **botere feudalek eta batez ere, elizak herejeen kontrako gurutzadak hasi zituzten**, disidentzia sozial eta politikoa ezabatu nahian. Gurutzada hauetan **sexualitateak** paper garrantzitsua hartu zuen. Garai hauetan, VII. mendean, elizak emakumeen sexu-botereari buruz mintzo zen, emakumeak euren desira sexuala zela eta gizonak kontrolatzeko gaitasuna zutela defendatuz. Horregatik, elizak emakumeak eta sexua otoitzaren praktiketatik eta elizaren espazioetatik aldentzeko ahalegin handiak egin zituen, sexualitatea tabu eta lotsaren objektu bihurtuz. **Geroztik, emakumeak eta sexualitatea kontrolatzea elizaren zeregin nagusitariko bat bihurtu ziren (eta dira)**. Hori zela eta, ez da harrizkoa emakumeak mugimendu heretikoan protagonismo handia hartzea. Mugimendu hauen baitan, **«iraultza sexuala»** aurrera eramane zen, elizaren kontrolaren gainetik beste harreman eredu batzuk eraikiz. Era berean, garai haietan emakumeek euren ahalmen erreproduktiboak kontrolatzeko botere guztiak zituzten. Garaiko dokumentu historikoetan **abortuari** erreferentzia asko daude, baita **antisorgailuen erabilerari** buruzkoak ere. Praktika hauek «maleficia» izenarekin ezagunak izan ziren, geroago sorginkeriarekin erlazionatu direnak, hemendik eratortzen baita gaztelaniazko "maleficio" hitza. Garaiko botere hegemonikoek emakumeek euren ugaltze gaitasunen gaineko kontrola izatea oreka ekonomiko eta sozialaren kontrako mehatxu gisa ikusi zuten. Horrela, alor sexuala mugimendu heretikoa gehiago jazartzeko arrazoi nagusia bihurtu zen. Alor sexualaren kontrako kriminalizazioaren isla izango da, geroago, sorginen akelarreen³ gaineko irudikapen grotesko eta distortsionatua, "akelarreak" akerrari (deabruaren figura) baino, "alka" belarrari erreferentzia egiten baitzion.

Era honetan, XIV. mendean, **Inkiszioa** sodomia praktikatzea, orgiak burutzea, umeak erailteza eta animaliei otoitz egitea leporatuz, mugimendu heretikoa epaitzen hasiko da. Praktika sexual eta «sorginkerien» gorazarre honek mugimendu heretikoaren kontrako kriminalizaziotik **sorginen ehizarako** trantsizioa ireki zuen, emakumeak irudi hereje eta sorginkeriaren protagonista bihurtuz. XV. mendean, sorginak, mugimendu heretikoaren kontrako jazarpenen jomuga nagusia bihurtu ziren. **Emakumeak, beraz, mugimendu heretikoan parte hartze aktibo bat izategatik jazarriak izan ziren, baita euren gorputzaren gaineko kontrola eta sexualitate aske bat bizi izanagatik**. Hauek, aldiz, ez ziren arrazoi bakarrak izan. Metaketa kapitalista garatzeko, **herrien deskolektibizazioa**

2- Ikusi material kaxan: Euskal Herriko sorginkerien adibideak: NAUSIA, Amaia "Mujeres solas y brujería en la Navarra de los siglos XVI y XVII"

3- Ikusi material kaxan: AZURMENDI, Mikel "A vueltas con el término aquelarre".

beharrezkoa izan zen, hau da, izaera kolektibo eta herrikoa zuen adierazpen ororen desagertzea eta suntsiketa: lur komunalak, sozializazio eta sexualitate era kolektiboak, errito kolektiboak (kirolak, dantzak, jolasak, jaiak...). Prozesu honek erresistentzia handiak sortu zituen: herriak mobilizatu eta honi erantzun egin zion, historiagile askoren arabera, ondorengo proletalgoaren borrokan haziak izan zirenak. Garapen kapitalistak eragindako lurren pribatizazioarekin batera, Erdi Aroko populazioak gosete garai handiak pairatu zituen eta gosete horien ondoriozko herri mobilizazio eta errebolta handiak sortu ziren, horien protagonista nagusiak emakumeak izanik.

Zentzu honetan, kapitalaren metaketarako ezinbestekoa izan zen beste elementu bat biztanleriaren **ugalketaren gaineko kontrola** dugu, azken batean, lan eskuaren (edo lan indarraren) erreproduzioa kontrolatzea helburu zuena. **Kontrol prozesu honek emakumeen gorputzak eta bizitzak jomuga izan zituen bereziki.** Kapitalismoaren garapenak ondorio larriak izan zituen: goseteak, izurriteak, eraillketak... nagusi ziren. Hori zela eta, biztanleriaren murrizketa handia eman zen. Kapitalistentzat, lan indar nahikoa bermatzeko populazioaren erreproduzioa ziurtatzea ezinbestekoa izan zen. Lehen aldiz, erreproduzioa «Estatu afera» bihurtu zen, Estatuak (eta berau kontrolatzen zuten gizonak) emakumeen erreproduziorako gaitasunen kontrola hartuz. Herrien erreproduziorako makinak bihurtu zituzten emakumeak. Ordura arte, emakumeek antisorgailuak erabili zituzten, abortuak praktikatu, sexualitate aske bat bizi... Hemendik aurrera, ezaugarri hauek guztiak delitu bihurtuko dira. **Emakumeen kontrako guda** hau Elizak eraman zuen aurrera, batez ere, sorginen ehizaren bitartez, jaitzen gaineko edozein motatako kontrola eta ugalketa helburu ez zuten sexu praktika guztiak "demonizatuz". Lan honetan, Estatuak ere esku hartu zuen "delitu erreproduktiboak" sortuz: abortua, antisorgailuak edota infantizidioa zigor gogorrenen jomuga ziren, dekapitazioak kasu. Beraz, **emakumeen gorputzen gaineko kontrola ezarri eta lan indarra erreproduzitzeko makinak bihurtu zituzten, proletalgoaren garapenerako txanponaren beste aurpegia.**

Emakumeen patua eta jardun bakarra eremu erreproduktibora mugatzeko, sorginen ehizak suposatutako errepresio bortitza ezinbestekoa izan zen, baita emakumeek ordura arte burututako lanaren degradazioa, emakumeek ordura arte garatutako lan produktiboa debekatuz. Prozesu honetan gizon zientzialariek, botere ekonomikoa zutenek, politikariek zein langileek batera jardun zuten, bakoitzak bere eremutik ekarpena eginez. Gizonen hegemonia bermatzeko zientziaren izena baliatu zuten, ustezko ikerketen bidez emakume langileak garaiko herrialde kolonizatuen "basatiekin" erlazionatzeko eta gaitasun mental urriak zituztela defendatzeko. Horrek garaiko pentsamendu misoginoari arrazoi zientifiko, objektibo eta eztabaida ezin gehitu zizkion, emakumeen gaineko infantilizazioa ezarri⁴. Horretaz gain, garaiko botere ekonomikoa zein politikoek emakumeak lantegietatik kanporatzeko esfortzu handiak egin zituzten eta artisau gizonak esfortzu honen konplizeak izan ziren, emakume guztiak euren tailerretatik kanporatuz.

4- Ikusi "La inferioridad mental de la mujer" material kaxan.

Prozesu honek emakumeak pobrezia kondemnatu zituen. Hala ere, azpimarratzekoa da nahiz eta tailerretatik kanporatuak izan, emakumeek lanean jarraitu zutela. Modu honetan, sexu langileak biderkatu ziren. **XVI eta XVII mendeen artean, emakumeak boterea galduz joan ziren bizitza sozialaren esparru guztietan.** Garai honetan, emakumeen eskubideetan atzerapauso nabariak antzeman daitezke. Botere galtze honek, espazioaren kudeaketan ere isla izan zuen, emakumeei espazio ezberdinak okupatzea debekatuz: emakumeak lan produktibotik kanporatzeaz gain, kaleetatik kanporatu zituzten, non emakume bat kalean bakarrik joateak burlen eta sexu erasoen jomuga izatea suposatzen zuen. Beraz, espazio publiko eta pribatuaren banaketa definitzen zuen generoaren araberako lan banaketa berri honek, emakume eta gizonen arteko harremanak birdefinitu zituen.

Sexuen arteko harremanen birdefinizioa, gizarte berri baterako trantsizioa

Emakumeen gutxiespen soziala erdiesteko prozesu honek garaiko eztabaidetan isla izan zuen eta garaiko literatura jasoan zein herrikoian modu agerikoan adierazi zen. Garaiko eztabaida literario hau *La querelle des femmes* izenarekin ezagutuko da. Bertan, egoera berri honen aurrean emakumeen kexak adieraziko dira. Kexa hauek aldarrikapen feministen nolabaiteko aitzindaritzat hartu dutela esan genezake. Testuinguru honetan aipagarria da **Christine de Pizan**-en "La cité des dames" obra. Kexa hauek, emakumeen defentsan burutu ziren batik bat eta eztabaida honen bitartez garaian gertatzen ari ziren aldaketak mahai gaineratu ziren, politika sexual berriari erreferentzia eginez. Aipatzekoa da eztabaida hura ematen zen bitartean, emakumeak zigortzeko tortura metodo berriak erabiltzen hasi zirela. Zigor hauen jomuga nagusiak «emazte desobedienteak», «sorgina» edo «puta» izanik. Horrela, emazte desobediente muturrekoa jarrita kaletik paseatzera ateratzen zuten, txakur bat izango balitz bezala. Putak, aldiz, publikoki jipoituak ziren, uretan sartzen zituzten ia ito arte, eta aldi berean, adulterioa burutu zuten emakumeentzat heriotza zigorra ezarri zen. Historiagile askoren ustetan, *La querelle des femmes* Erdi Arotik modernitatera doan trantsizioan kokatua dago eta argi erakusten du trantsizio honek emakumeentzat ez zuela inolako garapen positiborik suposatu, izugarritzko atzerapausoa izan baitzen.

Ikuspuntu sozialetik, ekonomikotik, politikotik, kulturaletik... sorginen ehiza emakumeen historian momentu erabakigarria izan zen, ordura arte indarrean egondako emakumeen jakintza sistemen, sareen eta praktiken mundua suntsitu baitzuen. Elementu guzti horiek, emakumeen boterearen oinarria izan ziren Europa aurrekapitalistan, baita feudalismoaren kontrako borroka aurrera eramateko tresnak ere. Porrot historiko honez geroztik, feminitate pasiboa, zintzoa, obediente, edota asexualaren erdua indartuz joan zen. Aldaketa hau XVII mendearen amaieran hasi zen, emakumeak bi mendez Estatuko terrorismoaren jomuga izan ondoren. XVI eta XVII mendeetan zehar, ideia ilustratuak indarra hartuz joan ziren, erlijioa kristauaren galera eta beste adierazpen batzuen sorrerarekin batera (protestantismoa, luteranismoa, etab). Ideia hauek garaiko pentsamenduan aldaketa nabariak eragingo dituzte, izan ere, arrazoia eta gorputzaren arteko banaketa zurruna burutuko dute. Horrela, garaiko

pentsalari gehienek (Lutero, Hobbes, Rousseau, Locke, Descartes, Maquiavelo...) gorputza borroka esparru gisa ulertuko dute: non arrazoiak gorputzaren pasioak kontrolatu beharko dituen, hiritartasunera heltzeko berme bakarra bihurtuko delarik.

Ilustrazioak, erlijio kristauaren gainbehera eragingo du zientzia eta arrazoiaren mesedetan. Ordura arte, jainkoak esandakoa egia unibertetsala bazen, momentu honetatik aurrera zientziak hartuko du paper hura. Baina erlijioak salbuespenerako aukera ematen zuen: nahiz eta erlijio kristauaren misoginia agerikoa izan, bertan emakume figura ezberdinak deskribatzen ziren. Bai "Eva" bekataria, sexuala, arriskutsua... baina baita "Maria" eredugarria, pasiboa eta esanekoa ere. Hortaz, "Mariaren" figura bere egiten zuten emakumeak zein emakume aristokratak salbuespenak ziren, hau da, eremu publikoan aritzeko beta zuten. Zientzia eta arrazoiaren goraipamena gailentzean, aldiz, emakume guztiak berdinduko dituzte, denak natura eta senen menpeko, euren protagonismoa eremu publikoan "kontra natura" bihurturik. Emakumearen bi salbuespen horiek **Emilia Pardo Bazan** eta **Concepción Arenal**-en testuetan islatu ziren, bata aristokrata eta bestea kristau erlijioso sutsua. Lehenengoak bere pribilegioak defendatzen zituen, bere hitzaren garrantzia defendatuz zerbitzari gizonezkoen aurrean (izan ere, momentu horretan, bapatean, bere zerbitzari ziren gizonek berak baino botere gehiago eskuratu zuten, Pardo Bazan-en ustetan zentzugabea zen zerbait). Concepción Arenal-ek, aldiz, erlijio kristauaren balioak erabiliko ditu emakumeak defendatzeko, izan ere, Jainkoak hasieratik esan zuen pertsona guztiak bere seme-alabak diren heinean, berdinak direla.

Zientziaren gailentasunarekin batera, etika protestantea indartuz joango da Europako herrialde batzuetan. Honek, "lanaren etika" ekarriko du berarekin, hau da, gorputzak diziplinatzekeo prozesua. Era honetan, lan indar obediente eta autokontrolatua sortzea izango dute helburu. Horretarako, jokoa debekatuko da, tabernak eta komun publikoak itxiko dira, erreproduktzioa bideratuta ez dauden sexu praktikak zigortuko dira, baita biluztasuna ere. Gorputzaren gaineko kontrol hori eta emakumeen gutxiespena zein eurengan lan erreproduktiboaren gaineko ardura guztia ezartzea ezinbestekoa izan zen kapitalismoaren garapenerako. Era berean, garaiko populazioaren txirotea, erreboltak eta delituen handitzea (jabetza pribatuaren kontrako erasoak kasu, lapurretak, etab.) metaketa kapitalistaren ezaugarri estrukturalak izan ziren, bai garai horretan, baita gaur egungo globalizazio garaian ere. Honekin batera, **kapitalismoa garatzeko, beste herrialde batzuen kolonizazioa beharrezkoa izan zen, komunitate harremanak suntsituz, herritarren lurra desjabetuz eta emakumeen gaineko kontrola ezarriz**. Hortaz, kapitalismoaren garapena ezin da ulertu arrazakeria eta emakumeen kontrako zapalkuntza kontutan hartu gabe.

Ilustrazioa eta hiritartasuna eskuratzeko borroak

Historia liburuetan, Ilustrazioaren garaia, antzinako Erregimen Feudaletik Gizarte Modernora doan trantsizioarekin identifikatzen da. Garai aldaketa suposatzen duen inflexio-puntu gisa Frantziar Iraultza kokatzen da, 1879.



urtean. Frantziar Iraultzan, liburuek esaten duten moduan, Errege Absolutistak garaitu eta gobernatzeko beste era bat sortu zen, demokraziaren abiapuntua izango litzatekeena, sufragio unibertsalaren sorrera. Aldiz, historiaren beste interpretazio batzuek argi erakutsi dute Frantziar Iraultzak burgesia, noblezia eta aristokraziaren aliantza suposatu zuela, kapitalismoaren garapenerako ezinbesteko prozesuan, emakumeak, langileak eta zuriak ez ziren pertsonak gizarte moderno horren onuretatik at geratu baitziren.

Trantsizio honetan, gizarte antolaketa berri bat ezarriko da eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketan oinarritua. Antzinako Erregimenean, botere politikora iristeko mekanismoa ahaidetasunean oinarritzen zen, errege, noblezia eta aristokraziaren familien bitartez. Haatik, gizarte modernoan, botere politikoa antolatzeko beste era bat bilatuko da: **kontratu soziala**. Kontratu honen logika honakoa da: gizakiek arrazoiaren bitartez naturatik bereiz daitezke, animalien senetatik bananduz hiritarrak bilakatzeko. Hiritarrak berdintasunean oinarrituko dira (ahaidetasunak indarra galdu duelako) eta guztien arteko adostasunean, kontratu sozial bat eratuko dute, zeinaren arabera dagozkien eskubide batzuk murriztuko dituzte eta obligazio batzuk hartu, jendartearen onuran. Antolaketa politiko honetan, Printze edo Erregerik ez dute beharko (aitaren figurarekin erlazionatzen dena), baizik eta hiritarren artean, anaien artean (**fraternité**), osatuko dute sistema politiko berria.

Horregatik, lege patriarkarrekin amaitzea egotziko zaio Frantziar Iraultzari, "aitaren" gobernuarekin amaitu zuelako. Aitzitik, patriarkatuarekin ez zuten amaitu. Izan ere, "semeek" (hiritar anaiek) aita tronutik kenduko dute euren askatasuna irabazteko, baina emakumeen jabetza ere beraientzat hartuko dute. Modu honetan, patriarkatu **paternaletik fraternalera** salto egingo da, fraternalismo honek ez duelako gizonen (zuri eta burgesen) arteko elkartasuna adierazten soilik, emakumeen bazterketa ere suposatu baitzuen. Gizonak izango dira hiritartasunera heltzeko kapazak diren bakarrak, emakumeak, hain zuzen ere, erreproduzioarekin lotuta dauden heinean ezin izango dituzte euren sen naturalak kontrolatu. Horregatik, gizonak arrazoa, kultura eta eremu publikoarekin identifikatuak izango diren bitartean, emakumeak emozioak, natura eta eremu pribatuarekin erlazionatuko dira⁵. Gizon hiritarrek "kontratu soziala" sinatuko dute jendarte berria antolatzeko, baina kontratu sozial honen atzean "**kontratu sexuala**" izango dugu. Eskubide zibil eta politikodun hiritar bakoitzaren atzean funtzio publikoak betetzea debekatuta duen emakume bat egongo baita, eremu pribatuan, eskubideok ukatuta, lan erreproduktibo guztiak bermatzen.

Alta, emakume guztiak hiritartasunaren printzipioetatik era bortitzean baztertzeko prozesua ez zen lan erraza suertatu, erresistentzia eta borroka sutsuak egon baitziren. Kontratu sozialarekin batera, "Gizonaren Eskubideen I. Deklarazioa" eratorri zen, non gizonekoa (zuria, burgesa eta heterosexuala) figura unibertsala zen, neutroa, gainontzeko pertsona guztiak barnebiltzen zituena. Aldiz, argi geratu zen gizonaren figura ez zela unibertsala, soilik gizon zuri eta aberatsei erreferentzia egiten baitzion. Momentu honetan 1791. urtean, emakumeen ahotsak altxatu ziren, **Olympe de Gouges**-ena kasu, "Emakumearen

5- Ikusi Rousseau-ren "Sofia o la mujer" material kaxan, feminitatearen irudikapen ilustratuaren isla da.

eta Hiritarraren Eskubideen I. Deklarazioa” idatziz, aurreko deklarazioaren androzentrismoa* kritikatu nahian. Urtebete beranduago, Ingalaterran, beste estatu eta testuinguru soziopolitiko batean, **Mary Wollstonecraft**-ek “Emakumearen Eskubideen Bindikazioan” misoginia ilustratuaren kontraesanak agerian jarri nahi izan zituen. Izan ere, ilustratuek berdintasuna aldarrikatzen zuten aho betez, baina berdintasun hori soilik gizon zuri eta aberatsentzat zen, gainontzekoak ez-hiritarrak baitziren, eskubide zibil, politiko zein juridikorik gabeak. Lehenago ere, **Mary Astell-enak** bezalako adierazpenak ditugu. 1700. urtean emakume honek ilustratuekiko ezadostasuna erakutsi zuen, azken hauek aita-erregeraren botere absolutua kritikatzeko zuten bitartean, etxeko eremuko senarraren botere absolutuaz hitzik ere ez zutelako esaten. Emakumeek gizonen eremu publikora sartu ahal izateko burututako estrategiak ere aipagarriak dira: honen adibide dugu **Aurore Dupin** idazlea, zeinek gizona jantzi eta George Sand ezizena erabili zuen bere nobelak argitaratu ahal izateko.

Emakume aberatsek soilik zuten espazio ilustratuetan sartzeko beta, euren iritziak eta desadostasunak adierazteko. Aldiz, emakume gehienek kaleetan zuten protagonismoa, mugimendu iraultzaile ezberdinetan parte hartuz. Honen adibide dugu **Théroigne Méricourt**, “askatasunaren amazona” izenarekin ezaguna, emakumeak euren askatasunaren alde armak hartzera deitu zituena. Emakume horiek errepresioa jaso zuten euren ausardiaren ordainetan, Claire Lacombe edo Olympe de Gouges kasu. Beranduago euren idazki zein testigantzek mugimendu bat elikatuko bazuten ere, eurak bakarka aritu ziren teorizatzen, euren hitzei gor zegoen jendarte batean.

**Testua jorrazteko honako galdera hauek proposatzen dira:*

- Erlaziorik ikusten dugu kapitalismoaren garapena eta sorginen ehizaren artean? Zertan?
- Zer dela eta emakumeek lan erreproduktiboak egotzi zitzaizkien? Ze lotura dauka honek publiko/pribatu eta natura/kulturaren arteko banaketarekin? Eta kapitalismoaren garapenarekin?
- Emakumeen lotura eremu erreproduktiboarekin prozesu “naturala” izan ez bazen, gizartea beste era batean antolatu zitekeela uste dugu? Nola? Gizarte kapitalista bat litzateke?

Industrializazioak mundu berri bat zabaldu zigunekoa...

XIX. mendea iraultzek markatutakoa izan zen. Erresuma Batuan hasitako industria iraultzak, munduko testuingurua abiadura bizian aldarazi zuen. Makineria berriari esker, ekoizpen eredu eta kopuruak guztiz aldatu ziren; garraio berriek komunikazioa eta mugikortasuna erraztu, arindu eta merketu zituzten; aurrerapen kimikoek medikuntza aurreratu eta bizi itxaropena luzatu... Industrializazioa ordura arteko kapitalismoa egonkortu, eta bere aspektu desberdinetan (teknologikoa, ekonomikoa eta soziala) emandako aldaketek, ordura arteko mendebaldeko jendarte eredu eraldatu eta harreman eredu ekonomiko eta politiko berriak sortu zituzten. **Lanaren eta produkzioaren antolaketa berriak, eta horren ondoriozko produkzio harremanek, bi klase sozialen agerpena ekarri zuen: proletarjia eta burgesia.** Biak, industria iraultza aurrera zihoan heinean, estatu desberdinetan, testuinguru eta ezaugarri

desberdinekin, mende osoan zehar Historia liburuetako orriak bete dituen gatazkaren protagonista izan ziren.

Industrializazioak kontraesan sakona ekarri zuen berarekin. Alde batetik, ordura arte imajina ezinak ziren aberastasunak sortzen zituen, gosetea eta pobrezia gainditzeko bidean jar zitzakeenak. Bestetik, horren banaketa orekatu bat eman beharrian, esplotazio eredu berriak sortu ziren. Horrela, jendarte sektore esplotatuek industrializazioaren harira izan zitzaketan askatasun eta berdintasunerako itxaropenak zapuztu egin ziren. Langileek, fase honetan **proletalgo** izena hartuko duen langile masak, eta euren baitan bereziki emakume langileek, ez zuten inolako onurarik jaso industriak ahalbidetutako teknologia berriengandik. Are gehiago, ordura arteko zapalkuntza eta esplotazio mekanismoei berriak gehitu zitzaizkien. Nekazal eremuetan, nekazariak beti bizirauteko mugan mantendu izan zituzten esplotazio modu tradizionalai, zapalkuntza eta miseria mantentzeko bide berriak gehitu zitzaizkien industria eremuetan. Baina, esplotazio horiek hain gordin eta agerikoak izateak teoria askatzaile berriak sortzeko baldintzak sortu zituen.

Hala, industria iraultzak eragindako aldaketa sozialak, egungo mendebaldeko jendarteetako kulturen oinarri diren lau korrante ideologiko edo mugimendu sozial agertzea ekarri zuen: **liberalismoa, sozialismoa, anarkismoa eta feminismoa. Liberalismoa**, zalantzarik gabe, nazio "garatuen" ordezkarietzako Estatuak antolatzen XIX. mendeko formula nagusia izan zen. **Bestalde, korrante sozialista eta anarkistek, baita feminismoak ere, beste antolaketa sozial eta askapen alternatiba batzuk irudikatu zituzten.** Lau korranteek garai hartan bolo-bolo zabalduetako askatasun eta berdintasun printzipioen irakurketa guztiz desberdinak egin zituzten eta kapitalismoaren hedapen prozesuari erantzun desberdinak eman arren, denek egin dute ekarpena egungo baloreen eraikuntzan.

Komunikabideen izugarriko aurrerapena eta hazkunde demografikoa ere kontuan hartzekoak dira. Kapitalismo industrialak harreman sozial berrietarako eta mugimendu sozio-politikoetarako oinarriak finkatu zituen. **Lanaren kontzeptua zeharo aldatu zen denbora gutxian:** dagoeneko ez zen bizirauteko beharrezkoak ziren produktuak sortzeko antolatzen, baizik eta soberakinarekin salerosi eta produktuaren balioz gain, gainbalio bat eskuratzeko. Bestalde, **etxea eta lantokiaren banaketa eman zen:** lana edo enplegua etxetik kanpo, langile masak batzen zituen fabriketan burutzen hasi zen, eta etxebizitzaren funtzioa kontsumo eta erreprodukzioa mugatu zen, etxetik kanpo burututako lan produktiboa familiarako diru-sarrerara nagusia bihurtuz. Hasierako garaietan, langile klasearen baitan horrek gizona zekoak fabriketara atera eta emakumezkoak zaintza lanetan etxera lotzea ekarri zuen. Horrela, gainbalioa eskuratzeko kapitalistentzat ezinbestekoa izango da emakumeek etxetan dohainik burutzen duten lana.

Garai hartako aldaketa sakonek eragin handia izan zuten emakumeen bizitzan⁶. Lehenengo fase batean, 1850era arte, emakumeen kontratazioa bultzatu zen,

6- Ikusi "La mujer trabajadora del s. XIX. Joan Scott" material kaxan.

enpresaburuek lan indar merkeago, otzanago eta lan zehatz baterako trebeago gisa ikusten zituztelako. Oihalgintzan aritu ziren, batez ere. Bigarren fase batean, 1850-1900 artean, arazo bat agerian geratu zen: **emakume zein gizonek etxetik kanpo egiten badute lan, nork zaintzen ditu haur eta nagusiak?** Horren inguruan teorizatzerakoan, sozialista zein anarkistek kontraesan eta buruhauste asko izan zituzten. Izan ere, emakumeek lan merkatura salto egiteak, izugarritzko zatiketa ekarri zuen langile mugimenduaren baitan. Gizonezko langile askok emakumeak lan mundura sartu eta berehala hasi ziren ofizioetatik kanporatuak izan zitezten antolatzen: soldaten jaitsiera eragiten zutela aldarrikatzen zuten, eta beraz, senar batentzako ezinezkoa zela familia mantentzea. 1827-1830 artean greba esanguratsuak deitu zituzten. Antifeminismo proletario horren baitan antolatutakoek gizonentzako “familia-soldata” delakoa galdatzen zuten, horrela emakumeek etxetik kanpo lan egin behar izan ez zezaten⁷.

Sozialisten paradoxak

Kapitalismoan emandako eraldaketak eta lan baldintzen gogortzeak langile klaseak kontzientzia eta forma hartzea ekarri zuen. Lehenengo aldarrikapenak eta ekintzak hasi ziren urte horietan bertan luddismo, kartismo zein iraultzen forman. Esan bezala, korrante ideologiko askatzaileak sortzen joan ziren, sistemaren berezko bidegabekeriak salatu eta jendartearen beste antolaketa eredu batzuk proposatzen zituztenak. Harreman sozialak eraldatzeko nahari dagokionez, **sozialista utopikoak** dira azpimarragarrienak: Owen, Fourier eta Saint-Simonen jarraitzaileak. Lan erreproduktiboen sozializazioa eta emakumearen askapena landu, eta **“union libre”**-a aldarrikatzen zuten. Lehenengo sozialismo hauetan jendarte justuago baterako teoriez gain, praktika garrantzitsuak eman ziren. Nahiz eta estatu bakoitzean norabide desberdinak hartu, emakumeak bereziki kontuan izan zituzten euren eraldaketa planetan.

Ingalaterran, Robert Owen-ek ugazabarik eta soldatarik gabeko kooperatiben sorrera bultzatu zuen eta bere jarraitzaileek abiatutako jarduera sindikaletan emakumeek ere parte hartu zuten. **Klase ertainak bozka eskubidea borrokatzen antolatzen ari ziren artean, emakume langileak euren eskubide ekonomikoak defendatzeko lehenengo sindikatu eta kooperatibetan antolatu** ziren. Owenistek ezkontza “moralak” aldarrikatzen zuten, baina erlijiorik tarteko ez zuena, baita dibortzio erraz eta merkea ere. Hala ere, genero zapalkuntzagatik baino, familia eredu nuklearra anti-soziala zela uste zutelako kritikatu zuten. Horren aurrean, etxebizitza kolektibizatuak proposatzen zituzten. Etxeko lanak taldearen txandakako ardura izango ziren. Hala ere, sexuen arteko lan desoreka aldatzeko ez zuten askorik egin, emakumeen enpleguaren alde egiten bazuten ere, zaintza lanak euren egozten zizkieten: txandakako esaterakoan, emakumeen artean txandakatzeko esan nahi zuten eta. Beraz, emakume owenistak laster konturatu ziren, eredu horrek ere lan karga bikoitza suposatzen ziela. Horrez gain, **ezkontza ereduak jabetza ereduak aldatu gabe eraldatzea ezinezkoa zela ohartu ziren**, azken batean, zituzten lan baldintzak izanda, emakume langileak ekonomikoki euren buruak mantendu ahal izateko, ezkontzera behartuta zeuden.

7- Ikusi garaiko ekonomialariek eta sindikatuak emakumeen lan produktiboari buruz zituzten diskurtsoak material kaxan.

Charles Fourier-ek proposatzen zuen komunitate edo falansterio alternatiboekin antzeko egoera ematen zen. Europa eta Amerikan arrakasta nahikoa izan eta hainbat komunitate sortu ziren arren, generoen araberako rolen banaketa mantendu egiten zen: nahiz eta etxeko lanak teoriarik sozializatu, emakumeek burutzen zituzten batez ere. Emakumezkoen izaera naturalari egozten zioten horretarako prestutasuna. Horrez gain, euren soldatak baxuagoak izaten jarraitzen zuten, eta askoz botere politiko gutxiago aitortzen zitzaizkien.

Edonola ere, patriarkatua eta kapitalismoa lotzeko, **Engels**-en ekarpena izan zen ezinbestekoa. Marxekin batera kapitalismoa eta sozialismoaren inguruan teorizatzerakoan, emakumeei erreferentzia egin zieten bai Manifestu Komunistan, bai Ideologia Alemaniarran. Edonola ere, Engels-ek gehiago sakondu zuen gaian eta feminismoari bere ekarpenik handiena **“Familia, jabetza pribatua eta Estatuaren jatorria”**⁸ (1888) lana izan zen. Bertan emakumeen menpekotasun ekonomikoaren jatorria jabetza pribatuaren sorrera izan zela azaltzen du: komunismo primitiboaren garaian ez zegoen lan produktibo eta erreproduktiboaren generoaren araberako lan banaketarik. **Jabetza pribatua sortzean, hori transmititzeko familia nuklearra sortu zen, zeinetan gizona zen jabetza horren jauna eta jabea, eta jabetza metatzen jarraitzeko lan produktiboa gauzatzen zuena, eta emakumea, ezkontza monogamikoaren bidez lotuta, esku lan horren erreproduktioaz arduratu behar zena.** Ondorioz, jabetza propiorik ezean, ekonomikoki senar edo aitaren menpeko zen, ezkontzera eta seme-alabak izatera behartuta, klase zapaldu bihurtu ziren emakumeak. Teorika feminista eta sozialista gehienek Engels-en ekarpen hau hartu zuten abiapuntu gisa kapitalismoa gainditzea emakumeen zapalkuntza gainditzeko nahikoa ez zela adieraztean. Horrez gain, geroago feminismo erradikalaren korrontetik ekarpen honen ahulguneak agerian geratuko ziren. Izan ere emakumeen menpekotasunaren zergatiari ez dio erreparatzen: zergatik familia eta jabetza eredu horren baitan emakumeak dira menpeko eta gizonak zapaltzaile? Hain zuzen ere, oinarrian sistema patriarkarra dagoelako.

“Ez jainkorik, ez aberririk, ez senarrik”

Anarkismoa ere korrante zabaldua izan zen langileriaren artean, nahiz eta marxistekin alderatuz ez duen hain izaera argia, oso proposamen desberdinak barnebiltzen ditu eta. Oro har, autoritatearen ukapena da batzen dituenak. XIX. mendeko anarkisten artean, batik bat, sexuen arteko berdintasuna ez zen lehentasunezko gai bat izan. Are gehiago, korrante honen fundatzailetzat jo izan den **Pierre J. Proudhon**-en misoginia ezaguna egin da. Zalantzarik gabe, autoritate ororen ukazioaren ideologia garatu zuenaren kontraesanik handiena izan zen gizonen emakumeengan egikaritzen zuten zapalkuntzaren aurrean itsu egotea. Are gehiago, zapalkuntza hau onartu eta komenigarri iriztea. Bestalde, anarkismoaren beste sortzaileetako bat izandako **Bakunin**-ek, emakumeen berdintasuna sutuki defendatu zuen. Praktikan, anarkisten artean Bakunin-en tesiak gailendu ziren, nahiz eta mesfidantza edo erreserbak egon emakumeak eremu produktiboan lanean hasteari dagokionez. Hala ere, hori sozialista, anarkista zein liberalek XIX. mende osoan zehar izan zuten ataka bat izan

8- Ikusi “El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado” material kaxan.



NATIONAL WOMEN'S
SOCIAL
AND
POLITICAL

Oct.
1909

zen. Argudioen anabasa horrek argi utzi du emakumeak etxetik kanpo eta soldatapean lanean hasteak zer nolako gertakari soziala suposatu zuen, eta era berean, lan produktiboan aritu ala ez, **teoria batek ere ez zuela zalantzan jarri lan erreproduktiboan eremua emakumei zegokiela**, eta beraz, lanetik itzultzerakoan zain izango zutela.

Mugimendu anarkistari dagokionez, azpimarratzekoa da emakumeek berehala haren baitan antolatzeko aukera izan zutela, eta hala egin zen tokietan, emakume anarkista esanguratsuak geratu zaizkigula emakumeon ezkutuko Historia liburuen orriak betetzeko, **Lucy Parsons, Voltairine de Cleyre eta Louis Michel, adibidez**. Euren artean aipamen berezia merezi du **Emma Goldman-ek**. Honek, borroka feministari dagokionez, **bozka eskubideari ez zioen berebiziko papera aitortzen, eta emakumeen askapen ekonomikoaren alde borrokatzen ziren emakume sozialistengandik hurbilago kokatzen zuen bere burua**, nahiz eta sekula ez zen alderdi politikoez fidatu. Izan ere, bere muturreko feminismoa gainerako kontuen aurretik, anarkismoa barne, kokatzen zuen, eta alderdian emakumea ezkutuan geratzen zela uste zuen. Ondorioz, bai bera bai bere ideiekin identifikatuta sentitzen ziren emakumeak "inoren lurtean" kokatzen ziren: alde batetik, estatu eta autoritatearen aurka zeudenez, bozka eskubidea ez zen garrantzitsua eurentzat; eta, bestetik, estatuak erreprodukzioa erregulatu eta haurren hezkuntza eta zaintzaz arduratzeko proposamena arriskutsua iruditzen zitzaion, doktrinamendura bideratu zitekeen eta. Hori bai, anarkismoa emakumeen zapalkuntza azaltzeko tresna egokiena zela uste zuen, zapalkuntza hori esplotazio ekonomiko hutsetik edo instituzioek (izan Estatuak, edo izan ezkontza) egikaritzen zuten boteretik haratago doala uste baitzuten.

Borrokaren erroa matxismoa gainditzea zela zioen. Izan ere, ohartu zen gizonezkoek egunerokotasunean "*tirano inkontziente*" batzuen moduan jarduten zutela, eta are larriagoa zena, sumisio hori emakumeek beraiek ezartzen zirela euren buruei "*barneko tirano*" rola gauzatuz. Horren arrazoia emakumeak txikitatik euren bizitzako helburu nagusia "*ezkontza izan zedin*" hezita egotea zen, eta ezkontuta "*ez sexualitateaz gozatzeko, gizonezkoen aurerrakoienez ere deseroso ikusten baitzizuten plazer konpartituan oinarritutako sexu harremanak*". Gizonek kontraesanean kokatzen zituzten emakumeak, alde batetik asexuatuak izatea galdatuz, eta bestetik, euren gorputzak arraren desiren menara jartzen eta jendartearen erreprodukzio galdapenak asebetetzera behartuz. Goldman-en ustez, ordea, sexua "*janaria eta airea*" bezain beharrezkoa zen, eta emakumeek inongo mugarik gabe gozatu behar zuten. Ondorioz, **emakumearen askapena emakumeengandik soilik has daitekeela uste zuen**. Benetako iraultza bat ez zetorren sufragio unibertsalak bezalako erreformatatik, emakumeek aurreiritziak, tradizioak eta ohiturak gainditzeko abiatutako borrokatik baino. Emma Goldman-en feminismo ereduak hurbilago dago 70. hamarkadatik bere belaunalditik baino, sexu eta sexualitatearen zapalkuntzan kokatzen baitu gatazka.

Liberalismoa, norbanakoa ulertzen modu berri bat

Liberalismoa XVIII. mendeko ideia ilustratuetatik garatu zen korronte politiko eta ekonomikoa izan zen, eta XIX. mendean emandako iraultza gehienak oinarritu zituen. Erreferentetzat 1789ko Gizon eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena zuen. Liberalismoaren arabera, nazioa norbanakoez osatzen dute, ez ordura arteko estamentuek, eta beraz, norbanakoen askatasunak ondasun gorentzat dauzka. Horrez gain, botere banaketaren eta nazioaren subiranotasunaren aldeko korrontea zen. Mende hasieran, izaera iraultzaileko korrontea izan zen, azken batean, Europa osoan zehar ordura arteko monarkia absolutistek aurre egitea ekarri zuen 1830 eta 1848 urteen artean. Gatazka horiei iraultza liberalak deitu izan zaie. Hirietako burgesiak aristokraziari aurre egiteko bere egin zuen doktrina izan bazen ere, denborarekin norbanakoen askatasun eta eskubideak jabetza pribatu edo ondaregabe teoria hutsean geratzen zirela ikusi ahal izan zen. Ordura arte, euren estamentuak mugatutako burgesia, norberaren aberastasunen arabera boterea eskuratzen joan zen, eta ondasunik ez zuen gehiengoa beste klase zapaldu bat osatzen joan zen: langileria.

XIX. mendean zehar, liberalismoak izugarritzko indarra hartu zuen eta egungo mendebaleko estatu eredu ezaugarritu zuen politikoki, ekonomikoki zein juridikoki. Hiritarren askatasuna eta berdintasuna teoriarik beste ezeren gainetik defendatzen zuten heinean, liberal askok emakumeen berdintasun politikoaren alde egin zuten, bozka eskubidea, hezkuntzarako, ezkontzeko zein banatzeko askatasuna, etab. aldarrikatuz. Dena dela, ezin dugu ahaztu, hiritartzat hartua izateko ondasunen jabea izan behar zela: emakumeek bozkatu ezin zuten moduan, mendeak aurrera egin arte gizonezko askok ere ezin izan zuten. Hiritarra izatea eta bere ondoriozko eskubideak burgesiaren pribilegioa ziren. Liberalen artean, emakumeen eskubideei dagokionez, bereziki aipatzekoa da **John Stuart Mill**.

... eta Seneca Falls-en elkartu ziren

XVIII. mendeko iraultza liberalek burututako erreforma liberal, eta aurrerago demokratikoen, gizonezkoen monopolioa zuten sistema politikoa errotu zuten. Izan ere, liberalek estatuak antolatzeko aldarrikatutako **kontratu soziala** ideologia patriarkalean oinarrituta zegoen, **sufragio unibertsala** deiturikoa gizon zuri eta aberatsentzako bozka besterik ez zelarik. Horrez gain, jendarte zibila esfera publiko eta pribatuan banatu zuten, gizonezkoek eta emakumezkoek esleituz, hurrenez hurren. Berehala berdintasun unibertsal horren kontraesana agerian geratu zen: ondasunen jabe zuriak ez zirenek eta gizonezko ez zirenek laster antzeman zituzten sistema haren arrakalak. Dagoeneko emakumea zapalduta mantentzeko XVIII. mendeko argudio naturalistak ez ziren nahikoak: klase ertainetako emakumeek baliabide ekonomikoak eta espektatibak zituzten, eta familiaren zaintzak eta etxeko lanek ez zituzten euren nahiak asetzen.

Emakumeen eskubideen aldeko ahotsak mugimendu izaera hartzen hasi ziren. Zehazki, herrialdean batu ziren baldintza soziopolitiko eta ekonomikoak zirela

eta, XIX. mende erdialdera Estatu Batuetan aurrerapen izugarria izan zuten. Izan ere, emakume burgesak mende berean agertutako bi mugimendu sozialetan protagonista esanguratsuak izan ziren: alde batetik, esklabutzaren abolizioa eta, bestetik, Estatu Batuetan ematen ari zen erreforma erlijioso-morala. Erreforma moralaren mugimenduari dagokionez, Elizako testu sakratuak edonork irakurri eta interpretatzearen aldekoa zenez, emakumeek irakurtzen eta idazten ikastea sustatu zuten. Horrek emakume estatubatuarren artean analfabetismo tasa Europakoena baino askoz baxuagoa izatea eta emakumeentzako unibertsitate ikasketak sortzea ekarri zuen. Emakume burges ikasi horiek izan ziren mugimendu feminista gorpuzten hasi zirenak.

Elementu harrigarria da emakume burges estatubatuarrek ez zirela euren eskubide propioak aldarrikatzeko kalera atera, esklabutzarekin bukatzeko baizik. Ez zen borrokarako antolatzen ziren lehen aldia: Erresuma Batuko kolonia izateari utzi eta independentziaren alde ere arituak ziren lehenago. **Sarah eta Angelina Grimké, esklabudun familia bateko ahizpak, esklabutzaren kontrako mugimenduan aritutako lehenengo emakume aktibistetarikoak izan ziren.** Mugimendu abolizionistan aritu izanak borroka zibilean, oratorian eta gai politiko eta sozialetan esperientzia eman zien, eta are garrantzitsuagoa dena: esklaboen zapalkuntza eta euren hain desberdinak ez zirela ohartzeko balio izan zien. Mugimendu abolizionista indartzen hasi eta emakume burgesen parte hartzea bertan igotzen zihoan aldi berean, **emakume langileak euren eskubideen alde antolatzen hasi ziren langile mugimenduaren baitan.**

Emakume zuri langileek bideratutako borroketan langile eta emakume gisa euren duintasunaren aldarrikapena eta garaiko feminitatearen gaineko ideologia sexistaren salaketa nabariak ziren, eta beraz, mugimendu feministako aitzindari izatea egotzi ahal zitzairen. Hala ere, beranduago Seneca Falls-en sortuko zen mugimenduaren bultzatzaileek ez zieten ez paper hori onartu, ezta langile ziren heinean emakume moduan zapalkuntza espezifikoa jasaten zutela ulertu ere. Hala ere, Seneca Falls-en parte hartu zuten emakume langileak egon ziren. Euren helburua, emakume gisa zegozkien eskubideak bereganatzeaz gain, langile moduan euren lan baldintzen hobetzea lortzea zen. Emakume burgesak gizonezko burgesen aukera berdina izatearen alde borrokatzen hasi ziren urte berberetan, emakume zuri langileen borrokek ere gora egin zuten.

Jasaten zuten zapalkuntza eta esplotazio espezifikoaren aurrean zein langile zuriengandik pairatzen zuten diskriminazioa zela eta, **langile beltzek Koloreko Langileen Sindikatu Nazionala** (National Colored Labor Union, NCLU) **sortu**, eta bertan emakumeak hasiera-hasieratik ongietorriak izan ziren. Sorrera dokumentuetan adierazi zutenez, *ez zituzten "orain arte kide zuriak emakumeak baztertzen buruturiko akats berberak errepikatu nahi"*. Dena dela, langile mugimenduan zein emakumeen eskubideen aldeko mugimenduan beltzak hain baztertuak zeuden oraindik ere, inork ez zuela aurrerapausu hori publikoki txalotu. **Testuinguru honetan, aipatzekoak dira Mugimendu Feministaren historian ezinbesteko bilakatu diren bi emakume.** Lehenengoa, **Lucretia Mott** esklabutzaren kontrako emakumeen lehenengo sozietatearen sortzailea izan

zen. Bigarrena, **Elizabeth Cady Stanton**. Nahiz eta garai haietan Lucretiaren jarraitzaile izan, denborarekin EEBBetako mugimendu feministako intelektual garrantzitsuenetarikoa izan zen.

1848an, Elizabeth Cady Stanton-ek Seneca Falls herrian emakumeen eskubideen inguruko konbentzio bat deitu zuen. Gonbidatuak eremu liberaleko, eta batez ere borroka abolizionistarekin konprometitutako eragile zein norbanakoak ziren, emakume zein gizonak.. Emakumearen eskubideak gai nagusitzat zituen lehenengo foroa izan zen. Konbentzioa bukatzerakoan, Elizabeth Cady Stanton-ek idatzitako testu bat izenpetu zuten: "Sentimenduen Adierazpena"⁹. Testua ahobatasunez onartu zen, klausula bat salbu: bozka eskubidea aldarrikatzen zuena. Eskubide horren inguruan ezadostasunak zeuden, eta aurreragorako uztea proposatu zen.

Hala,1848an **Manifestu Komunistan Marx eta Engels-ek gizateriaren historia klase borrokaren historia dela zioten artean, urte berean Seneca Falls-eko emakumeek hori historiaren zati bat zela frogatu zuten**. Oraindik hala deitzen ez zitzaion arren, klase zapalkuntzari estu lotuta genero zapalkuntza dagoela, hain zuzen."**Seneca Falls-eko Adierazpen" bezala ere ezaguna den testu hori feminismoaren sorrera testutzat hartu izan dute autore gehienek**: harekin, feminismoa euren kabuz, bakarrik, borrokatzen ziren **emakume indibidualen aldarrikapen izatetik, mugimendu gisa gorpuztera igaro zen**. Beraz, Seneca Falls-ekoa emakumezkoen lehenengo foro publiko eta kolektiboa izan zen, eta hortik sortutakoa, emakumezkoen lehenengo mugimendu politikoa. Lehenengo mugimendu feminista antolatu horrek, berdintasunaren printzipioa oinarri hartuta, hiritar moduan gizonezkoen eskubide berdinak zegozkiela aldarrikatu zuen, bai ezkontzaren barruan, bai hiritartasunaren egikaritze publikoari zegokionean ere, hau da, bozka eskubidea. Eremu publikoan berdintasunaren aritzeko benetako sufragioaren alde borrokatzen hasi zirelako deitu zitzairen **sufragistak**. Bozka eskubidearen aldarrikapena ezagunena den arren, bestelako eskubide batzuk defendatzen zituzten, esaterako, hezkuntzarako eskubide berdintasuna edo hiritartasun kontzeptuaren barnean pertsona guztiak barnebiltzea.

Emakume beltzen eta langileen ahotsa: "Ez al gara gu emakumeak?"

Sufragistek ordura arte pentsaezina zen antolaketa eredu abiaturik zuten: alde batetik, **emakumez bakarrik osatuta zegoen**; eta bestetik, **izaera interklasista** zuela aldarrikatzen zuen, hau da, emakume langile zein burgesek hartzen zutela parte. Ideologia zein klase sozialetik haratago denei eragiten zien diskriminazioa borrokatzeko antolatu ziren. Hala ere, baieztapen horrek hutsune nabariak zituen. Seneca Falls-eko adierazpenak ezkontzaren instituzioa eta emakumeentzako zekartzan kalteak azpimarratzen zituen: emakumeengandik obedientzia osoa eskatzerakoan, senarrei eurak zigortzeko ahalmena ematen zien, eta horrez gain, dibortzio eta banaketa legeek erabakimena senarrari ematen zioten. Gainera, emakumeek hezkuntzan zein lan munduan jasaten zituzten bazterketa

9- Ikusi "Declaracion de Seneca Falls" material kaxan.

ezkontzaren instituzioari leporatzen zitzaizkion. Testuan *“irabazizko lanbide guztiak zein prestigio eta aberastasunera eramaten duten bide guztiak”* eurentzako itxita zeudela esaterakoan, emakume burgesak zituen argi eta garbi buruan. Baina **emakume langile zuri zein emakume beltzen errealitatea eta zapalkuntza espezifikoak ez ziren inon ageri.**

Zentzu horretan joan ziren 1850ean Massachusetts-en antolatutako Emakumeen Eskubideen inguruko Lehenengo Konbentzio Nazionalen **Sojourne Truth**-ek egindako adierazpenak. *“Ez al naiz ba ni emakumea?”*¹⁰ diskurtsoan egindako salaketetan, **genero eta arraza identitateaz gain, langile izaera nabarmena ere badu.** Hortik aurrera, mugimendu feministan hizlari jaioa izan zen. Feminismoaren historiari buruzko liburu gehienek pasarte hau feminismo beltzaren abiapuntu gisa kokatzen badute ere, oso gutxi aipatzen dute eszenatokira hurbiltzen zen artean hainbat izan zirela gaitzespenez txistu egin ziotenak, eta Sojourne ibiltzen zebilen segundo horietan antolatzaileek presio gogorak jasan zituztela emakume beltz bati hitz egiten utzi ez ziezaioten. Aipatzekoa da mugimendu abolizionistatik eratorritako mugimendu feminista horren kontraesana, emakumeen eskubideen inguruan hitz egiteko batu, baina emakumeen artean aurreiritzi eta bereizketa sakonak egiten zituena.

1850ko hamarkadan zehar emakume gehiago batzen joan ziren mugimendura, sexu berdintasunaren alde. Sojourne antolatzen ziren konferentzia desberdinetara agertu, eta bera bezalako emakume beltz libre zein esklaboen izenean hitza hartzen zuen, emakume zurien ezinegonen artean. Horrela, ez zien emakume burges zuriei ahazten uzten emakume bakarrak eurak ez zirela. Edonola ere, mugimendu sufragista hori indartzen joan zen, emakume burges asko eta langile eta beltz gutxiago batuta. Borroka moldeei dagokienez, berrikuntza ugari egin zituzten. **Politikagintza edo instituzio publikoetatik eragin ezin zutenek, emakume elkarteetan antolatu ziren, eta mobilizazio eta agitazio metodo berriak asmatu zituzten.** Autore askok diote, sindikatuak baino lehen, sufragistak izan zirela manifestazioak ohiko tresna bihurtu zituztenak, panfletoak banatu edo jaurtitzeko masiboen ohitura sortu zutenak... baita eraikinetan kateatzeari ekin ziotenak, kartzela barruan zein kanpoan gose grebak erabili zituztenak eta gizonetako soilik hitza zuten konferentziak oihuka eten zituztenak ere.

Gizonezko beltzek emakume zuriek baino lehen bozka eskubidea eskuratzeak mugimenduaren barne arrazakeria askatu zuen, eta gizon beltzekin elkarlanean aritutako sektoreetan haustura bat. Garai hartan, Elizabeth Cady Stanton-ek idatzitako hainbat iritzi artikuluk argi azaltzen zuen ez zegoela prest gizonezko beltz *hezigabeei* agintzeko boterea emateko, emakumeekiko gizon hezi eta zuriak baino are despotikoagoak izango zirelako, eta gizonek agindu behar bazuten, egokiagoa zela maskulinitate eredu anglosaxoiak egin zezan. Gizonezko beltzen bozka eskubidearen inguruan hainbeste tirabira egoten ari ziren une horretan bertan, oso ahots gutxi entzun ziren emakume beltzen bozka eskubidearen alde. Gutxi izan ziren, Sojourne euren artean, galdegin zutenak gizon beltzen estatusa emakume burges zuriena baino altuagoa bazen, ea

10- Ikusi *“Feminismos negros. Una antología”* material kaxan.



ROWD 161 SUPR SUFFRAGETTES, CITY HALL

AMERICAN
SUFFRAGETTES

VOTES
FOR
WOMEN

zein zen orduan eztabaida sozial horretan guztiz estalita zeuden emakume beltzena. **Eztabaida guzti horretan zehar, esklabo izandakoek beraiek ez zuten emakumeen alde egin, lortutako estatus berria galtzeko beldurrez.** Ez da harritzekoa ordura arte euren bidelagun izandakoengandik traizionatuak eta erabiliak sentitzea.

Borroka sufragista antolatuaren lehenengo urte horietan emakume langileen inguruan ezer gutxi aipatu zuten. Oro har, mugimendu abolizionistaren aldarrikapenetan klase kontzientzia ez zen inon ageri, eta sistema ekonomiko kapitalistaren zeharkako onarpen hori emakume burgesen eskubideen aldeko mugimenduan ere nabaria zen. Emakumeen zein beltzen zapalkuntza jendarteko akats moral bezala ulertzen zuten, sistemaren egiturazko elementu zenik baloratu gabe. Ez zuten EEBB-etan izugarritzko garapena izaten ari zen kapitalismoa sistema zapaltzaile eta esplotatzaile gisa identifikatzen: ez ziren ohartzen Ipar Estatu Batuetako langile zuria, nahiz eta "libre" estatusa izan, ez zela Estatu Batuetako esklaboen hain desberdina: bieki lapurtzen zitzaaien euren lan indarra, biak ziren ekonomikoki esplotatuak. Análisi falta berbera ematen zen mugimendu sufragistako buruzagien artean ere: **ez zuten hegoaldeko pertsona beltzen esklabutzaren, iparraldeko langile zurien esplotazioaren eta emakumeen zapalkuntza sozialaren artean harreman sistemiko bat zegoenik ikusten.** Hala ere, mugimendua zabaltzen joan ahala, dagoeneko antolatutako zein antolatu gabeko emakume langileak bozka eskubidearen aldeko borrokara batzeko beharra ikusi zuten.

"Bozka bat, larrialdi eskailera bat!"

Elizabeth Cady Stanton eta Susan B. Anthony-k "Revolution" aldizkariaren bulegoak erabili zituzten emakume langileak ahaldu eta antolatzen laguntzeko. Dena dela, ez zuten langileen lan baldintzak hobetearren egiten, ez baitzetozen bat sindikalgintza oinarritzen duten printzipioekin: eurentzako, "emakume" izatea zen euren eskubideen alde egiteko irizpidea. Lehenago pertsona beltzen eskubideak lehenetsun gisa onartzeko prest ez zeuden bezala, ez zuten langile klasearen elkartasuna ulertzen. Are gehiago, behin baino gehiagotan, gizona eskubideak deitutako grebetan eskirolak izatera deitu zituzten emakumeak.

Zer esanik ez, **emakume burgesak klase zapalkuntzaren aurrean hainitsu egoteak emakume langileak sufragismotik aldentzea ekarri zuen.** Sufragioa euren egunerokotasunean onura edo baldintza aldatetarik ez zekarren borroka abstraktu bat iruditzen zitzaaien, euren lehenetsunak berehalako arazo konkretuak zirenean: soldata, lanaldien ordu kopurua, etxean janaria izatea, lan baldintzak... Emakume burgesak ez ziren beharizan horiek ulertzeko gai, ez zituzten bizi, eta ez zituzten ikusi nahi, eta Susan B. Anthony-k gogor kritikatu zituen lehenetsun horiek "Emakumeak ogia nahi du, ez papeleta" diskurtsoan. Dena dela, emakume langileen bozka eskubideari buruzko ikuspuntua asko aldatu zen New York-eko Triangle Shirtwaist ehungintza fabrikako sute baten 146 emakume langile hil zirenean larrialdietarako eskailerarik ez izatearren. **Aldarrikapen abstraktu bat**

izatetik, euren biziraupena bermatzeko ezinbesteko neurrian bihurtu zen.

Sufragista ala suffragette-ak? Desobedientziak emakume izena du

Europar ere emakumeen bozka eskubidearen aldeko aldarriak oso harrera txarra izan zuen. Izan ere, bere onarpenak emakumeak eremu publikoan sartzea suposatzen zuen, eta horrekin batera, espazio horretan gizonezkoek izandako monopolioaren bukaera. Askorentzako presentzia hori bateraezina zen etxekotasunaren diskurtsoarekin zein antolaketa patriarkalarekin. **Sufragioak jendartearen ordena, familia, "etxeke aingeruaren" arketipoa eta indarrean zeuden balore kultural tradizionala suntsitzearen beldur ziren.**

Erresuma Batuan berebiziko mugimendua piztu zen. Horretarako bi faktore garrantzitsu egon ziren: alde batetik, Erresuma Batuan norbanakoaren berdintasun eta askatasunaren inguruko tradizio liberala; eta, bestetik, industrializazioaren ondorioz sortzen ari zen langile mugimendu indartsua. Hasiera batean, espektrorik osoa kokatu zen emakumeen bozka eskubidearen kontra. Are gehiago, euren burua anti-sufragista gisa definitzen zuten elkarte asko sortu ziren. Kanpaina antisufragistek antzekotasun handia dute egungo zenbait sektore antifeminstarekin: emakumeak karikatuzatzen zituzten rol "maskulinoetan"; abandonatutako etxeen edo gaizki zaindutako haurren tira-komikoak egiten zituzten; sukaldatzen, apaintzen edo garbitzen ez zekiten emakumeen irudiak feminitate galera adierazteko; emakume argal, hezurtsu, sudurluzedun gaizki jantzi eta garbituak... zaintza eta estetikara jotzen zuten emakumeak iraintzeko. Nahiz eta emakume sufragista gehienak ezkonduko etxekeandreak ziren, iruditegi sozialean emakume ezkondugabe eta maskulinoak ziren.

Sufragista ingelesak berdintasun printzipioan oinarritu zuten bozka eskubidea. **Sufragismo ingelesak bi korrante izan zituen: bata moderatua edo konstituzionalista.** Baina 40 urtetik gorako borrokan ez zuten euren helburuetara hurbilpenik lortu. **Kanpaina konstituzionalisten porrot jarraituek mugimendu sufragista alternatibo eta militanteago baten sorrerarako lurzorua jarri zuen,** muturrekoagoa, burgesiako emakume errefinatuen rolerik apurtzen zuena. Korrante horretako lider nagusia izango zen **Emmeline Pankhurst-**ek, Emakumeen Batasun Sozial eta Politikoa sortu zuen Manchester-en 1903an. Elkartearen izenean bertan adierazten den bezala, emakumeen bozka eskubidetik haratago aldarrikapenak zituzten: bi sexuen aukera zein eskubide berdintasuna eta komunitatearen ongizate soziala zituzten xede. Emmeline Pankhurst eta bere alaba Christabel-en ustez, emakumeen interesak klasez haraindikoak ziren, eta gainera, gizonen arabera mundu batean, gauza gehiagok batzen zituzten bereizi baino. Hasiera batean, **Alderdi Laboristaren inguruan mugitu baziren ere, euren aldarrikapenak beti itxarote-zerrendan geratzen zirela ikusita, taktika aldaketa bat planteatu, eta mitin politikoak eteteari, desorden publiko ekimenak antolatzeari, isunak ordaintzeari uko egiteari... ekin zioten.** Ekintza zuzena bihurtu zuten euren bandera, eta "ekintzak

bai, hitzak ez!” euren kontsigna. Muturreko sufragista hauei **“”** deitzen zieten mespretxuz eta izugarritzko astindua eman zioten iritzi publikoari.

1905ean Christabel Pankhurst eta Anni Kenney sindikalista isun bat ez ordaintzeagatik atxilotu eta espetxeratuak izan ziren. Bertan, preso politiko estatusa eman ziezaieten borrokaldia hasi zuten. Hortik aurrera, emakume sufragisten espetxeko sartu-irtenak etengabeak izan ziren. Jazarpen guzti horiek zein polizia eta espetxeko funtzionarioengandik jasotako tratuak jendartean babes zabalagoa jasotzea ekarri zuen. Babes guzti hori **ekintzak muturrekotzeko baliatu zuten: kale okupazioak, sabotaiak, komertzio eta eraikin publikoak kiskaltzea, politikari ezagunen etxeak tomate zein harriz erasotzea...** eta, era berean, ekimen guzti horiei jarraitzen zien jazarpen eta espetxeratze sistematiakoak elkartasun gehiago sortu eta emakume gehiago kontzientziatzeko balio zuen. Borrokak izugarritzko dimentsioa hartu zuen: espetxeratuen artean langile esplotatuak zein goi aristokratik zeuden. Gutxika, alderdi politikoak emakumeen bozka eskubideari dagokionez posizioak birkokatzen joan ziren...

... baina Lehen Mundu Gerraren hasierak borroka eten zuen.

**Testua jorrazteko proposatzen diren galderak:*

- Zer dela eta gizon langileek emakumeak fabriketatik bota nahi zituzten?
- Ideia sozialistak, anarkistak edota liberalek balio patriarkarrak birproduzitu dituztela esan daiteke? Zergatik?
- Garapen bat eman da gizonezko langileen emakume langileen eskubideekiko diskurtsoan? Zertan?
- Zer dela eta mugimendu feminista eta abolizionistaren (esklabutzaren abolizioa bilatzen zuena) arteko aliantza?
- Zeintzuk izan ziren “Seneca Falls-en” adierazpenaren indargune eta ahulguneak?
- Zer dela eta gizon beltzek emakume zuri zein beltzak baino lehen lortu zuten bozka eskubidea?

Proletargoaren proletargoa

Frantzia, sufragismoak beste ezaugarritze bat hartu zuen. Frantziar Iraultzaren ostean, berdintasun printzipioak onarpen eta babes zabala zuen jendartean, nahiz eta aztertu dugun bezala, emakumeei zegokienez berdintasun hori guztiz hipotetikoa izan. Horrexegatik, Europan hasitako eskubide zibil eta politikoen aldeko borrokak berehala babes zabala jaso zuen. Baina kasu honetan, emakume burges eta liberalek **amatasuna erabili zuten hezkuntza eta bozka eskubideak aldarrikatzeko arrazoi nagusi gisa**. Moralitatea eta amatasuna babestearen aldeko emakumeen elkarteetatik hasi zen mugimendu feminista moderatu bat sortzen. Emakumeen izaera *zaintzaile* eta *bakezalea* dela eta, jendartean berebiziko funtzioa zutela uste zuten, eta funtzio hori batez ere amatasunaren bidez seme-alabak baloretan hezten garatzen zutela. Hasiera batean, heziketa hori ahalik eta era egokienean burutzeko, emakumeentzako hezkuntza defendatzen zuten, eta aurrerago bozka eskubidea gehitu zioten aldarrikapen horri. Eskubide berdintasuna aldarrikatzen zuten, eta hainbat erreforma galdatu:

amatasuna babesteko legeak, gizonezkoei aitatasun erantzukizunak eskatzeko bitartekoak, lanordu gutxiago... Ideia hauek ondorengo **“ezberdintasunaren feminismoarekin”** lotu izan dira.

Langile mugimenduari dagokionez, Saint-Simon sozialista utopikoaren jarraitzaileek emakumearen afera programa politikoaren erdigunean kokatu zuten, eta batzuek oso aldarrikapen aurrerakoiak planteatu zituzten: ezkontza legearen derogazioa eskatu zuten, emakumearen esklabutzaren oinarri gisa, eta aitaren boterearen eta oinordetzaren kontra egin zuten. Are gehiago, ama ziren emakume langileek haurrak zaintzeko zituzten arazoei aurre egiteko,

“ama soziala” edo *“inude funtzionarioaren”* figura proposatu zuen. Emakume sansimondarrak talde feminista gisa egituratutako lehenengotarikoak direla esan daiteke, autonomiaz eta talde kontzientziaz antolatu eta prentsa propioa argitaratu zuten eta. Genero-identitateaz hitz egiten zuten, eta sektore zapaldutzat zuten euren burua. Hala ere, euren bidea ez zen erraza izan, eta errepresio gogorra jasan zuten, talde desberdinak legez kanporatzera iristeraino. **Pauline Roland**, adibidez, emakume langileak antolatzen aritzeagatik espetxeratu zuten, eta bertan zegoela, elkertasunezko mezuak helarazi zizkien euren eskubide zibil eta politikoan alde borrokatzen ari ziren feminista estatubatuarrei. Horrelako emakumeen nazioarteko elkartasun keinuak oso ohikoak izan ziren garai hartan.

Flora Tristan-ek aipamen berezia merezi du.¹¹ Izan ere, **generoa eta klasea zapalkuntzaren kontrako borroka berean batzen aitzindari izan zen**, eta egungo feminismoak lantzen dituen hainbat konturi aurrea hartu zien. Bere bizitzaren krudeltasuna garaiko emakume langileen ispilu izan zen, eta ondoren bere lanetan jasotako teorizazioetarako oinarria jarri zuten. Langile Batasunean langile klasearen ezjakintasun eta miseria gainditzeko emakume zein gizon langileen batasuna aldarrikatzen zuen, hortaz, internazionalismoaren aitzindaritzat hartzen da. Bere ustez, emakumeen zapaldu egoera emakumeak naturaz ahulagotzat hartzen dituen diskurtso ideologikoaren ondorio da: lege, zientzia eta erlijioaren bidez, diskurtso horrek emakumeak hezkuntzatik baztertu, eta gizonezkoen esklabo izatera kondenatzen ditu. Puntu horretara arte, bere irakurketa emakume burges sufragistenarekin bat zetorren, baina **hezkuntzan pairatutako bazterketak esplotazio ekonomikoari erantzuten ziola** defendatzen zuen berak: neskatoak ez ziren eskolara bidaltzen *“errentagarritasun gehiago ateratzen zaielako etxeko lanetan, bai haurrak zaintzen, errekaduak egiten, jatekoa prestatzen, etab.”*. Eta ondoren, nagusitzen direnean, neskame edo ikastun gisa sartzen dituzte etxeren baten edo tailerren baten, *“eta bertan patroiarengatik esplotatuak izaten jarraitzen dute, eta askotan gurasoenean zeudenean bezala tratu txarrak jasaten dituzte”*.

Horrez gain, emakume langileak gizonezkoen bizitzan elementu garrantzitsua direla planteatzen du, ezinbesteko elementu bat: hezten dituen, zaintzen dituen, laguntasuna eskaintzen duena... Hori goi mailako klaseetan ez da pasatzen, zerbitzariak, sukaldariak eta bestelakoak ordain ditzaketelako. Beraz, **emakumeen hezkuntza ezinbestekoa da, eta emakumeak intelektualki**

11- Ikusi “Flora Tristan. Mujer y socialismo” material kaxan.

eta moralki hazteak, langile klasea aberasten du. Emakumea ahula bada, horretarako hezi dutelako da, eta gizonek orokorrean ezjakintasun horretatik (produktibo zein erreproduktiboki) errentagarritasun ekonomikoa ateratzen duten arren, eurak ere klase moduan ahultzen ditu. Sozialista utopikoek burgesia eta proletarigoaren arteko elkarlan posiblean sinesten zuten bezala, berak emakume eta gizonen arteko elkarlanean sinesten zuen bien kateak apurtzeko. Langileen askapenean emakumeak ezinbesteko gakoa direla zioen, eta gizonezko langileei emakumeen eskubideen alde borrokatzeko dei egin.

Femme, Vive la commune!

Burgesia liberalaren loraldi izandako hamarkada horien ostean, 1850etik 1870era, Frantzia etengabeko gerra garai batean sartu zen. Otto Von Bismarck-en inperio germaniar bat sortzeko nahien eta Espainiar estatuan errege germaniar bat izendatzeko arriskuaren aurrean, Frantzia etsaiez inguratuta geratzeko arriskuan zegoen, eta Prusiarekin gerran sartu zen. Izugarritzko porrota jasan zuen, eta Sedan-eko batailan ia frantses armada osoa eta Napoleon III.a Prusiaren preso geratu ziren. Versaillesko jauregian bertan aldarrikatu zuten Inperio Germaniarra. Frantzian behin-behinean gobernurik gabe eta prusiarrek inbadituta geratu zen, eta horren aurrean, frantsesak kaleak hartu eta berriro matxinatu ziren. Ondoren etorritakoa ulertzeko, kontuan izan behar dugu I. Internazionalak Parisen egindako lan ideologikoa. **Langileen Lehenengo Internazionala** London-en sortu zen 1864ean, eta sindikalista ingelesek, anarkista zein sozialista frantsesek eta italiar errepublikazaleek hartu zuten parte. Euren helburua Europan eta munduan langileriaren antolaketa zen, baita problematika komuna aztertu eta lan lerro bateratuak adosteko espazio bat sortzea ere. Bertan Karl Marxek, Friederich Engels-ek eta Mijaíl Bakunin-ek jardun zuten elkarlanean. Baina tentsio ezberdinen ondorioz, 1876an disolbatu zen, halere, ordura arte egindako lanak ondorioak izan zituen, eta Marx eta Engels-ek **Pariseko Komunari** buruz egindako lanean, I Internazionala kokatzen zuten aurrekari garrantzitsu gisa. Izan ere, ideia sozialista eta anarkistak bolo-bolo zabaldu ziren.

1871ko martxoaren 18an, langileria eta Guardia Nazionalea altxatu eta hiriburua hartu zuten. Berehala, sufragio unibertsalez, botere legegilea eta betearazlea zituen Pariseko Komunaren Kontseilu Orokorra izendatu zuten, langile iraultzailez, errepublikazale liberalez eta ideia anarkista eta sozialistek erakarritako burgesez osatua. **Komuna izugarritzko esperimentu eta gertaera izan zen. Langileria mendetan zehar esklabo mantendu zuen militarismoaren, gobernu ereduaren, elizaren, burokraziaren... bukaera izan zen.** Ez zuen korrante ideologiko definitu bat: izaera libertario indartsua zuen, komunista ere... garaiko kronikek diote herritarrek ez zutela buruan Komunak ze norabide hartu behar zuen, askeak izan nahi zutela baino ez. 1789ko Iraultzatik zetorren tradizioari jarraiki, **emakumeen parte hartzea handia izan zen Komunan: errepublika berrian parekidetasunerako aukera berria bat ikusi zuten.** Aurrekoan bezala, emakumeak izan ziren kaleak hartzen lehenak. Emakumeak, **Louis Michel** anarkista buru, euren gorputzak erabilita, kañoiak babestu eta tropei aurre egin zieten, hiriko langileriari eta Guardia Nazionalari dei eginez, antola zitezen,



ez ziezaioten gobernuari herriari armak kentzen eta berau traizionatzen utzi. Udaletxean bandera gorria eskegi, eta Historiako lehenengo gobernu langile eta herritarra eraldaketan burubelarri hasi zen. **Emakumeek euren antolakunde propioak sortu zituzten, kooperatibak sortu, sindikatueta antolatu... milaka emakumerentzako lana banatu zen. Pariseko Komuna argi izpi bat zen garai hartan Europako langileria bizitzen ari zen egoera ilunean.** Emakumeak ere armak eskuan borrokatu ziren euren askapena ekarriko zuen errealtate bihurtzen ari zen utopiaren alde. **Eskubide berdintasun hori ukatzen zieten etsaiek, ironikoki, gizonen tratu berbera eman zieten atxilotuak izan zirenean:** fusilatuak edo deportatuak izan ziren. Pariseko Komunak izugarritzko jarraipena izan zuen nazioartean. Itxaropena eta eredu bat eman zizkion langileriarri. Baina bestalde, bere porrota ere kolpe gogorra izan zen, 1976an I. Internazionala zatitzera eramanez.

Elkartasun internazionalistik, Emakume Sozialisten Internazionalera

Mendebaldeko langile mugimenduan hainbeste gorabehera zeuden bitartean, borroka sufragista mendebaldeko estatu gehienetan ematen ari zen ezaugarritze desberdinarekin. Ikusi dugun bezala, Estatu Batuetan askoz ere izaera burgesagoa zuen, Erresuma Batuan langile gehiagok hartu zuten parte, Frantzia amatasunaren aitzakia erabili zen emakumeen bozka aldarrikatzeko... Baina, oro har, emakume langileak ez ziren mugimendu sufragistaren baitan antolatu: nahiz eta emakume burgesek izaera interklasista zuela aldarrikatu, emakume langileak ez ziren identifikatuak sentitu, eta euren askapenaren alde langile mugimendutik ekitea erabaki zuten. Antolatutako langile mugimendu sozialista, anarkista zein komunistak, oro har, mugimendu feminista baztertu zuten burgesa eta klase ertainen interesen arabera zelako. **Antolakundeok emakumeen borroka espezifiko baten beharra ukatzen zuten, emakumeen askapena klase borrokaren eskutik automatikoki iritsiko zelakoan.**

Klara Zetkin-ek, ordea, behin eta berriz ukatu zuen feminismo langilearen beharra.¹² Hala ere, izugarritzko garrantzia ematen zion emakume sozialisten antolakuntzari, emakumeen artean klase kontzientzia zabaltzeko ezinbestekoa zela uste zuen, eta horrez gain, berdintasunaren aldeko militante konbentzituak izan zen. Emakumeen eskubideen aldeko lanagatik ezaguna bada ere, oro har, Alderdi Sozialdemokrataren baitan lehenengo eta Alderdi Komunistan ondoren izugarritzko lana egin zuen. II Internazionalako sorrera Kongresuko (1889) bere hitzartzeak egin zuen ezagun nazioartean eta erreformismoaren kontrako borrokalari sutsua izan zen. Nahiz eta mugimendu sufragistarekin bat ez etorri haren izaera burgesaren ondorioz, emakumeen bozka eskubidea defendatu zuen mugimendu sozialistaren baitan: bere ustez, emakumeek bozkatu ahal izateak euren klase kontzientzia bultzatuko zuen.

Esplotazio ekonomikoa zela eta, emakume langileek ezin zuten euren askapen indibidualaren alde borrokatu emakume burgesek egin zezaketen moduan, eta hortik zetorren mugimendu feminista eta langile mugimenduko emakumeen

¹²- Ikusi "La cuestion de la mujer y la lucha contra el reformismo, Klara Zetkin" material kaxan.

aliantzaren ezina: emakumeen benetako askapena klase borrokaren baitan eman behar zen. **Garaiko sozialista gehienek bezala, emakumeen borroka espezifikoa ukatzen zuen, eta arriskutsua iruditzen zitzaion horretan sakontzea, proletalgoa zati zezakeen eta.** Ez zuen feminismo burgesaren aldarrikapen zehatz batzuekin momentu puntualetan bat egitea baztertzen, baina bere ustez aldarrikapenok helburu bat lortzeko mugimendu taktiko bat bestetik ez ziren, klase borrokan gizonen pare kokatzeko bitarteko bat. Ideia horretan oinarrituta, mugimendu sozialdemokrataren baitan emakumeak antolatzeari ekin zion. Ez zen lan erraza izan, garai hartako Alemaniako legediak, emakumeei bozka eskubidea ez onartzeaz gain, elkarte zein bilera politikoetan parte hartzea debekatzen zien.

Horrez gain, **XIX. mende bukaeran nazioarteko emakume sozialisten mugimendua antolatzen aritu zen.** Izan ere, urte horietan alderdi marxistek berriro ere nazioarte mailan antolatzeko apustua egin zuten: alderdi sozialistak II. Internazionalaren baitan antolatu ziren 1889tik aurrera. Internazional honi zor dizkiogu oraindik ere abesten dugun Internazionala eta Maiatzaren 1a. Emakume langileen artean joera berdina bultzatzeko, Klara Zetkin-ek **Emakume Sozialisten Internazionalaren** sorrera sustatu zuen 1907an. **Internazional honek ez zuen bere burua feministatzat definitzen, emakumeen artean "agitazio" sozialista zen euren funtzioa.** Hasiera hasieratik, emakume langileen lan baldintzen alde borrokatu zen Emakumeen Internazionala. Ekimen bereziki ezaguna da 1910ean Copenhagen burututako bigarren konferentzian **Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna** antolatu izana, **egungo martxoaren 8aren aurrekaria.** Aipatzekoa da denborarekin bere jarrera antifeminista ortodoxoek gainerako emakume sozialistengandik urrundu zutela.

Lehen Mundu Gerraren aurreko urteetan, langile mugimenduak hartu beharreko jarreraren inguruko eztabaida zegoen mahaigainean. Oro har, II Internazionalan gerraren kontrako jarrera onartu zen, gerra interes inperialista eta burgesei erantzuten ziela eta. Emakume Sozialisten Internazionalak ere ez-ohiko deialdi bat egin zuen Basilean jarrera bat adosteko, eta ondorio berberera iritsi ziren.

Gerra inperialista eta emakumeen "nazionalizazioa"

Mugimendu feministaren jarrera ere gerraren kontrakoa izan zen. Gerra gizonek bultzatutako zerbait bezala irudikatu, eta emakumea bakezaletasunari lotu zitzaion iruditegi kolektiboan. Azken batean, emakumeei ezarritako genero rolerkin guztiz bat zetorren jarrera zen: pazientzia, baretasun edo lasaitasuna, bitartekari izaera, zaintza... **Askok iruditegi hori baliatu zuten emakumeen bozka eskubidearen alde egiteko: emakumeek bozkatuz gero, gizonek hasitako gerrekin bukatuko zuten.** Oro har, elkarte feministak, sindikatuak zein alderdi politikoak, behin gerra hasita, euren aberrien alde lerratu ziren. Hala ere, teorian II Internazionalan batutako alderdi sozialistak eta mugimendu sufragista gerraren aurka lerrotatu ziren: lehenengoak, interes inperialistei erantzuten zielako, eta bigarrenak, gerra gizonen kontu bezala ulertzen zuelako, eta langile borroka zein emakumeena borroka estatutik haratago zihoalako. Hala ere, praktikan, sozialistak zein emakumeak euren estatuen alde kokatu,

eta elkartasun internazionalista hautsi zen. Emmeline Pankhurst berak, borroka eteteko dei egin zuen, emakumeak *aberriaren aldeko gizonen funtzioak* bete zitzaizen.

Horrela, **emakumeen “nazionalizazioa”** deitu izan den fenomeno eman zen. Hainbat aspektutan gertatu zen: hezkuntzaren ondorioz, estatuetak kargu desberdinetara iritsi ziren, baita sindikatuetan, Elizetan... instituzio guzti horiek emakumea pertsona gisa ahalik eta gehien formatzearen beharra ikusten zuten, ama ziren heinean euren seme-alabak modu egoki batean hezteko, batez ere. Bestalde, **I Mundu Gerran zehar emakumeei industria, ospitaleak eta, finean, estatuak aurrera ateratzeko funtzioa egotzi zitzaien**. Aberri-lanak egiteko, emakumeak nazionalizatu zirela esaten da. Behin gerra bukatzerakoan, estatu askotan lan hori bozka eskubidea onartzearekin konpentsatu zitzaien. Beraz, **emakumeak masiboki lan merkatura sartu ziren**, nahiz eta oso argi izan behin-behineko egoera zela. Giro guzti horrek emakumeen lan baldintzen aldeko mugimendua indartzea ekarri zuen, eta emakumeak alderdi eta sindikatuetak goi karguetara iristen hasi zirenez, izugarrizko bultzada izan zuten: erditze-ostean lan egiteko debekua, ordaindutako amatasun baimena, haurdunaldirako erraztasuna... Neurri garrantzitsuak lortu ziren.

Lanean gizonak bezain gaiak zirela frogatzeak, jendartean nolabaiteko mentalitate aldaketa ekarri zuen. Sindikatuetan balio gehiago eman zitzaien, eta enpresaburuek ere lan esku berria eskertu zuten, ez soilik produkzioarekin jarraitu ahal izan zutelako, emakumeen lan baldintzak eskasagoak eta soldatak baxuagoak zirenez, gizonetzkoenak jaisteko ere balio zielako baizik. Hemen kokatu behar dugu “emakume moderna” figuraren agerpena, autonomia maila altua, ikasketak, okupazio profesionala, eta baita askapen sexual puntu bat zuenaren moduan aurkeztua izan zena. Estetika eta gorpuzkeran eraldaketa nabariak erakutsi zituen: ile motza, keinu maskulinoak e.a., eta aurretik gizonetzkoen egokitutako espazioetan ageri zen.

Hala ere, **nahiz eta gerra ostean aldaketa garrantzitsuak eman ziren emakumeen bizi baldintzetan, jendartearen mentalitatean ez**. Are gehiago, gerrak utzitako demografia eskasaren ondorioz, amatasuna eta espeziearen erreproduzioaren pisua egotzi zitzaien berriro ere. **Baina askok ez zuten etxera itzuli nahi izan**.

Proletalgoarena ezezik, emakumeena izandako iraultza

Errusia zaristan, hirietan mugimendu feminista sortzen joan zen XIX. mende bukaeran, eta 1914ean, gerrarekin batera, emakumeak industrian hasi. Iraultza aurreko hileetan, emakumezkoen mobilizazioak konstanteak izan ziren ogi eta bake eskean. Tsarrak martxoan abdikatu zuenean, behin-behineko gobernuak uztailan onartu zuen emakumeen bozkatu eta hautatua izateko eskubidea, Ingalaterran baino urtebete eta EEBB-etan baino 2 urte lehenago. Ezin dugu Sobietar Batasunean hartutako neurrien inguruan hitz egin **Alexandra Kollontai**¹³ aipatu gabe. Ordura arte emakume marxista gehienek, Flora Tristan eta Klara

¹³- Ikusi “Alexandra Kollontai. Autobiografía de una mujer emancipada” material kaxan.

Zetkin-ek euren artean, sozialismoa emakume masa zabalak borrokara lotuta soilik gailenduko zela ziotenean, irizpide kuantitatiboa zuten batez ere buruan, hau da, langileriaren erdia emakumezkoa zela. Alexandra Kollontaik, ordea, modu sistematiko eta arrazionalen lotu zituen feminismoa eta marxismoa.

Ez zituen besterik gabe emakumeak iraultza sozialistan barnebildu: **emakumeen zapalkuntza benetan gainditu eta parekidetasuna lortzeko iraultza sozialistak zelakoa izan behar zuen teorizatu zuen**. Jabetza pribatua abolitzearekin eta emakumeak produkzioan barneratzearekin ez da nahikoa, eguneroko ohitura txikiak eta pentsamoldeak eraldatzea ere ezinbestekoa da, munduaren ikuskera berri bat eraikitzea, eta batez ere, generoen (sexuen zioten garai hartan) arteko harreman eredu berriak sortzea. **Eraldaketa horiek eman gabe, sozialismoa ez da gailenduko, nahiz eta proletalgoak botere politikoa eskuratu. Horregatik, ezin dugu emakumeen aferaren konponbidea atzeratzeaz hitz egin, edozein kasutan, iraultza da atzeratu beharko dena**. Zer esanik ez, bere gizonezko kideekin eztabaida ugari izan zituen, askok emakumeen borroka espezifikoa beharrezkoa ukatzen zuten eta.

Bere ustez, produkzio harremanak aldatzeko, **“gizon berria”** eta **“emakume berria”**¹⁴ ziren beharrezkoak. Garaipena eskuratzeko, proletalgoak balore berriak eta horietan oinarritutako bizi ereduak behar ditu, eta egunerokotasuneko iraultza hori, agian garrantzitsuena, ezin da beste iraultza baten zain geratu. Alexandra Kollontai-ren gidaritzapean, abenduan adostasunean oinarrituriko dibortzioa arautu zen munduan lehen aldiz. Horrez gain, ezkontza erlijiosoa abolitu, ezkontzeko izapideak erraztu eta aitatasun patriarkala suntsitu zituzten. Lan eremuan ere, amatasuna babesteko neurriak hartu zituen. 1920an, abortua legeztatu zen munduan lehen aldiz. Etxeko lanen banaketa planteatzeaz gain, lan erreproduktiboaren izaera soziala zela eta, Estatuaren funtzio izateko bidean jarri zituen.

Derrigorrezko hezkuntza ereduak ezarri zen, eta Sobietar Batasuneko lurralde musulmanetan poligamia eta adintxikien ezkontzak debekatu zituzten, baita derrigorrezko beloa ere. Hezkuntzari dagokionez, Lenin-en bikote izateagatik ezaguna den **Nadezhda Konstantinova Krupskaya** ezin aipatu gabe utzi. Iraultza boltxebikeko gidaritzan parte hartu zuen, eta ondoren, Alderdi Komunistako partaide aktiboa izateaz gain, hezkuntza sistemaren sorreraren arduraduna eta egungo bibliotekonomiaren garapenean aitzindari izan zen. Hezkuntza komisaria zelarik, haurren analfabetismoa bukatzeko eta balore iraultzaileetan hezteko sistema baten diseinu eta gauzapena bultzatu zuen, beste jendarte eredu bat eraikitzeko tresnarik garrantzitsuena hezkuntza zela ohartuta. Komunismoa eta hezkuntzaren inguruko idazki desberdinak egin zituen, oraindik ere balioa dutenak.

Bestalde, Sobietar Batasunaren eta emakumearen inguruan Alexandra Kollontairen izena burura etorri arren, ez dugu figura isolatu moduan ulertu behar: bere lan legegilea XIX. mendetik marxismoa eta feminismoa aztergai, emakumearen eta familiaren papera zein izan behar zen teorizatzen ibilitako

14- Ikusi “Alexandra Kollontai- la Mujer Nueva” material kaxan.

emakume sozialista askoren lana izan zuen aurrekari. Etxeko lanen edo lan erreproduktiboen antolaketa berriak eztabaida ugari sortu zuen. Boltxebikeen arabera, **familiaren eta etxeko lanen baitan zegoen emakumeen zapalkuntzaren gako, baita askapenarena ere**. Horregatik, egungo feminismo gehienak lan erreproduktiboen gizon eta emakumeen arteko banaketa orekatu bat proposatzen duen artean, Sobietar Batasunean hauek eremu publikora eramatea proposatzen zuten. Estatuak bere gain hartu, eta emakumeak gizonen baldintza berdinetan jartzea.

**Testua lantzeko proposatzen diren galderak:*

- Zergatik ukatzen zuen langile mugimenduak orokorrean emakumeen borroka espezifikoko baten beharra?
- Zein fenomenori deitzen diogu "emakumeen nazionalizazioa"? Aurrerapausorik suposatzen emakumeentzat?
- Ezagutzen al genuen emakumeen papera Pariseko Komunak? Zer suposatzen zuten Komunak? Ze ikaspen utzi zituen emakumeei dagokionez?
- Ze ondorio izan zituen Europako sozialista eta feministentzako Klara Zetkinen lanak eta Emakumeen Internazionalak?
- Zergatik da garrantzitsua Alexandra Kollontainen ekarpena?

Gerra arteko garaia: emakume modernotik amatasunaren apologiara

Gerra arteko garaian, herrialde askok sufragio femeninoa lortu zuten, eta lorpen honek emakumeen borroka desartikulatu zuen hein batetan, hau termino berrietan planteatu zelarik, alegia, emakumeen eskubide eta berme sozialen inguruan. Garai honetan, prozesu sozial konplexuak ematen ari ziren: Lehenengo Mundu Gerraren sarraskia, totalitarismo eta faxismoen hazkundera, 1929ko kapitalismoaren krisia eta bertatik ateratzeko martxan jarri zen estatuaren interbentzionismoa... Testuinguru honen baitan, emakumeen egoeran aldaketa nabariak eman ziren, zenbait konkista sozial eta zapalkuntza forma berrien artean igaro zirenak. Gerra ostean, herrialdeen berregituratze ekonomiko eta demografikoaren aitzakiaz eta "emakume modernoek" sexu ordena irauliko zutelakoan, ama eta emaztea goraiatzeko zuten diskurtsoa berrezarri zen indar handiz. Amatasuna, emakumeen patu naturala zelako argudioa berpiztu zen, eta gero eta esku hartze handiagoa zuten estatuek, neurriak hartu zituzten jaiotza tasak bultzatzeko.

Bigarren Mundu Gerraren osteko hondamendi demografikoa orekatzeko amatasunaren indartze berri bat eman zen, estatuek berregituratze nazionalaren zutabetzat hartu zutena. Amatasunaren propaganda alderdi komunistetatik katolikoetara eman zen. Lehenengok klase borrokaren baitan kokatzen zuten, populazio iraultzailearen erreproduktzioaren behar moduan; bigarrenak, familia nuklear kristaua gizartea gerra ostean berreraikitzeke erreferentetzat jotzen zuten. Hortaz, garai honetako feminismoak diskurtso honetaz baliatuz bere aldarrikapenak artikulatu zituen. Feminismo moderatuagoa izan zen eta balio femeninoaren aldarrikapenetik egin zen, hau da, diferentziarekin aliatuz eta berdintasunaren diskurtsoetik aldentuz. Emakumeek balio bakezaleak



Bread and Roses Strike

eta maternalak zabalduko zituztelako, eta gizartea “etxekotuko” zutelako eskatzen zituzten zenbait berme sozial. Gerra arteko garaian, bere aktibismoa, amatasunaren inguruko eskubide eta zerbitzu sozialak eskatzean, eta gerraren aurkako aldarriak zabaltzean zentratu zen.

Bigarren Mundu gerratik aurrera ireki zen garaian, feminismoa ohartu zen emakumeen zapalkuntza eskubide zibil, politiko edota sozialen haratago ere kokatzen zela. Izenik gabeko gaitz bat ere bazegoela hor nonbaiten, eta iruditegi kultural-sinbolikoa eta identitate sozialen eraikuntza prozesuari ere kasu egin behar zitzaiola. Testuinguru honetan azaldu zen Simone de Beauvoairren obra, momentuko korapilo askoren gainean zenbait argi pitzuz.

Gerra arteko garaian feminista ezaguna dugu **Simone de Beauvoir**. Honek osterako pentsamendu feministaren oinarri izango diren klabeak mahaigaineratu zituen. Batetik, Mendebaldeko iruditegia eta emakume askoren bizipenak aztertu ondoren, “Emakumea egin egiten da” premisa adierazi zuen. Honekin **feminitate eta maskulinitate naturalik ez zegoela adierazi nahi izan zuen, generoa eraikuntza kulturala baita**. Orobat, arrazakeria eta sexismoaren inguruko diskurtso biologizistetan oinarritzen den mendebaldeko hierarkia soziala kolokan jarri zuen esaldi honekin. Bestetik, emakumeen zapalkuntzaren muina hauen identitatean bertan kokatu zuen Beauvoirrek. Gizona esentzia eta neurri moduan eraikitzen da, eta emakumea haren arabera definitzen da. Horrela, **emakumeek gizonezkoak ez direna eta haien erlatibo, “besteak”, izatean oinarritzen dute euren identitatea**. Gizonezkoen bitartez begiratzen diote euren buruei, eta horrek bere bizitzen subjektu bihurtu ahal izatea eragozten die.

Emakumeek subjektibitate propiorik gabeko izakiak bihurturik, gizonengandik jasotako onespenean zentratzen dute euren identitatea, auto-pertzepzioa.

Subjektu bat beste bati kontrajarriz eraikitzen da, eta subjektu moduan errealizatzeko aldeko errekonozimendua beharrezkoa da. Gizonezkoek errekonozimendu hau eskuratzen dute emakumeengandik baina ez da gauza bera gertatzen alderantziz, emakumeak objektu posiziora lotuak geratzen direlarik. Horrela finkatzen da asimetria, norberaren auto-pertzepziotik, honek sostengatuko du ostera genero zapalkuntza sistema oso bat, sinbolikoa eta materiala, burujabetza maskulinoa eta emakumeen menperatzea ahalbidetzen duena. Alegia, emakumeak bigarren kategoriako sexua izatera kondentzen dituen sistema. Honen aurrean, Simone de Beauvoirrek **emakumeak euren bizitzen eta historiaren subjektu aitortzearen beharra aldarrikatu zuen**.

Bestetik, idazle honek identitateetan jarritako arretak, praktika eta teoria feministari norbanakoa abiapuntu izango zuen praktika eta teoria feministari bidea ireki zion. Emakume bakoitzaren bizipen, izaera, subjektibitate eta harremanak ulertzearen garrantzia azpimarratuko zuena. Eta, era berean, hura logika kolektibo batean ulertzeko premia azpimarratu egin zuen: “emakumeak”, identitate kolektiboaren baitan, mundu mailan jazarpen patriarkala pairatzen zutenak, alegia. Horrela, **feminismo identitarioaren garaia ireki zen XX. mendeko bigarren erdian**.

XVIII. mendean emakume "etxeko andrea" eta gizon "etxeko burua" genero idealak ezarri ziren. Faktore sozioekonomikoak zirela medio, ordea, **eredu hau burgesiak besterik ezin izan zuen jarraitu lehenengo garaietan.** 1950eko hamarkadatik aurrera baina, gauzak aldatu egin ziren. Kapitalismoaren mundu mailako berrezartzearen ostean, klase ertainen sorrerarekin eta kontsumo gizartearen zabalpenarekin, familia nuklear askok bereganatu zuten genero antolaketa hau. Testuinguru honetan, bada, klase ertaineko emakumeek egoera eta zapalkuntza zehatz batzuk bizi zituzten. Proiektu akademiko eta profesionalak zituzten emakumeak ziren, baina orduko feminitate idealak ama eta emazte izatera behartzen zituen. Autonomia esperientzia batzuk izan ostean, agindu sozial honek ez zituen emakumeak asebetetzen. Aitzitik, frustrazio, sufrimendu, adikzio eta gaitz psikologiko mordoa pairatu zituzten orduko etxeko andreak, bere bizi proiektu propioa garatu ezinean.

Izenik gabeko oinazea

Etxean itxita, kontsumo gizarteak eskainitako aurrerapen teknologikoez inguratuta, emakumeek zoriontsu behar zutela etengabe entzuten zuten. Baina bitartean bakardadez, menpekotasunez eta zaintza lan intentsiboko errealitate batean itota bizi ziren. Beti besteen mesedean egoteak, emakumeak bere larruan konforme ez egotea zekartzan. **Betty Friedanek "emakumeen izenik gabeko arazoa"** deitu zion auzi honi. Behin emakume baten ahotik hitz hauek entzutean bururatu zitzaizola azaltzen du autoreak. Emakume hauek euren errealitatea izendatu ahal izatea ez zen kontu hutsala. XVIII. eta XIX. mendeetako feminismo klasikoak urraketa sozial eta politiko argi bati erantzuteko antolatu zen. Testuinguru honetan, berriz, klase ertaineko emakume zuriak hiritartasun eskubideak lortuak zituzten orokorrean. **Friedanen ekarpen nagusia, dagoeneko zapalkuntza horren agerikoa ez zen gizarteetako emakumei euren gaineko zapalkuntza ikusteko betaurrekoak eskaintzea izan zen.** Bide batez, hauen arteko elkarlana eta antolakuntza sustatuz. Horrela, 60ko hamarkadatik aurrerako feminismoak indar handiko mugimendu soziala sortzea lortu zen definitu gabeko sotilagoa zen oinaze kolektibo batetik abiatuz.

Baina Friedanen lan eta jardun politikoaren zenbait hutsune aipatu daitezke, historiaren bilakaeraz ikasteko asmoz. Friedanek kapitalismoaren interesetan kokatu zuen etxeko andrearen estereotipo eta zapalkuntza. Haatik, bertan dago bere teoriaren muga nagusia, alegia, ez zuen erreparatu patriarkatua sexu-generoan oinarritutako zapalkuntza sistema politiko oso baten moduan. Horregatik, kapitalismoa eta patriarkatuaren arteko aliantzaren analisisa desitxuratua gelditzen da bere obran. Bide honetatik NOWek (*National Organization of Women*) emakumeak eszenatoki politikoan ikusgai egitea lortu bazuen ere, bere aldarrikapenak eskas gelditzen ziren genero sistemaren erro guztiak borrokatu ahal izateko. Irtenbidea marko juridiko-politikoan kokatzean, ez zion horrenbeste erreparatu sexualitatearen eta familia eremuan ematen ari ziren zapalkuntza mekanismoei. Aurrerago ikusi zenez, **60ko hamarkadatik aurrera emakumeek etxetik atera eta masiboki espazio publikoa hartu zutenean, arazoak ez ziren bukatu.** Aitzitik, lan gainkarga hartu zuten (etxeko

eta enpleguko lanaldiak), euren egoera aspektu batzuetan larritu zelarik. Horrenbestez, feminismoak patriarkatuari aurre egiteko, erantzun integralagoak bilatu behar zituela argi geratu zen.

60ko hamarkadan gizartean eraldaketa prozesu sakonak ematen ari ziren eta testuinguru honetan, Mugimendu Sozial Berrien eztanda gertatu zen. Hauek gizarte modernoaren normatizazio eta zapalkuntza material eta ez materialak azaleratzen saiatu ziren. Maila politikoan, erreformismoa, sozialdemokrazia eta alderdi tradizionalen burokratizazio zein hierarkizazioa kritikatu zuten. Ideal eta borroka molde berriak eraldatu ziren, eta utopiak erabili ziren gizarte eraldaketa norabidetzeko tresna.

Feminismoak paper zentrala eduki zuen prozesu hauetan. 1968ko Maiatzaren harira sortutako Mugimendu Sozial Berriek azken joera feministen izaera eta antolaketa moldeekin bat zetozen. Hau da, une honetan borrokaren subjektua klase sozial homogeen bat izatetik, langileria alegia, subjektuak zatitu egin ziren identitate eta zapalkuntza faktore ezberdinen arabera. Halaber, berdintasun sozialaren aldarri klasikoaren parean, autonomia pertsonala eta izateko askatasunaren aldarriak indartu ziren. Hots, **pertsonak eta bere eremu mikroa garrantzia hartu zuten**. Esan dezakegu aro garaikidean, ordura arte, ideologia handiak izan zirela nagusi (liberalismoa, sozialismoa, nazionalismoak). Hauek, errealtateari zentzua emateko metarrelatoak* eskaintzen zituzten, eta unibertsalizazio* joerako etorkizunerako proiektu bat finkatzen zituzten. Proiektu hauetan norbanakoak peoiak behar zuten, ideologia bakoitzak agintzen zuen behin betiko azken garaipen horretara heltzeko. Honi ideologia korporatiboa deritzo.

1960ko hamarkadatik aurrera, **ideologia korporatibo horietatik identitateen politiketara igaro zen**. Horretarako, identitate kolektibo berrien eraikuntzak martxan jarri ziren borroka politiko ezberdinetan. Une honetan, bada, norbanako zapaldu ezberdinek euren buruei izena jartzeak eta kolektibo baten parte sentitzeak berebiziko garrantzia hartu zuen. Orduko feminismo olatu berria marko orokor honen baitan kokatuko dugu. Mugimendu Sozial Berriek jomuga ezberdinen inguruan antolatu ziren: afroamerikar populazioaren eskubide zibil eta politikoen alde AEBn; inperialismoaren aurka (deskolonizazio prozesuen testuinguruan Afrikan, Asian eta Hegoamerikan); bakearen alde (Vietnameko gerraren testuinguruan); emakumearen zapalkuntzei aurre egiteko,.. Molde kultural hegemonikoen aurrean **kontrakultura mugimendu** zabalak sortu ziren *hippie*-ak edo *punk*-ak kasu. Azpimarratu beharra dago mugimendu hauetan bai gazteria eta bai ikasleria borrokaren subjektu nagusi izan zirela. Ezkerreko alderdiei dagokionez, ezker klasikoaren alderdi eta sindikatuek moderatu egin ziren, erreformismo eta instituzionalizaziorako joera hartuz. Aldi berean, ezker berri eta erradikalago baten sorrera gertatu zen klase borrokaren lekukoa hartu zuena: troskoak, maoistak, eta gure kasuan, ezker abertzalea.

Pertsonala politikoa da!

Testuinguru honetan, 60ko hamarkadatik eraikitzen ari zen **emakumeen identitate kolektiboan oinarritu zen feminismo erradikala**, feminismo liberal zein sozialistaren hutsuneak betetzeko planteamenduak burutuz. Korrante honek, finean, **patriarkatua zapalkuntzarako sistema politiko moduan teorizatu zuen**, eta sexualitatearen eta gorputzekiko burujabetzaren inguruko aldarriak planteatu zituen. Orobat, eraldaketa pertsonala, ekintza politikoa eta elaborazio teorikoa uztartzen saiatu zen mugimendua da feminismo erradikala. Honen baitan, bizitza pertsonalean ematen diren harremanak berebiziko lehenatasuna hartu zuten, hauek logika patriarkalaz gurutzatuta zeudela aitorturik. Hemendik eratorri zen feminismoan hain esanguratsua den esaldia: *“pertsonala politikoa da!”*. Ideia honen defendatzaile sutsua, **Kate Millet** dugu. Bere obra *Politika sexual* (1971) feminismo erradikalaren oinarri teoriko garrantzitsua bihurtu zen. Bertan, patriarkatua instituzio politikotzat hartuta, honen analisi sistematikoa burutu zuen, sexualitatea haren oinarritzko eremua zela azaleratuz. Gizon eta emakumeen arteko harremanak botere harremanen terminoetan definitu zituen. Halatan, harreman sexualak ez direla naturalak baieztatu zuen, baizik eta politikoak, patriarkatuaren gotorleku nagusia.

Zentzu honetan, sexualitate autonomia eta gorputzaren gaineko erabaki libreak aldarrikatu ziren. Feminismo erradikalaren testuinguruan kokatu behar ditugu emakumeen arteko **autoezagutza eta autokonzientziarako tailerrak, sexu hezkuntza** eta planifikazio familiararentzako zentroen sorrera, **abortuaren aldeko borrokak** edota **antisorgailuen aldeko aldarriak**. Horretaz gain, mugimendu honek zientzia androzentrikoaren gaineko kritika sutsua burutu zuen. Lengoaia eta ezagutza intelektuala erabat maskulinoa zela salatuz, emakumeak sistematikoki baztertzeko zitzuztelarik. Modu honetan, “patriarkatua”, “sexismoa”, “indarkeria sexista”, “generoa” eta “politika sexuala” bezalako kontzeptuak orokortu ziren diskurtso feministan. Kategoria hauek, errealitatearen analisirako eta borroka ideologikorako klabeak izan ziren. **Feminismo erradikalarekin batera, indarkeria sexistaren aurkako dinamikak abiatu ziren, erailketak, bortxaketak edota kaleko jazarpenak salatuz; indarkeria pairatutako emakumeendako lehengo laguntza neurriak ezarriz; autodefentsari berebiziko garrantzia emanez eta, batez ere, arazo indibidual eta pribatuaren eremutik ateraz eta arazo publiko eta sozialaren eszenatokira eramanez.**

Aldi berean, feminismo sozialistak marxismo klasikoari kritika egin zion genero zapalkuntzarekiko egindako analisi eskasagatik. Ikuspegi marxista baliaturik feminismo sozialistak emakumeen zapalkuntza azaldu zuen produkzio, erreproduzio eta sozializazio moldeetatik. **Oro har, ezkerreko mugimenduetako sexismoa salatu zen garai honetan. Shulamith Fireston** dugu honen adierazgarri. Firestonek *“Sexuaren dialektika. Iraultza feministaren defentsan”* (1973) liburuan feminismo marxistaren obra garrantzitsua burutu zuen. Teoria marxista feminismora eramanez, emakumea klase sozialtzat definitu zuen, klase sexual zapaldua. Idazle honek sexu klaseen dialektika azaltzeko erreproduzio eta produkzioaren banaketan sakondu zuen. Emakumeek erreproduzioarekiko

zeukaten lotura gainditzeko, bizitzaren erreprodukzioa talde komunaletan kokatzearen beharra azpimarratu zuen. Bere konbikzio nagusia familia eredu aipatu behar zela zen, "familia biologikoaren tirania" eta lanaren banaketa gainditzeko erreprodukzio artifiziala proposatu zuen, eta gizakien diferentzia sexualak kulturalki neutroak izan behar zirela. Klase eta sexu iraultzak paraleloki eman beharrekoak zirela ondorioztatu zitekeen testu honen irakurketatik.

Garai honetan, **diferenziaren feminismoa**¹⁵ zabaldu zen zenbait mugimendu eta teorika feministen artean, batez ere, Frantzia, Italia eta AEBtan. Testuan zehar aipatu dugu historiaren zenbait momentuetan emakumeen borroka batzuk feminitatearen bereizgarrietan oinarritu izan zirela zapalkuntza patriarkalari aurre egitearren. 70. hamarkadako diferenziaren feminismoak, mendebaldeko pentsamendu maskulino, falozentriko* eta menperatzaitetik aldendu nahi izan zen, ikuspegi alternatibo bat garatuz emakumeen begietatik, bere diferentzietan oinarrituz, subjektu sexuatu* ezberdinak direla aitortuz. Baina ez ezberdina-besteia-menperatua ekuazioa jarraituz, baizik eta **ezberdina-subjektua lotuz, emakumeek bere kategoria propioa eta begiradatik begiratu diezaioten bere buruari, eta besteentzako lekua izateari utzi diezaioten. Zentzu honetan, tradizio ilustratuko berdintasunaren feminismoaren emantzipazio moldea kritikatu zen (feminismo kolonizatutzat hartu zen ere), , orden maskulinoan asimilatu eta integrazten dituelako emakumeak, bertan posizioak irabazten saiatzera mugatuz**. Diferenziaren feminismoak orden sinboliko alternatibo bat sortzearen beharra azpimarratzen du, arte eta produkzio kulturalen bitartez, eta emakumeen arteko aliantzak eta errekonozimendu kodeak sortzearena, gizonezkoen eraginetik aparte.

Luce Irigaray, Annie Leclerc, H el ene Cixous edo **Carla Lonzi** dira diferenziaren feminismoa autorea garrantzitsu batzuk. Beraiek, eta beste batzuek, hurrengo galderak planteatu zituzten: norekin berdindu nahi gara? Gizonezkoekin? Bere eredu jarraitu nahi dugu? Bere soldata eta leku publikoa eskuratu? Feminismo honek uste du iraultza horrela planteatzea konparazio abiapuntu oker batetik hastera dela, eta neutralismoa baztertuz, sexuen diferentziak nabarmentzeko norabidea proposatzen du. Horrela, nolabait, bi sexu-generoen izatea onartzen du. Aurrerago ikusiko dugunez, asko kritikatu izan den posizioa da hau, batez ere queer teoria eta praktika politikoetatik. Feminismo honekiko egondako beste kritika batzuek, diferentzien aldarrikapenetan emakume eta gizon kategoria monolitikoak bultzatu dituela adierazi dute, bata eta besteari ezaugarri eta izaera zehatz batzuk egotzirik kategoria hauen baitan dagoen aniztasuna ukatuz.

Feminismo erradikaleko antolaketa politikoa hierarkien eta eliteen kontrako izaeratik markatua egon zen. Antolakunde handiak beharrean, autokonzienciaziorako talde informalak eta harreman pertsonalak feminismo honen motore bihurtu ziren, mugimendu zabala osatzen zuten zelula ezberdinak osatuz. Horietan, emakumeen arteko ezagutza, elkartasuna, elkartrukea eta konfiantza zen oinarri. Honen bitartez, bere bizipen indibidualei beste esanahi bat emateko aukera izan zuten, errealitateari heltzeko beste esanahiak sortuz. NOWk ez bezala, estatuaren interlokuzioa uxatzen zuten emakumeen askapen

¹⁵ Ikusi material kutxan: "Feminismo y posmodernidad: Luce Irigaray y el feminismo de la diferencia"



prozesuan. Aldiz, **bizitza pertsonala eraldaketa sozialeko proiektuan sartu zen**, ezkontza, bikotea eta sexualitate moldeak ezbaian jarri zirelarik. Beraz, aldi honetako feministek inplikazio pertsonal estua izan zuten. Dena den, aldi honetako feminismoa emakumeen taldeez gain ezkerreko alderdi eta mugimenduetan eragiteko garrantziaren jabe zen, eta amaigabeak izan ziren militantzia bikoitza edo bakarra defendatzen zutenen arteko eztabaidak.

Paraleloki, 1970eko hamarkadan **feminismo instituzionala** garatzen joan zen. Feminismo honek gerra arteko garaian egondako feminismo internazionalan du aurrekari, zeinak 1946an Nazio Batuen Emakumeen Estatusaren Komisioa sortu zuen. 1975an Nazio Batuen Emakumeen I. Konferentzia ospatu zen Mexikon 80 herrialdeetako emakumeak batuz. Marko hauetan, oso zaila izan da hasieratik emakumeen eskubideei lehentasuna ematea herrialde ezberdinetako interes nazional eta politikoen aurretik. Dena dela, gutxika nazioarteko feminismo instituzional honek aldarrikapen eta agenda amankomun bat osatzea lortu du, beste organismoen aurrean nolabait bere eragina handituz. Agenda hau, batez ere, emakumeen eskubide sexual eta erreproduktibo, indarkeria eta emakumeen mutilazio genitalaren inguruan datza. Gobernu estataleki dagokionez, feminismo instituzionalak bertan forma ezberdinak hartu ditzake: hitzarmen interklasistak eginez, herrialde nordikoen antzera; presio talde gisa, adibide amerikarren antzera; emakumeen ministerio edo institutuak sortuz e.a. Organismo hauek, zenbait berdintasun politika jarri dituzte abian emakumeen bizi-baldintzetan onura batzuk ekarri dituztenak. Dena dela, kasu askotan bere izaera feminista zalantzan jarri izan da, feminismoaren izate erradikalarekin bat ez etortzeagatik. Gainera, feminismo instituzionala eta Mugimendu Feministaren arteko harremana zaila izan da, azken hau tarteka kaltetua atera delako berdintasun politika instituzionalen eraginez. Mugimendu Feministaren aldarrikapen batzuk instituzioengatik erabili izanak, askotan Mugimendu beraren desaktibazioa ekarri du, bai eta berdintasunezko gizarte batean bizi garelako uste faltsua.

70eko hamarkadan zehar feminismoa, emakumeen borrokak izaera internazionala hartu zuen. Aldi berean, munduko bazter gehienetan, emakumeen emantzipazioa eta bere bizi baldintzen hobetzea bilatzen zuten emakumez osatutako mugimenduak sortu. **Bide honetan sortu zen "emakume" kategoria, munduko emakume guztiak barnebildu nahi zituena, zapalkuntza eta borroka beraren parte eginez.** Honen efektu okerra feminismo monolitiko baten bilakatzea izan zen. Hau da, emakumearen diskurtso unibertsal hegemonikoa mantendu zuen feminismoa, haren atzean emakume askoren egoera estali zelarik.

"Emakumea" kategoria zurrunaren mugak zabaltzen

Momentu honetan, emakume identitate kolektiboa eraikitzean eta agenda feministak egiterako orduan, emakume guztien egoera berdintzat hartzen zen, klase, etnia edo bestelako aldagaiei arreta jarri gabe. Hortaz, tradizionalki feminismoa hegemonikoa, zuria, mendebaldekoa, heterosexuala, zisgenero, burgesa eta ilustratua izan dela agerian jarriko da. Ipar Amerikako emakume

beltzak eta lesbianak haien aldarrikapenekin hasi zirenean, emakumearen kategoria zurrunik ezkutatzen zuen homogenizazio joera mahari gainean jarri zen eta, bide batez, kategoria berak zekarren inposizio eta bazterketa denak. Horrela, gutxika **emakumeen aniztasunari erreparatzen hasi zitzaion feminismoa, emakumeen zapalkuntza ezberdinak aitortzeko jardute zailean murgilduz.**

Feminismo lesbianoak egindako ekarpen nagusia zera izan da, heterosexualitatea, praktika sexual zehatz batzuetatik haratago, sistema patriarkalaren oinarrian dagoen egitura soziala dela azalaraztea. Hots, heterosexualitatea instituzio gisa, aparatu kulturalaren erreproduzioaren oinarri gisa birpentsatzea. **Gayle Rubinek**, "*Tráfico de mujeres. Notas sobre la economía política del sexo*"¹⁶ (1975) artikuluan "sexo-genero sisetema" kontzeptua sortu zuen. Honen bitartez, sexu biologikoa, eme eta har, emakume eta gizon sozialak bilakatzeko prozesuan, lehenengoan zapalkuntza sistematikoa dakarren prozesuan, alegia, egitura familiar heterosexualak daukan funtsezko zeregina azaldu zuen. Izan ere, bertan bermatzen da populazioa bi generotan banatuko dela, alde maskulinoaren gailentzearekin batera. Rubinek, bada, **generoaren eraikuntzaren zutabe nagusia sexualitatean eta ahaidetasunaren antolaketa zegoela** erakutsi zuen, **halabeharrez heterosexuala behar zuen sexualitate eredu**a, hain zuzen ere. Haren ustez, egitura hauek iraultzea behar luke feminismoaren egitasmo nagusia. Autore honek, beste alde batetik, gure gizarte ordenak ezartzen duen harreman mota ezberdinen arteko hierarkizazioa aztertu zuen, erotismoaren piramidearen bitartez: piramidearen gailurrean bikote heterosexualaren maitasun erromantikoa legoke, ezkontzarako proiektua duena; beheago, lesbiana eta homosexualen bikote monogamoak; beheago lesbiana eta homosexual promiskuoak; piramidearen oinean, sexualitate baztertuenak leudeke, transexualek, fetitxistek, sadomasokistek edota sexu langileek praktikaturakoa, esate baterako. Hierarkia honetan daukazu posizioaren arabera, beraz, zapalkuntza edo pribilegio ezberdinak biziko dituzu.

Monique Wittig "*El pensamiento heterosexual*" (1980) saiakeran, diskurtso hegemoniko heteronormatiboaren alderdi eta ondorio desberdinez aritu zen. Haren ustez, **diskurtso eta lengoaiaren esanahia ez da hutsala**, guttiz politikoa da eta errealtate zehatz bat gauzatzeko balio du. Modu honetan, **pentsamendu heterosexualak, munduaren ikuskera zehatz bat finkatuko luke**, kulturaren parte dena eta kanpo dagoena ezarriz. Diskurtso heteronormatiboa, elkarren artean bateragarriak diren emakume eta gizonez osatutako munduaz mintzo da. Guttiz duala den ikuskera finkatzen du, dikotomietan oinarritzen dena. Honetaz gain, harreman heterosexualak naturalizatu eta normalizatzen ditu, hauek antolaketa sozialaren funtsezko tresna moduan baliatuz. Honekin batera, eredu heterosexualak generoaren frontierak kontrolatzeko funtzioa duela azpimarratuko du, "*generoaren polizia*" moduko bat osatuz. Bestalde, Wittigek gizarte heteroak "*bestearen*" eraikuntzan oinarrituta daudela salatu zuen. Diferenteak sailkatzen dira, beroiek zapaltzeko gero. Zentzu honetan, autoreak genero sistematik at gelditzen diren "*besteen*" aliantzarako bidea ireki zuen: emakumeak, lesbianak, beltzak...

¹⁶- Ikusi artikulua material kaxan.

Esanak esan, Wittigentzat **subjektu feminista iraultzailea ez litzake emakumea izango, lesbiana baizik, genero sistemari benetako pitzadurak sortzen dion subjektua delakoan**. "Emakumea" gizonen arabera definitzen diren izakitzat ulertzen zuen, hots, zapaltzaileek zapalduen egotzitako sexu marka. Lesbianek kode hauetatik ateratzea lortuko lukete. Horregatik, "lesbianak ez dira emakumeak", esaldi famatua idatzi zuen autora honek, instituzio eta pentsamendu heteropatriarkalen mugetatik kanpo gelditzen direlakoan. Gainera, emakume bat beste bati desiraz begiratze hutsak hari balio eta autoritate bat egozte dakartzala defendatuko du, eta modu horretan emakumeen arteko autoritate sareak osatuko litzuzke lesbianismoak.

Feminismo lesbianoaz gain, aipatzekoa da **feminismo poskolonialetik** egindako kritikak "emakume" kategoriari. Poskolonialismoa 50 eta 60 hamarkadetan garatzen da, bai Afrika zein Asian *apartheid*-aren kontrako borrokan, bai EEBBetan eskubide zibilen aldeko borrokan, baita arraza ezberdinetako emakumeek burututako kritika feministan ere. Korrante ideologiko hauek, batik bat, tokian tokiko herrien independentzia ekonomiko zein kulturalaz gain, pertsona kolonizatuen borroka politikoa defendatzen zuten, euren identitateen ukapenarekin amaitzeko asmoz. Horrela, inperialismoaren kontrako borrokan herrialde kolonizatuen arteko elkartasuna defendatzen zuten. Mugimendu feminista sortu zenetik, emakume indigenek zein jatorri afroa dutenek ekarpen ezinbestekoak egin dizkiote feminismoaren praktika zein teoria politikoari. Zentzu honetan, feminismo antkolonialaren lehen ekarpenak **Marta Stewart** edota lehen aipatutako **Sojourner Truth**-en topatu ditzakegu. Modu berean, **Rosa Parks**-en ekintza azpimarratzekoa da, autobusean zihoala gizon zuri bati bere eserlekua eskaintzeari uko egin ziona. **Angela Davis** dugu eskubide zibilen aldeko borrokan erreferentea, zeinek "Black Panthers" taldean izan zuen praktika militante aipagarriaz gain, mugimendu feministari zein teoria feministari ezinbesteko ekarpena egin zion bertan klase ikuspegia, antiarrazismoa eta antisexismoa txertatuz. Emakume hauek gaur egun "feminismo beltza" deritzogunaren aitzindariak dira. Mugimendu honen adierazgarria *Combahee River* kolektiboa izan zen, zeinetan emakume beltzaren, lesbianak eta migranteak batu ziren, horien artean, **Barbara Smith** dugu, zeinek interseksionalismoari* buruz teorizatu zuen, hau da, zapalkuntza ezberdinen arteko gurutzaketa konplexua (arrazak, generoa, sexualitatea, klasea,..). Baita **Cheryl Clarke** ere, heterosexualitatea instituzio gisa teorizatzen aitzindaria.

Garai berdinean, gaur egun "feminismo txikanoa" deritzogun mugimendua sortuko da. Honek politika identitario hibrido* eta mestizoa proposatzen zuen eta literaturarekin harreman estua izan zuen. Aipatzekoak dira **Gloria Anzaldúa**, **Chela Sandoval**, **Cherríe Moraga** eta **Norma Alarcón**. Anzaldúak feminismo anglosaxoiaren etnozentrismo, arrazismo eta heterosexismoa kritikatu ditu, baita bere jatorrizko kultura indigenaren sexismoa ere. Honekin apurtzeko, borrokarako beste kategoria politiko batzuk proposatuko ditu, tokian tokiko berezitasunak barnebilduko dituena, esaterako, "new mestiza" kategoria. Zentzu honetan, tokian tokiko feminismoak garatzea zentzu handia hartuko du, izan ere, "mestiza"-ren ulerkera ez da berdina izango EEBBko latinoamerikarren

kasuan edota **karibetar jatorria** duten emakumeentzat. Azken hauen kasuan, "mestizajea" kolonoek jatorrizko arraza "zuritzeko" eta "hobetzeko" erabilitako estrategia izango da eta horretarako, emakume beltzaren eta indigenen explotazio eta bortxaketak baliatuko dituzte, arrazak nahastu nahian. Baina, Karibeko emakume horiek biktimizatzeko joeraren aurrean, jatorri honetako mugimendu feministak ahalegin handiak egingo ditu emakume horien erresistentziak agerian jartzeko, egunerokotasunean euren ugazaba kolonoen kontra burutzen zituzten borroka mahaigaineratuz (abortuak praktikatzea, etxeko produktuak saboteatzea, emakumeen fugak antolatzea,..). Zentzu honetan, **Sonia Giacomin**i, **Léila Gonzalez**, **Jurema Werneck** edota **Sueli Carneiro**-ren ekarpenak garrantzitsuak dira.

Feminismo indigenatik ekarpen garrantzitsuak egin dira ere. Mugimendu hau, mugimendu indigena mixtoen barruan sortu zen 1992an, Amerikaren kolonizazioaren 500 urte bete zirenean, honen aurka antolatutako erresistentzia indigena, beltza eta herrikoiaren kanpainaren testuinguruan, hain zuzen ere. Feminismo indigenak, jatorrizko kultura eta komunitateen ohitura eta praktika patriarkarrak kritikatu ditu, aldi berean, kultura indigenen historia kolonizatuaren aitortza aldarrikatzen du, herrien zein emakumeen autodeterminazioa defendatuz. Honen adibide dugu **Martha Sánchez Néstor**, Mexikoko "amuga" indigena.

Azken urteetan **feminismo islamikoak** zeresanak sortu ditu mendebaldeko feministotik ohikoa den islamofobia behin eta berriz seinatuz. Emakume musulmanen gaineko begiradak etnozentrismoz* josiak daude: pasiboak, biktimak, sumisak,... bezala irudikatuak dira. Hori dela eta, feminismo islamikotik honi buelta eman eta balio erlijiosoetatik emakumeen burujabetza defendatu da. Mugimendu hau batik bat indar kolonizatzaileen aurreko mugimendu independentista ezberdinen baitan sortu zen, zentzu honetan, aipagarria da 1916an sortutako **Egiptoko Batasun Feminista**, **Malek Nassef** eta **Huda Shaarawi**-ren gidaritzapean. Feminismo islamikoan antolatutako emakumeek batik bat euren kulturak aldarrikatzen dituzte emakumeen ikuspegi batetik. Historikoki, indar kolonialek tokiko kulturak asimilatu nahi izan dituzte kultura mendebaldarra inposatuz eta xede honetan emakumeak jopuntu nagusiak izan ohi dira. Hortaz, berdintasunaren izenean emakumeen alfabetizazioa hobetu beharrean edota hauen baldintza ekonomikoak hobetu beharrean, mendebaldeko kolonoak emakumeei beloa erabiltzea debekatzera mugatu dira. Hori dela eta, ez da harrizkoa tokiko emakumeek beloaren erabilera aldarrikatzea inposizio mendebaldar horren aurrean.

Ikuspegi hauek guztiek, emakumeen esperientziak tokian toki kokatzeko beta ematen dute, mendebaldeko feminismoaren aurreiritziak eta inposaketak agerian jarri. Modu honetan, generoa kategoria unibertsala ez dela ulertu dezakegu, ezegonkorra eta testuinguruari lotuta baitago. Teoria feministaren garapenean, "emakume" kategoriaren kritikarekin batera, botere harremanen inguruko irakurketak konplexuagoak burutu dira. Hain zuzen ere, "emakume" kategoria zapaldu honen baitan beste zapalkuntza batzuk birproduzitzen direla agerian

jarri da, zapaldu-zapaltzaile eskemari konplexutasun gehiago txertatuz. Hortaz, boterea ez litzateke elite hegemonikoek duten tresna bat soilik, mugimenduan dagoen elementua baizik.

**Testua jorratzeko proposatzen diren galderak:*

- *Feminismo mota ezberdinak identifikatu ditzakegu? Zientzuk?*
- *Ze ezberdintasun ikus dezakegu aurreko garaiko feminismoaren borroka eta garai honetako borrokaren artean? (aldarrikapenak, hausnarketak, borroka-moldeak,..)*
- *Zeintzuk dira "emakume" kategoria erabiltzearen indarguneak eta ahulguneak?*
- *Zergatik garrantzitsuak jo dezakegu feminismo lesbiano zein poskolonialetik egindako ekarpenak? Zeintzuk izan daitezke arriskuak?*

Boterea etengabeko mugimenduan

Gure gizartean, boterea oso era dikotomikoan eta bertikalean ulertzeko joera dugu, zentzu honetan, norbaitek boterea izan dezakeela edo ezin dezakeela ulertu izan da, hau da, boterea dutenak (zapaltzaileak) eta botererik ez dutenak (zapalduak). Autore ezberdinek, baina, boterea ulertzeko modu estatiko, dialektiko eta aldebakarrekoa gainditzea proposatu dute. **Foucaultek**, esate baterako, besteengan eragiteko harreman multzo gisa azaldu zuen boterea, modu horizontalean zirkulatzen duen indar gisa. **Horren arabera, denok genituzke botere posizioak, txikiagoak edo handiagoak, botere maila horiek aldakorak izango direlarik. Egoeraren arabera, bada, denok izan gaitzke zapaldu edo zapaltzaile.**

Boterearen ikuspegi honetatik abiatuz, Foucaulten esanetan, **XVIII.mendetik sexualitatea bera botere mekanismo nagusia bihurtu zen: sexualitate molde zuzena eta ankerra finkatuz, burgesiak agintzen zuen egitura soziala bermatzeko, hau da, familia patriarkal nuklearra** (generoen araberako rol bereizketa ezartzen zuena), **klase gizartea** (burgesia eta langileria) eta **bereizketa arrazistak** (pertsonek zuri gailentzea). Sexualitate inguruko diskurtsoek, erreproduktzioa bideratuta zegoen sexualitatea onetsi zuten gainerako praktikak estigmatizatuz, eta beroiek praktikatzen zuten pertsonak jazarrit. Pertsona hauek jazaritzeko, beren identitateetara jo zuten, identitate desbideratuak bihurtu zituzten arautik at zeuden praktiketan jarduten zutenak: gaixoak, arriskutsuak, delinkuenteak, biziosoak... Sexualitatea zaintzeko instantziak (medikoak, psikologikoak, zientifikoak, pedagogikoak) biderkatu ziren, populazioaren bizitza kontrol mekanismoz josiz.

Agerian **modernitatearekin batera gorputzak, sexualitatea eta identitateak jazarpen eremu paregabea bilakatu ziren.** Gorputza kontrol eremu gisa. Populazioaren kontrolerako mekanismoak, beraz, gero eta barneratuago daude: autobigilantzia, autozensura, autokontrol baterako joera; gorputz propioarekiko harremana, sexualitatea eta plazerra bezalako barruko bizipenetatik abiatzen dena. Feminismoak, boterearen inguruko hausnarketa hauek eman ostean, botere diskurtsibo eta instituzionalen bitartekaritarik gabe ez dagoela gorputza ulertzerik ondorioztatu zuen. Foucaulten pentsamendua feminismoarekin



gurutzatu zenean, aipatu berri dugun gorputzen eta sexualitatearen kontrol hori genero ikuspegiak begiratzen hasi zen. Modu berean, **boterea zirkulazioan dagoen heinean, zapalduak ere euren ahalduak lortzeko erabili dezaketela** ulertu zen, generoen arteko botere harreman desorekatuak gainditu asmoz. **Hor kokatu dezakegu emakumeen antolakuntza eta ahalduerako beharra.**

Momentu honetan, binarismoak* desmuntatzeko ahots ezberdinak azaldu ziren. Esate baterako, **Teresa de Lauretis**ek generoa fikzio bat bezala interpretatu zuen edota **Judith Butler**rek, bere performatibitatearen teoria azaldu zuena, “teoria queer” delakoari bultzada emanen.

Queer korrante politiko-teorikoa AEBetako mugimendu sozialetan du bere jatorria 80ko hamarkadaren amaieran. Hitz hau marikak, lesbianak, transexualak, intersexualak eta, orokorrean, heteroarauatik at gelditzen diren pertsonak iraintzeko eta patologizatzeko* erabili ohi zen. LGTB mugimenduetako zenbait taldek irain honetaz jabetu eta beste esanahi bat eman zioten arte.¹⁷ Orduan, **terminoa heteroarauari aurre egiteko eremu politikotzat ireki zen.** Arauetatik at gelditzen direnen aldarriak, beraz, osatzen dute *queer* mugimendua eta honek “arauarekin bat” egiten duena baztertu eta bestelako bizimoduak planteatzen ditu. Bertatik, heterogizarteak finkatutako etiketatik kanpo bizi zitekeela aldarrikatzen zen, honek erabiltzen dituen homosexual/heterosexual bezalako identitateei uko eginez. Baina ez dugu *queer* kontzeptua identitate berri bat bezala ulertu behar, identitateen eraikuntza prozesua bera zalantzan jartzen duen etengabeko eztabaida gisa baizik. Mugimendu honen borrokaldirik esanguratsuen 1969ko ekainaren 28an eman zen, EEBBtako Stonewall Inn-en, gaur eguneko ekainak 28aren aurrekaria.

Beraz, generoaren egituren adar guztiei mozorroa kentzeko aferan eta horien eraikuntzaren mekanismoak ulertzeko, aldi honetako feminismoak XX.mendeko azken hamarkada eta XXI.mendeko lehenengo hamarkadako, alegia, bere planteamendu teorikoak egin ditu. **Lauretis**ek dio **generoa teknologien bitartez eraikitzen dela**, hau da, teknologia estatuaren aparatu ideologikoak sostengatzen duten enklabeen multzo zabal bat litzateke: komunikabideak, familia, legeak, eskola, mugimendu politikoak, unibertsitateak, artea eta baita abangoardia intelektualetan ere. Idazle honek, komunikabide eta zinearen papera azpimarratzen du, harentzat generoa errepresentazio bat, fikzio bat, besterik ez delako, eta teknologia komunikatiboak berebiziko eragina baitu genero irudiak eta “egiak” helarazteko lanean.

Bestalde, sexua eta generoa ulertzeko moduari beste bira bat eman dio feminismoak aldi honetan. Beauvoirren feminismoak sexu eta generoa bereizi zuen, azken honen izaera eraikia azpimarratzeko, baino sexuaren esparrua irekia utzi zuen diskurtso zientifikoak hura bereganatu eta naturalizatzeko. Hargatik, “*sexua naturala da*” premisa ez da behar beste zalantzan jarri, emakumezko eta gizonezko bi sexu biologikoak existitzen direla egia absolututzat hartu delarik. **Judith Butler**ren arabera, ordea, generoaren eraikuntza soziala ez da sexu natural **baten gainean egiten, sexua bera generoaren egituren arabera eraikitzen**

17- Ikusi “Hacia la insurrección más queer” manifestua material kaxan.

da baizik. Haren ustez gorputz bat, beti, genero sistemaren betaurrekoetatik begiratuko dugu eta horren arabera sailkatuko dugu haren sexua. **Gorputzak kulturalki sailkatzen, moldatzen eta kontrolatzen dira jaiotzatik, ezinezkoa izango litzakeelarik naturala eta moldatutakoa dena bereiztea.** Horrela, genero sistemak eraikuntza kulturalak jalkitzea lortuko luke, berezko errealitateak iruditu arte. Honek errealitatea ulertzeko bide berriak irekiko ditu, *sexua continuum* gisa irudikatuz, non muturreko sexu bi direla baztertu eta intersexualitatearen errealitatea azaltzen zaigun. Arra eta emea kategorietara mugatu beharrean, *continuum* honetatik eratorri daitezkeen sexu eraikuntza anitzak ulertzen lagunduko du.

Baina “sexu” kategoriaren eraikuntzari erreparatzea ez da soilik maila teorikoan geratu den hausnarketa, gizarte mugimenduetatik sortutako beharrari erantzuten dio ere, zehazki, mugimendu transexualaren aldarrikapenari. Honek, zisexismoaren inguruan teorizatu du, hau da, jatorrizko sexu biologikoarekin bat egiten duten pertsonak praktikatzan duten zapalkuntza eta mespretxua pertsona transexualekiko, pertsona transexualak emakume edo gizon kategoriara heltzea ukatuz. Zentzu honetan, mugimendu feministan eztabaida eta hausnarketa sutsuak burutu dira, batzuetan emakume transexualak vs emakume “naturalak” aferan kokatuz, emakume transexualak mugimendutik baztertuz. Azken hauek guztiz patologizatuak dira euren ezaugarri biologikoekin bat ez datorren “sexua” bere sentitzen dutelako.¹⁸ Horregatik, behar dituzten tratamenduak jasotzeko “disforia de genero” gaixotasun psikikoa diagnostikatzen diete, euren gorputzaren gaineko erabaki bat izan beharrean gaixotasun mental gisa jotzen delarik. Hori dela eta, **mugimendu trans**-etik borrokaldi esaguratsuak aurrera eramanez, sexuaren izaera “naturala” zalantzan jarriz eta euren eskubideak aldarrikatuz.

Beste alde batetik, Judith Butlerrek, generoaren eraikuntzan **lengoiak** duen papera azaleratu du. Honen arabera, lengoiaren enuntziatuek errealitatea deskribatu beharrean **errealitatea sortzeko gaitasuna** dute, hau da, gaitasun performatiboa dute. Butlerrek dio generoa barneratzeko, keinuak, janzkerak, hizkerak, sentitzeko erak, mugitzeko era zehatz batzuk,... etengabe imitatu eta erreproduzituak ditugula. Emakume edo gizon izatea, hortaz, inoiz amaitzen ez den prozesua da, errepikapenak konstanteak behar dutelako izan. Generoa barneratzeko prozesu horretan, erresistentziarako tarteak antzematen ditu autoreak, errepikapenetan aldaketak sortu litezkeelako nahi izanez gero. Orobat, **Butlerrek identitate eta gorputz motak biderkatzeko hautua azaltzen du, subjektu anitzak sortzeko. Identitate batzuk baztertu beharrean, identitateak nahastu eta izaera hibridoan* sakontzeko.**

Transfeminismoa

XXI mendeko azken hamarkadan, esan bezala, diskurtso, praktika politiko eta produkzio kultural ezberdinak sortu ziren feminismoaren baitan, mugimendu lesbianoaren, borroka transen eta aktibismo queerarekin loturikoak. Bertan, sexu-genero sistema eta sexualitatea ulertzeko modu tradizionala ezbaian jarri

¹⁸- Ikusi “Maskarak” dokumentala material kaxan.

eta emakumeen zapalkuntzatik haratagoko zapalkuntza sistematzat definitu zen sexu-genero sistema.

Feminismoari klase, arraza, jatorri, gorputzen funtzionalitate anitza edota sexualitate aukeraren araberako zapalkuntzei so ez egitea leporatu zaio. Honekin batera, heteroarauaren (erregimen politiko-ekonomiko gisa harturik) kritika automatikoa burutu da eta identitate finkoak zalantzan jarri dira.

Transfeminismoa, batik bat, queer korrontea estatu espainolean izan duen itzulpena da. Espainiar Estatuan, 70. hamarkadaren erdialdera feminismoa berrindartu zen, borroka antifrankisten testuinguruan. Hasieratik, aktibismo lesbianoak garrantzia handia izan zuen mugimendu feministan. 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera mugimendu trabesti antolatatu baten existentzia ere ezagutzen dugu, gay mugimendutik oso gertu zegoena, transen eta sexu langileen eskubideen aldarrikapen zehatzak lantzen zuenak. 90ko hamarkadan, aktibismo hauek guztiak feminismoarekin elkarrizketa zuzenean sartu ziren generoaren binarismoaren* inguruko auzia mahai gainean jarriz. Aurrekari hauek, azken hamarkadan, queer aktibismo eta pentsamenduaren eraginarekin bat eginez, komunitate eta diskurtso minoritarioen artikulazioa ahalbidetu dute: komunitate feministak, okupak, lesbianak, marikak, antikapitalistak, transgeneroak...

goeko hamarkadatik aurrera borroka politikoek auzi berri batzuk barnebiltzen dute: errealitate errepresentazio propioak eraikitzearena produkzio kultural eta artistikoaren bitartez. **Borrokak ez dira jada aitortza edo baldintza sozioekonomikoen klabeetan emango, ekonomia subjektibo eta sinbolikoa berebiziko garrantzia hartuko duelarik.** Hori borrokatzeko, eta gurutzatzen gaituzten irudi hegemonikoak desorekatzeko errepresentazio kode berriak asmatzeko beharra sortzen da, begirada berriak sortzeko beharra. Egitasmo horretan, kanpaina grafikoak, bideoak, fotografia, fikziozko pasarteak, performanceak, web diseinuak, blogak e.a. suspertzen dira. Irudi berrien produkzio horren bitartez, orden sinbolikoa inbertitzeko ariketa egingo da, bide batez, materialitate ezberdinak lekua hartu dezaten, gorputz, identitate eta desira anitzak.

Azken urteetan joera trans-bollo-marika-feministako taldeek *“transfeminismo”* kontzeptua aldarrikatzen ari dira bere diskurtso eta praktika politikoak izendatzeko. Kontzeptu honek *queer*-aren oinarrietatik edaten du, baina estatu mailako lengoai eta testuingururako egokiagoa da. Azken batean, *queer* hitzak gazteleraz ez dauka ingeleraz daukan esanahiaren potentziala eta kontsumoaren zirkuituek kontzeptua erraz bereganatzeko arriskua dago, modako aforismo modernoekin nahastuz. Beraz, transfeminismo kontzeptua lokalagoa da eta potentzial handia dauka. Gainera, **hitz honek subjektu feministaren aintzasuna aintzat hartzeko dagoen premia politikoa erakusten du.** Transfeminismoaren aterkipean honako gaiak agertu dira: subjektibitate eta korporalitatearen eraikuntza, pornografia, prostituzioa,¹⁹ transexualitatearen patologizazioa, estatu-feminismoari eta LGTB mugimenduaren instituzionalizatzeko prozesuei kritika, okupazioa, VIHren aurkako borrokak, bizitzaren prekarizazioa, pobreziaren

19- Sexu lanari buruzko eztabaidan sakontzeko ikusi “King Kong teoria” material kaxan.

feminizazioa, etorkinen erresistentziak e.a.

2009ko Granadako Jardunaldi Feminista Estataletan inflexio puntu bat eman zen. Kolektibo eta feminista ezberdinek batu eta *Manifiesto para la insurrección transfeminista* testua idatzi eta zabaldu zuten. Talde hauek “*erresistentzia trans hemen dago*” oihupean azaldu ziren jardunaldietan eta feminismo forma batzuen arazoa salatu zuten “emakume” subjektua baztertzailerak zelakoan izatez, bizi, praktika eta subkultura asko kanpoan uzten zituelako. Hasieran transfeminismoa konfrontazio logikan agertu bazen ere, azken urteetan hausnarketa prozesu baten ondoren, “*mugimendu arduratsuagoa, umilagoa eta reflexiboagoa*” bilakatu da, batzuen ustetan. Horrekin esan nahi dena zera da: barne hausnarketa baten ostean, sare transfeminista osatzen duten aktibistek sumatu dutela feminismo tradizionalarekiko antagonismoan gizartearen dikotomiak erreproduzitzen ari zirela nolabait, hau da, feminismoa bera modu estanko batean hartzen ari zirela, erradikalitasuna kentzen, transfeminismoa indar gehiagoz baieztatzeko. Hortaz, transfeminismo mugimenduaren baitan, feminismoaren gaineko beste nolako ikuspegi batzuk baztertu eta honen era anitzak ukatzeko joera egon da. Hori dela eta, autore zein aktibista ezberdinek bere sustrai feminista aldarrikatzen dute eta feminismo anitzak dauden bezala, transfeminismoa beste joera erradikal baten moduan azaltzen dute, ez errejeta edo aukera bakar eta hoberenaren moduan.

Transfeminismo mugimendua

Trans mugimenduaren ibilbidean bi epe markatzen dira Sandra Fernández eta Aitzole Aranetaren ustetan. Lehenengoan, (2006-2010) despatologizazioaren aldeko trans mugimenduaren sorrera eta sendotzea gertatzen da; bigarrenean (2010-2013), mugimendu transfeminista finkatzen da. Lehenengo epean, despatologizazioaren aldeko mugimendua Guerrilla Travolakaren (Bartzelona, 2006) inguruan sortutako identitate eta trans borrokaren artikulazioaren eraginez hauspotzen da. Gerrilla honen aktibismoaren ardatza mugimendu autonomo ez identitarioak dira, heteropatriarkatua borrokatzeko antolatzen direnak, eta marginak gurutzatzen dituzten zapalkuntza zehatzak salatzen dituzte: LGTB mugimenduaren merkantilizazioa eta despolitizazioa, atzeritartasunaren erregulazioak, sexu langileen eskubideak... Transen aldarrikapenei dagokionez, Gerrillak pertsona hauen bizi eta gorputzak narratiba medikoetatik banatzeko diskurtso eta ekintza politikoa garatu zuten, gorputz eta identitate aniztasuna ospatzeko zerbait delako eta ez klasifikazio medikoetan zantatzeko zerbait.

Horrela, estatu mailan transen despatologizazioa borrokatzeko sare bat artikulatzeko baldintzak sortzen dira 2006tik aurrera, “Red por la Despatologización Trans” deituko dena 2008an eta 2012an “Stop Trans Patologización” (STP 2012) kanpaina abian jarriko duena. Aitortzaren politikaren aldaketa zegoen jokoan, “trastorno” kategoria klinikoaren izendapenetik, aitortza politiko batera igaro nahi zen, auto-izendapena aldarrikatzen zen prozedura medikoak zalantzan jarri. Honekin batera, transfobiaren aurpegi guztiak salatu ziren, instituzioen indarkeriaren adierazpenak azpimarratuz.

Bigarren epean, 2009ko Granadako Jardunaldi Feminista Estataletek inflexio-puntu bat markatu zuten trans mugimenduaren baitan. Bertan, feminismoari eskatu zitzaion transen aldarriak bereganatzeko alde batetik, eta bestetik, transfeminismoa berretsi zen, feminismoaren joera binarioago baten aurrean. Binarismotik haratago kokatzeko apustuak, tentsioak areagotu zituen despatologizazioaren aldeko sarearen baitan, eta Granadako jardunaldietan mugimendu transfeministaren agerpenetik urte batera sarearen haustura eman zen. 2010etik aurrera, mugimendu transfeminista gorpuzten joan da eta mugimendu zein agente sozial lokalekin interakzioan sartu da. Trans mugimenduaren sektore handi batek bertan ikusten du bere borroka esparrua despatologizazioaren aldarritik haratago. Transfeminismoak zapalkuntzen inguruan egiten duen irakurketa transbertsalagoa da, generoak eragiten dituen indarkeri ezberdinen gurutzeak, elkarrekintzak eta intersekzioak aintzat harturik. Bere lan ildoak ereiteko urtero Octubre Trans deialdia ezarri da, bertan despatologizazioaren mugimendua eta transfeminismoa batzen dira. Honetaz gain, espazio politiko ugari ireki dira trans pertsonen elkar ezagutza, elkarlana eta babeserako. Segurtasun espazioak dira hauek, ekintza politikoak diseinatzeko, afektuak elkartrukatzeko eta pairatzen duten zapalkuntza sozial zehatzaren bizipenak konpartitzeko, patologizazioaren begiradatik at hauei erantzun emateko.

**Testua jorratzeko proposatzen diren galderak:*

- Boterea etengabeko mugimendua dagoela ulertzeak nola eraldatzen du zapaldu-zapaitzaile eskema?
- Zeintzuk dira queer mugimenduaren ekarpen nagusiak?
- "Sexua" ere eraikia dela esaten dugunean, zeri ari gara?



2. Izendapenak izanez betetzen! 🕒 4 ordu, 25 min

Ariketak:

1. Ariketa (Ordu 1, 20 min)

Helburua: Euskal Herriko historian zehar zein Ezker Abertzalearen historian, emakumeek izan duten paperari erreparatuko diogu, baita euskal feminismoaren garapenari ere. Horretarako, Ezker Abertzaleak izan dituen prozesu feminista ezberdinez jabetuko gara, hauen indargune zein ahulguneak identifikatuz eta gure buruak gaur egun dugun erronkan kokatuz.

Dinamikaren azalpena: Il blokeari dagozkion edukiak irakurriko ditugu. Aurreko blokearekin egin genuen bezala, atal honen edukiei heldzea dagokigu eta horretarako gure taldearentzat eroso den formula bilatuko dugu. Testuan zehar edukiak lantzeko galderak topatuko ditugu, hauek erantzun edo guri egokiagoak irudituko zaizkigun beste batzuk planteatuko ditugu, edukiak barneratu eta ulertu ditzagun.

2. Ariketa (45 min)

Helburua: Gure herri/auzoan mugimendu feministaren azterketatxo bat egitea, herrian bertan feminismoa lantzeko dugun lurzorua ezagutzeko.

Dinamikaren azalpena: Bi lantaldetan jarriko gara (15'), eta galderei erantzungo diegu. Ondoren, plenarioan amankomunean jarriko dugu (30'). Behin panoramaren inguruan ados jarrita, ondorioak arbelan idatziko ditugu. *Adib: talde feminista dago, ez dauka ezker abertzalearekin harremanik, lanketa iraunkor bat dauka edo EA-k ez dugu feminismoa batera lantzen, ez da lehentasuntzat hartzen...*

Galderak:

Herri Mugimenduari dagokionez:

- Gure auzo/herrian mugimendu feminista dago? Nork osatzen du? Ze izaera dauka (sarea, eragilea...)
- Momentuan egon badago edo ez badago ere, historikoki egon da? Ze ibilbide izan du? Ze ozotopo izan zituen/ditu? Herriaren harrera zein izan da euren jardunarekiko?
- Feminismoa espezifikoki lantzen ez duen, baina feminismoaren inguruan lanketa egiten duen eragileren bat dago? Zelan lantzen du eta zeren gainean?
- Bere burua feministatzat duen baina feminismoaren gaineko lanketa egiten ez duen eragileren bat dago? Feminismoa landuz gero, urte osoan zehar edo data zehatzetan izaten da? Zergatik ez

du egiten? Feminismoa bere horretan landu ez arren, bere praktika balore feministetan oinarrituta gauzatzen du?
- Mugimendu feminista horrek, Ezker Abertzalearekin harremana du? Zergatik?

Ezker Abertzaleari dagokionez:

- Herri/auzoan feminismoaren inguruko lanketa egiten du? Zelan? Urte osoan zehar edo data zehatzetara mugatuta? Lanketa eginez gero, zeren ingurukoa?
- Emakumeak daude Ezker Abertzaleko egitura guztietan? Generoen araberako kopuru desoreka ematen da? Ematekotan, non? Zergatik uste dugu dela hori? Eragilerearen eguneroko jardunean islarren bat dauka?
- Gure eguneroko praktika balore feministetan oinarritua dela esango genuke? Zergatik?
- Eraso sexisten aurreko protokoloak martxan jartzen ditugu herri/auzoan erasoren bat ematen denean? Zergatik? Ezker Abertzalean herri/auzoan EA subjektu feminista dela esango genuke?

3. Ariketa (Ordu 1, 35 min)

Helburua: Herri/auzoan eman zen prozesu feminista ezagutzea, eta gaur egungo hutsuneak identifikatzea.

Dinamikaren azalpena: Ariketa honek atal desberdinak ditu, eta herri/auzo bakoitzaren errealitatearen arabera, moldagarria da. Gure herri/auzoan prozesu feminista eman bazen horren gorabeherak ezagutzea da helburuetako bat, beraz, horretarako bide desberdinak balia ditzakegu.

a) Gertatutakoaz dakiguna aztertzen (45')

Modu desberdinak egon daitezke gure herrian prozesu feminista eman bazen, horren inguruan aritzeko:

- Aukeretako bat prozesuan parte hartu zuten Ezker Abertzaleko kide bat edo batzuk saiora gonbidatzea izan daiteke. Kasu honetan, berak prozesua zelan eman zen azal dezake: zelan antolatu ziren, nola eman ziren hausnarketak, nola dinamizatu, eztabaidetan agertutako gako edo erresistentziak zeintzuk izan ziren, ondorioak eta horien araberako neurriren bat hartu zen... Galderak eta ekarpenak egingo dizkiogu kontaktari (30'). Ondoren, prozesuko ondorioak eta hartutako neurriak kontuan hartuta, 10 urte beranduago bere emaitzak iritsi zaizkigun, hutsuneek bere horretan dirauten, aurrerapausoak egon diren... aztertuko dugu. Azkenik, lantaldeetako ondorioak plenarioan konpartitu eta adostasunetara iristen saiatuko gara. (15')

- Beste aukera bat guk geuk han hemendik galdetu eta denon artean historia osatzea izan daiteke. Kasu honetan, plenarioan elkarbanatu dezakegu informazioa, eta ondoren lau lantaldeetan banatu. Lantaldeetan, prozesuko ondorioak eta hartutako neurriak kontuan hartuta, 10 urte beranduago bere emaitzak iritsi zaizkigun, hutsuneek bere horretan dirauten, aurrerapausoak egon diren... aztertuko dugu (30'). Azkenik, lantaldeetako ondorioak plenarioan konpartitu eta adostasunak lortzen saiatuko gara (15').

Prozesu feminista eman ez bazen, bigarren zatira joko dugu zuzenean.

b) Gure ingurua aztertzen (50')

Dagoeneko prozesu feminista izan zena aztertu dugu, eztabaidagai nagusiak eta ondorioak ezagutzen ditugu... Gure prozesu propioko "diagnostikotxo" egitea dagokigu orain!! Jendarte kapitalista eta patriarkalean hezi gaituzten heinean, guk ere erreproduzitzen ditugu jarrera zein joera sexistak. Guztiz inkontzientea da, ondorioz, gauzarik txikienaren aurrean ere ernai egon eta iraultzea dagokigu. Horretarako, gure eguneroko jarduna lupaz aztertuko dugu.

Berriro ere lantaldeetan jarriko gara. Lantalde batzuek Ernairen jarduna hartuko dute hizpide, eta beste biek Ezker Abertzalea bere orokortasunean (hirukoak, herri batzarrak, bestelako bilerak). Gure jardun militantean ikuspegi feminista kontuan hartzen dugun ala ez aztertzeko, galdera lagungarri batzuk izango ditugu. Dena dela, ez mugatu galdereri, hausnartu askatasunez, utzi irudimenari hegan egiten! Eta batez ere, ez izan ez beldurrik ez lotsarik patriarkala deritzogun zerbait berbalizatze! (30')

Azkenik, plenarioan lantalde bakoitzak (lehenengo Ernairen jarduna aztertu dutenek eta ondoren Ezker Abertzalearena orokortasunean aztertu dutenek) bere ondorioak esosatuko dituzte. Eztabaidatu, eta hutsuneak eta indarguneak adostuko ditugu. Horiek ere arbelan idatziko ditugu (20').

Galdera lagungarriak:

Kideei dagokionez,

- Espazio horretan, genero bakoitzaren kopurua orekatua da? Gehiengo argiren bat dago?
- Zein da kideen perfila? Generoaren arabera desberdintasunak ematen dira?

Lan kargari dagokionez,

- Lan banaketak egiterakoan, irizpideren bat erabiltzen dugu? Hala bada, zein? Lan batzuk antzekoak dira euren artean eta aldiro

errepikatu egiten dira? Pertsona berdinek hartzen dituzte? Zein generokoak dira? Eta zein lan? Loturaren bat dago lan mota horien eta burutzen dituzten generoei ezartzen zaizkien rol sozialen artean? Lan karga orekatua da?

- Lan mota desberdinei balio berdina ematen zaie? Edo batzuek beste batzuek baino prestigio gehiago dakarte?

- Zein ardura edo funtzio politiko daude espazio horretan (arduraduna edo ordezkaria, diruzaina, formakuntza arduraduna, ildo sozioekonomikoa...)? Eta zein genero eta adinakoak dira berauek burutzen dituztenak? Horren atzean egiturazko arrazoiren bat dagoela uste dugu?

Parte hartzeari dagokionez,

- Nortzuek hitz egiten dute gehien? Euren izaerak, formakuntza mailak, esperientziak... edo zerk bultzatzen du horrela izatera? Horren atzean egiturazko arrazoiren bat ikusten dugu?

- Kide guztien hitzari arreta berdina eskaintzen zaio? Baten batenari garrantzia gehiago ematen bazaio, ze ezaugarri biltzen ditu(zte) pertsona horrek/horiek? Ezaugarri horiek gehiago baloratzeak egiturazko arrazoiren bat dauka atzetik?

- Puntualtasuna, konstantzia, parte hartze maila, prestutasuna, disponibilitatea... gorabeheratsuak dira? Aldaketarik somatzen da generoen arabera? Egiturazko arrazoiren bat ikusten dugu horren atzean?

4. Ariketa (45 min)

Helburua: Gure eguneroko jardun militantea ikuspuntu feminista batetik zelan gauzatzen dugun aztertzea.

Dinamikaren azalpena: Lehenik eta behin, lantaldeetan banatuko gara. Lantalde bakoitzak kartulina bat izango du aurrean, eta dinamitzaileak bakoitzari papertxo bat emango dio. Papertxoan espazio bat agertuko da: atxiloketa/erailketa baten erantzunaren prestaketa, herri batzarra, Herriko Taberna arratsalde normal batean, dirua ateratzeko jai tematikoa eta ongietorri edo presoen aldeko egun bateko bazkaria.

Lantalde bakoitzak egokitu zaion espazio hori marraztuko du, eta papertxoan galdera orientatzaile batzuk izango ditu, arreta zertan jarri behar duen azalduz (15'). Behin denek bukatuta, plenarioan, lantalde bakoitzak marraztutakoa azalduko du, eta gure herri/auzoko Ezker Abertzalearen espazio ez hain formaletan funtzionamendu kontziente zein inkontzientea balore feministen gainean egiten dugun hausnartuko dugu (30').

Egoerak:

Ongietorri / Presoen aldeko bazkaria

Egoera irudikatzean, seinalatu pertsonak ere, euren genero inposatuari zein adina tarteari erreferentzia eginez.

- Nor dago sukaldean?
- Nor dago txanda egiten?
- Nor dago edo ibili da opariak prestatzen? Ez bada pertsona batengan erortzen, zein generokoak dira pertsona horiek?
- Nork irakurriko du?
- Nork prestatzen ditu mahaiak? Nork zerbitzatzen du?
- Zein da agertzen den jendearen adina tartea? Genero batekoak edo bestekoak dira gehiago edo parekoa da?
- Sobremesan jendeak zer egiten du? Nor joaten da eta nor geratzen da? Zergatik? Non kokatzen da koadrilatxo bakoitza espazioan?
- Harrikoa nork egiten du? Zeren arabera banatu da txanda?
- Hurrengo egunean nork garbitzen du?

Dirua ateratzeko jai tematikoa

Egoera irudikatzean, seinalatu pertsonak ere, euren genero inposatuari zein adina tarteari erreferentzia eginez.

- Nork prestatu du egitaraua?
- Lan banaketa zelan egin da? Irizpideak egon dira? Prestutasunaren arabera?
- Jaiari bertan, non kokatzen dira pertsonak? Nor txanda egiten, nor montajea, nor segurtasunean, nor mozorrotuta eta nor ez, nor janariaren inguruan...
- Demagun luntxa/bazkaria dagoela. Nork prestatu du? Nork jaso eta egiten du harrikoa?
- Nork garbitzen du hurrengo egunean?
- ...

Herri Batzarra

- Nork prestatzen du gai ordena?
- Nork hitz egiten du? Berak prestatu du landu beharrekoa?
- Nola dinamizatzen da?
- Parte hartzea zelan banatzen da?
- Nolakoa da asistentzia? Generoka eta adina tarteka orekatua da? 30 urtetik gorako emakumeen presentzia zelakoa da? 50 urtetik gorako asistentzia zelakoa da?
- Pertsona guztien hitzari balio bera ematen zaio? Parte hartzean genero rolak nabaritzen dira? Errespetuz hitz egiten zaio elkarri?
- ...

Atxiloketa/Eraiketa baten erantzunaren prestaketa

- Deialdia norbaitek egin du edo automatikoki agertu gara protokoloa martxan jarrita?
- Nork dinamizatu du lana? Denok aritu gara berdin?
- Lan banaketa zelan egin dugu? Irizpideekin? Prestutasunaren arabera?
- Behin lan banaketa eginda geratu zaigun banaketaren atzean egiturazko arazoiren bat antzeman dugu?
- Jende gehiago agertzen gara kedada hauetara beste batzuek izaten duten asistentziarekin alderatuz? Zergatik uste dugu horrela dela? Balio desberdina ematen diegu gauzei?
- ...

Arratsalde normal bat Herriko Tabernan

Espazioaren erabilerari jarriko diogu arreta. Izan ere, espazioaren kudeaketa oso lotuta dago boterearekin.

- Ohitura dago barrako txokoren batean “mundua konpontzen ibiltzeko” edo politikaz ordu luzez hitz egiten egoteko? Nor egoten da bertan? Bileraz kanpoko erabakiak hartzen dira hor? Horrek horretarako hainbeste denbora ez duten edo euren aisia beste eremu batean igaro nahi duten pertsona batzuen ekarpena gutxiestera edo pertsona horiek kontuan ez hartzera (“beti” ez baleude bezala) garamatza?
- Koadrila bakoitzak toki baten esertzeko joera dauka? Koadrila desberdinak nahasten dira?
- Eskolako patioetan ematen denaren antzeko espazio banaketaren bat dago? Demagun mutilak futbolinean jolasten, neskak eskina batean berriketan... edo antzeko zeozer?
- Jende bat dago bere aisialdiaren zati esanguratsu bat bertan igarotzen duena? Zein generokoa da? Ikasi, lan egin, zaintzaren bat burutu... egiten du?

5. Ariketa (30 min)

Helburua: Saiotik atera ditugun ondorioen araberako neurri eta konpromiso batzuk adostea.

Dinamikaren azalpena: Arbelean ondorio desberdinak ditugu: herrian feminismoak duen presentziarenak, gure bileretan eta espazio informagoek duten ikuspegi feministarenak, herri/auzoan Ezker Abertzaleak izandako ibilbidearenak. Horiek kontuan izanda, hutsune nabariarenak, eta gure esku hartzea behar dutenak, zeintzuk diren baloratuko dugu. Ondoren, horiei buelta emateko ze neurri har ditzakegun adostu eta konpromisoak hartuko ditugu. Azken batean, Urrats Feminista hau ezin da teoriara mugatu: gure egunerokotasunean eraldaketa ekarri behar du.

2.

**IZENDAPENAK
IZANEZ
BETETZEN!**

Feminismoaren ibilbidea Euskal Herrian eta Ezker Abertzalean

Feminista izendatzen du bere burua ezker abertzaleak, eta feministatzat dugu geure burua Ernai gazte antolakundeak ere. Hala ere, gure ibilbide laburrean aztertu ahal izan dugun moduan, oraindik ere bide luzea dugu izendapen hori teoria zein praktikan errealtate izan dadin. Horregatik, hain zuzen, jarri genuen martxan Kaiera honen jaiotze-arrazoia den barne-prozesua: urratsez urrats, indibidualki zein kolektiboki, pentsamolde eta praktika feminista izan dezagun, hala, gure proiektu politikoa ere feminista izan dadin. Baina aurrera begirako prozesu horretan, berebiziko garrantzia du atzera begiratzeak ere.

Ez gara Ezker Abertzalean hutsune hau identifikatu duten lehenak. Barne prozesu bat martxan jarri duten lehenengoak ere ez gara. Egun ditugun indarguneak, beste batzuek lehenago egindako lanaren fruitu dira. Beraz, zeintzuk izan ziren urrats horiek? Nork eta noiz eman zituzten? Zein oztopo topatu, zein hutsune izan zituzten eta zeintzuk izan ziren euren ondorioak? Ze uzta utzi digute guri? Eta zein lan oraindik ere egiteke?

Gure bidea ondo egiteko, gure aurrekoek egindakoari erreparatu behar diogu, eta nola ez, urrats horiek ulertu ahal izateko, Euskal Herriko testuingurua ere buruan izatea ezinbestekoa da. Ondorioz, atal honetan testuinguru hori aztertu eta Ezker Abertzaleak zein Euskal Herriko Mugimendu Feministak egindako ibilbidea landuko ditugu.

Dena dela, garrantzitsua da azpimarratzea, testuingurua lantzean ez dugula asko sakonduko: baditugu Euskal Herriko zein Ezker Abertzalearen historia lantzeko bestelako tresna zein material asko eskura dagoeneko, aztergai hori bera dutenak. Kaierako atal honen helburua Ezker Abertzalearen feminismoaren ibilbidea aztertzea da, egungo mugimendu feministaren egoera ulertu eta oraindik ere baditugun hutsuneak zein euren zergatia identifikatu, eta konponbidean jartzeko. Zer esanik ez, testuinguruan sakondu nahi duenak, bere kabuz egitera animatzen dugu, herri formatua inoiz ez da garaitua!

Emakumeak eta Euskal Abertzaletasuna

Abertzaletasunaren hastapenetan, ideologia honek kutsu esentzialista zuen: arraza, erlijio katolikoa, hizkuntza eta ohiturak ziren, lege zaharrekin batera, nazioaren funtsaren oinarritzko ardatzak. Teorialari esentzialisten aburuz, emakume abertzaleek funtsezko zeregina zuten nazioaren biziraupenari zegokionez: haiei esleitu zitzairen arrazaren garbitasuna, hizkuntza eta euskal nazioaren funtsezko ezaugarriak iraunarazteko zeregina. Alta, emakumeak mugimendu abertzalean sartzeko bidea ez zen erraza izan. Hastapenetan, Sabino Aranaren garaian, emakumeek alderdikide izatea debekatuta zuten, esaterako. Hogeiko hamarkadatik aurrera hasiko zen emakumeen parte-hartzea gorpuzten eta berezko antolakundeetan antolatzen.

Gerra Zibil zein frankismoan zehar garatutako errepresioak emakumeak izan

zituen jomuga bereziki. Baina emakumeak ez ziren bakarrak izan: euskal izaerarekin zerikusirik zeukan adierazpen oro jazartua izan zen, baita kutsu ezkertiarra zuen edozein ideiak ere. Hori zela eta, frankoren erregimena ezarri bezain pronto **euskararen erabilera debekatu eta eremu pribatura mugatu zen**, eremu pribatuaren protagonistak emakumeak zirelarik. Modu honetan, gerraren ondorengo hamarkadetako jarduera sozializatzaile euskalduna familiaren eremura, kultur taldeetara eta etxe-eskoletara mugatu zen, batik bat. Frankistak garaile irten osteko lehenbiziko urteetan sortu ziren **etxe-eskolak**. Eskolak hauek martxan jarri ziren guraso ezberdinen kemena zela eta, beharrezkoa ikusi baitzuten euren seme-alabek euskaraz ikasi eta mintzatzea. Horretaz gain, eskola frankistarekiko ezberdina izango zen eredu bat nahi zuten, **hezkuntza eredu alternatiboa** bilatzen zuten. Hortaz, gerran zehar etenda egon ostean, euskarazko eskolaratzeak aurrera jarraitzeko beta izan zuen klandestinitatean, etxe-eskolen bitartez. Proiektu hura martxan jartzeko herri mobilizazioa ezinbestekoa izan zen: baliabide material zein giza baliabideak, gurasoek euren etxeak ireki zituzten bai beraien zein herriko umeez euskara ikas zezaten.

Baina **ikastolen aitzindariak izan ziren etxe-eskolak abiarazterako orduan, errepikatu zen genero-rol banaketa**: emakumeen papera zaintzari lotuta zegoen, eta gizonena mantenuari eta sostengu ekonomikoari. Seme-alabak zaintzeaz gain, amak arduratu ziren klaseen eguneroko funtzionamenduz, umeen zein andereñoen zaintzaz, etxearen mantenuaz... Aldiz, aitak izan ziren espazio publikora irten eta elkarlanerako eta finantziatorako harremanak eratu zituztenak, hortaz, errekonozimendu sozial zein politikoa zuen jarduna burutzen zuten, haatik, **amek egindako lana ezkutaturik eta errekonozimendurik gabe geratu izan da**, horren adierazgarria da testuinguru honen protagonista izan zen ama batek deskribatutakoa:

“Egia esan [beraiek] dira borrokan aritzen direnak, baina atzean dauden soldadu koitadu horiek dira bidean geratzen direnak, inork kasu egiten ez dienak, eta kontua da beraiek izan direla borrokan ibili direnak. Zaldi gainean doana bakarrik ikusten dugu. Gizonak horrela zebiltzan: zaldi gainean bidea urratzen, atzealdean norbait utzita. Ba hori, gu. Gu arduratzen ginen haurrez, andereñoek jaten ematez eta gainontzeko guztiaz. Senarra gaueko hamaiketan etortzen zen, poz-pozik Plentzian egon zelako eta ‘begira, alkatearekin berba egin dugu eta ikasgela bat utzi digu’ (...) Gerlariak dominak jartzen etortzen zen”²¹ (Rincón, A-Anzizar, A., 2014: 64).

Beraz, emakumeek burututako lan ikustezin horiek guztiek paper erabakigarria izan zuten euskararen eta euskal kulturaren transmisioan, giroa bereziki latza zen garaia honetan. **Etxe-eskoletan parte hartu zuten emakumeek isilpeko erresistentzia-sarea eratu zuten**, apurka-apurka gizartean errotzen joan zena. Horrek, hein handi batean, ahalbidetu zuen hirurogeiko hamarkadan ikastolen mugimendua indarrez sortu eta ondorengo urteetan garrantzia hartzea. Gainera, hirurogeiko hamarkadako andereñoek urteetako bizipen eta esperientziak jaso eta hezkuntza zein magisteritza bera berriro zituzten. Dagoeneko haientzat hizkuntza ez zen esentzia estanko eta aldaezina, euskaldunek babestu beharreko elementu bat soilik: bizirik zegoen, dinamikoa zen eta komunitatearen zein berreskuratze-mugimendu baten zati zen. Ikastolen sorreraren garai horietan

20- Gai honetan sakontzeko eta testigantza gehiago irakurri ahal izateko ikusi material kaxan: “Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak”. Baita bibliografia atalean agertzen den “Ametsak egi bihurtuz. San Nikolas ikastolako andereñoak (1963-1969)” liburua ere gomendatzen da.

21- Ikusi “Ziztadak” dokumentala, ikastoletan aritutako emakumeen desobedientzia: vimeo.com/68293412 (04:38 minutua).

andereñoen artean aitzindaria dugu **Elbira Zipitria** (1906-1982). Honek hezkuntza mistoaren eta pedagogia progresistaren alde borrokatu zuen Emakume Abertzale Batzati Gipuzkoan. Honen ikasleak izandako **Karmele Esnal** eta **Jone Forkada** aipatzekoak dira ere, etxe-eskolak herri guztira zabaldu eta ikastolen sorrerari bidea ireki ziotenak.

Hizkuntzaren transmisioa amatasun rolaen ondorio zuzen moduan hartu izan da. Horregatik, andereñoen identitatea, modu batean behintzat, bat zetorren feminitate tradizionalaren balioekin. Frankismoak ezarritako feminitate eredua, hots, espainiar feminitatearena, aldiz, talka egiten zuen emakume hauen identitatearekin: andereñoek aurre egin zioten ideal murriztatzaile horri. Ikastolak sukaldeetan jaio zirela esan daiteke eta emakumeak prozesu horren protagonistak izan ziren. Aldiz, euskararen bilakaera erakundetu eta eremu politikoan garrantzia hartzen joan zen neurrian, zuzendaritza gizonen eskuetara igaro zen.

Bizipen hauek guztiak sinbologiaz beteta daude, garai bat ekartzen digute gogora, klandestinitateko jardun politikoarena, alegia, herri mugimenduaren eferbeszentziaren garaiak. Euskal jendarte abertzalearen bilgune garrantzitsu bilakatu ziren mendi-taldeak, erlijio-erakundeak, lanaren, kulturaren eta kirolaren arlokoak, herri-elkarteak edota guraso-elkarteak. Industrializazioarekin batera, euskal kultura zein hizkuntzaren aldeko mugimendua bestelako aldarrikapenekin bat egingo du ere, ideia ezkertiar eta iraultzaileak zituen langile mugimenduarekin, hain zuzen ere.

Ezker Abertzalearen sorrera eta insurrekzio fasea

Ezker Abertzalearen sorrerako lehen hazia diktadura frankistako azken hamarkada horietan jarri zen. Urte haietako industrializazio azkarraren ondorioz, demografia hazkunde izugarria eman zen: estatuko puntu desberdinetatik ehunka langile iristen ziren, Bilbo Handira eta Ezkerraldera batez ere. Horrez gain, nekazal guneetatik hirigune handietarako migrazio nabarmena eman zen, horrela ordura arte euskal identitatearen ikur izandakoak desagertarazi edo eraldaketan jarriz. Beste borroka askotan bezala, mugimendua sortzeko txinparta gazteriarengandik atera zen, ikasketa eta formakuntza politikoa sustatzeko ikasle talde nazionalista batek 1951-1952 artean EKIN sortu zuenean. Euren ustez, EAJ-ren abertzaletasunarekiko ekarpen teoriko zein praktikoa eskasa zen, eta horrez gain, antolakundeak izaera akonfesionala eta aurrekoiagoa zuen. Eztabaida ugariren ostean, EKIN EGI gazte antolakundearekin bateratu zen, baina hika-mika eta ezadostasun handiak ekarri zituen bateratzeak EAJ-ren baitan, eta bateratzea begi onez ikusten zuten EKIN eta EGI-ko militanteek, 1958an Deban egin zuten bilera batean **Euzkadi Ta Askatasuna** (ETA) sortzea erabaki zuten.

Erakunde berriak **hiru ardatz** nagusi zituen: abertzaletasuna, borrokarako determinazioa eta errealitate sozialari erantzuteko programa bat. Jarrera ekintzailearekiko apustua egin, eta hurrengo urteetan bere ekinbidea aktibismoan oinarritu zuen: ikurrinak toki publikoetan jartzea, esku-orriak

banatzea... 1961etik aurrera hasi ziren ekintza armatu pisutsuak egiten, eta berehala, frankismoak errepresioz erantzun zuen: uztailetik irailera, 200 lagun atxilotu zituzten. Gehienak torturatuak izan ziren, 29 espetxeratuak eta 7 epaituak. Kondena luzedun ETako lehen presoak izan ziren haiek, eta errepresio horren ondorioz ihes egin behar izan zutenak, lehenengo iheslariak. 1962ko maiatzean bere Lehen Asanblada burutu eta bere oinarri ideologikoak zehaztu zituen. **Tartean, feminismoaren edo emakumeen eskubideen gaineko aipamenik ez zegoen.** Hastapenetan, oso ikuspegi esentzialista zuen ETak, emakumea kulturaren gordailutzat jotzen zuen. 1963an burutu zuten Bigarren Asanbladan, bi emakumek hartu zuten parte.

6oko hamarkadan Euskal Herrian **udaberri kultural** gisa ezagutu izan den mugimendua eman zen. Lehenengo ikastolak sortu ziren. Urte horietan **iraultza teoriko zein praktikoa** eman zuen ETak: abertzaletasuna eta kultura uztartzeko modu berritzaile bat planteatu, eta borroka esparru guztietara irekitzeko beharra ikusita, grina iraultzaile piztu eta herritarrak ahalduntzeko apustua egin zuen. 1965etik aurrera **ikuspuntu nabarmen ezkerrekoagoa** izan zuen: **langile errealtatearekiko hurbilpena, migratzaileen integrazioaren alde kokatzea, emakumeen askapena premiazkotzat ulertzea...** Urte horretako maiatzeko Zutik!-eko artikulu batean emakumeak bizi zuen zapalkuntza aztertu eta berau aldatzeko zenbait ideia proposatzeaz gain, erroko aldaketa baten premia azalerratu eta eraldaketa etxetik hasi behar zela adierazi zuten. Hala ere, praktika teoriatik oso urrun zegoen momentu horretan, militante bakoitzaren jarrera ez zatorrelako pentsamendu kolektiboarekin bat. Garaiko testuinguruaren ondorioz, borroka hori oso atzeratua zegoen Hego Euskal Herrian, Ipar Euskal Herria eta Europako gainerako herriein alderatuz.

IEH-ko feminista abertzaleak

Oinarri teoriko horietatik haratago, **euskal feminismoaren lehen hastapenak Ipar Euskal Herrian hasi ziren** forma hartzen. Ezker Abertzalean emakumeek izan beharreko paperaz arduratuta, 1974ean **Emazteak Iraultzan**²² izena hartu zuen emakume talde bat Baionan batzen hasi zen. Beren ideia feministak praktika politiko abertzalearekin uztartzeko beharra ikusi zuten, eta horretarako, ordurako nahiko garatuta zegoen nazio eta jendarte askapenerako ereduaren barnean ikuspuntu feminista txertatzeari ekin zioten. Egin zituzten teorizazioetan, Frantziako mugimendu feminista izan zuten erreferentzia puntutzat. Izan ere, kontuan izan behar dugu 68ko uda osteko testuinguruan estatu horretan emakumeen askapenak izan zuten bultzada. Euskal Herrian feminismoan hasitako asko Parisen ikasitakoak ziren lehenago, eta bertan pil-pilean zeuden eztabaidak bizi izan zituzten: sexualitatea, askatasuna, drogak, ezkerreko mugimenduen ugaritzea... Ekarpene teoriko horietatik abiatuta hasi ziren Euskal Herriko teorizazioak eraikitzen.

Mugimendua **bi lan lerrok** ezaugarritu zuten. Alde batetik, **gorputza**. Jendartearen pasatzen den guztiak gure gorputzean eragina du, horregatik da hain garrantzitsua gure gorputzaren jabe izatea. Hasierako momentu

22- Ikusi "Euskal feminismoaren bilakaera. Amaia Andreu" material kaxan.

horietan, **emakumeek euren gorputzak ezagutzeko behar nabaria** zegoen, baita gorputza/burua binomioarekin apurtzekoa ere. Bestetik, **erabakitze eskubidea**. Zentzu guztietan emakumeek euren bizitzaren gainean erabakitze eskubidea aldarrikatzen bazuten ere, gaur egun bezala, **abortatzeko eskubidea** eta **planifikazio familiarra** izan ziren borroka izarrak. Planifikazio familiarri dagokionez, hezkuntzan oinarriak lantzea zein horretarako zentro bereziak zabaltzea aldarrikatzen zuten, beste gauza batzuen artean. Abortatzeko eskubideari dagokionez, oraindik ere Frantzian ez zegoen onartuta, eta Baionan abortu klandestinoak burutzen ziren. Estatu mailako borroka izan zen, baina IEH-n ere berebiziko indarra hartu zuena. Kanpaina guzti horren baitan, “Puten Manifestua” bezala ezaguna egin zen auto-inkulpazio dokumentua sinatu zuten 343 emakumek, tartean Simone de Beauvoir bera. Bitartean, Hego Euskal Herrian, frankismo bukaera testuinguruan, ezker abertzaleko feministek praktika feminista garatuko dute, teorizazioa baino gehiago.

1976an **Euskal Emazteak bere Askatasunaren Alde** taldea eratu zen, “nazio eta jendarte askapenerako borroka eduki ez patriarkarraz hornitzeko” helburuarekin. Herri, klase eta sexu zapaldu baten partaide gisa Euskal herriko emakume langileek pairatzen duten zapalkuntza adierazteko, **zapalkuntza hirukoitzaren kontzeptua** sortu zuten.

Haustura ala erreforma

Franco hil eta bi egunetara Juan Carlos I. Estatu-buru izendatu, eta bi egun beranduago errege izendatu zuten, espainiar estatua berriro ere monarkia bihurtuz. **Estatuak hartuko zuen norabidea erabakitze bi posizio mahaigaineratu ziren: erreformista**, erregimen frankistari aldatzatxo batzuk sartuta europar ereduan homologatu ahal izateko, “ezer ez aldatzeko zerbait aldatzea”, sarraski frankistak epaitu gabe; eta hausturaren aldekoa, hots, eskubide sozialak, estatuko nazio aniztasun izaera bermatu eta faxismoa bizitza sozial eta politikotik deuseztatuko zuen demokrazia bat ezartzea ahalbidetuko zuena. Hasiera batean, estatu mailako oposizio talde desberdinak azken honetan bilduko dira, hala nola PCE eta PSOE, eta Euskal Herrian, ETA eta PNV. Hala ere, erreforma sinesgarria izan zedin, frankistek oposizioaren konplizitatea behar zutela jakinda, eta nazio desberdinen independentziarako aukerak ezabatzeko nazioen eskubideen inguruko afera konpondu behar zutela kontziente, oposizioko zenbait eragile, PNV eta PSOE tartean, erakartzen hasi ziren. Erregimen berrian izan zitzaizkeen pribilegio, botere kuotekin... itsututa, erreformismoaren alde egin zuten azkenean.

1975eko urtean, argi ikusi zen frankismoa desagertu ez zela: 22 euskaldun erail zituzten urtebetean eta gerra zikinaren erasoak etengabeak izan ziren, bereziki errefuxiatuen (edo preso eta hildakoen senideen) kontrakoa. ETA(m) eta ETA(p-m)k ekintza armatu ezberdinak egingo dituzte. Jarduera armatuaz gain, 1975ko urtea oso emankorra izan zen ezker abertzalearen erakundeen sorrerari begiratu ezker. LAB sindikatua sortuko da langile mugimenduari dagokionez, eta ikasle mugimenduaren baitan, IAM antolakundea. Errepresioak desegindako



1954. urtea. Elbira Zipitria bere ikasleekin,
Rekarte-Barriolatarren «Anai-etxe»-an ospatutako jai batean.

IASE ordezkaturko du. Gainera, tokian tokiko beste talde eta mugimendu berri asko osaturko dira, ideologikoki ildo berdinean kokatzen direnak. **Koordinadora Abertzale Sozialista** (KAS) sortzeko unea zen. Lehen bileran, ELI, EAS, HASI, LAIA, ETApM eta ETAm-k hartu zuten parte, eta beranduago LAK eta LAB batuko ziren. Manifestaldi bateratu bat egin ostean, aste batzuetako eztabaidak burututa, KAS koordinadora aurkeztuko dute, "ekintzarako koordinadora iraunkorra, eztabaida mahaia ere izango dena".

Erreformazaleak nagusi, Euskal Herriarekiko estatuaren jarrera errepresioa izan zen. Ikurrina debekatuta, alkate faxistak mantendu... nahiz eta Adolfo Suarezren gobernuak demokratizazio diskurtsoa izan, diktadurak oso presente jarraitzen zuen, baita haren kontra borrokatzearen ondorioak ere: espetxeak preso politikoz beteta zeuden. Horregatik, amnistiaren aldeko aldarria barra-barra zabaldu zen Euskal Herrian. Hori dena koordinatzeko, **Amnistiaren Aldeko Batzordeak** antolatu ziren. Testuinguru horretan bost langile erail zituzten **martxoaren 3an Gasteizen**, euskal langileriaren efemerideetara igaroko zen jazoera.

Diktadura osteko lehenengo hauteskundeak iristeko zirela, Gerra Zibil garaietatik berhartu ez zen erronka egin zuten bere alderdi abertzaleek: fronte bateratu baten eratzea. Horretarako osatu zuten **Txibertako Mahaia** alderdi abertzaleek (ETAm, ETApM, ANV, LAIA, EHAS...), PNV-rekin batera. Hauteskundeetara PNV-k bere kabuz aurkeztea erabaki zuen, eta Senatura PSOE-rekin batera. PNVren traizio historikoa izango da hau, frankismoaren aurrean urte luzetako kolaborazionismo eta saldukeriaren bidearen hasiera. Ezker Abertzalea oso ahul ateratu zen hauteskundeetatik. Garaiotan, bidegurutze batean sartzen ari zen Ezker Abertzalea, estrategia aldaketa orokor baten hasiera izan zelarik: **insurrekzio fasetik negoziazio fasera**. Zabaltzen ari zen bide berrian, helburu estrategikoen bila soilik doan insurrekzio fase batean ez bezala, helburu taktikoei erreparatu behar zitzaizkien momentu artean, honek suposatzen zuen guztiarekin: alternatiba taktikoak, programa politikoak, instituzioak, negoziaketak... pentsatzen hasi beharra zegoen. Independentzia eta Sozialismoa lortzeko estrategia guztiz berri bat behar zen. Azken finean, "nola?" galderari erantzun nahi zitzaion, nola landu helburuetara iristeko. Nazio frontearen ideia mahai gaineratzen da, nazio eraikuntzari ekinez indar metaketa bilatzen duena.

Estrategia berri honetarako, KAS-ek bere alternatiba kaleratu zuen. Batetik **alternatiba estrategikoa** landu zen, Euskal estatu sozialista bat defendaturko zuena, hau da, Euskal Herria independente, bateratu, sozialista eta euskalduna izango zena, eta bestetik, **alternatiba taktikoa** Hegoaldeko lau lurralde historikoetan aplikatu beharko ziren bost puntuak. Alternatiba taktikoa Euskal Herriarentzako proposamen demokratikoaren programa politikoak zen. KAS-en baitan **hiru eremu lantzen ziren: demokratikoa, soziala, eta nazionala, Konstituzioaren onarpen osteko hauteskundeetan**, aurrekoetan gertatutakoa gogoan, Ezker Abertzaleak aurkeztu, baina gorteetan lor zitezkeen karguak ez betetzeko erabakia hartu zuen. Harrera ezin hobea izan zuen. Ezker abertzaleak panorama politikoan bat batean egindako sarrera udal hauteskundeetan indartuko zen, 221.000 bozen babesarekin, urte askotan zehar lortutako bozka kopururik

handiena. HBk ordezkaturako proiektu politikoa sinesgarritasuna lortzen eta babes soziala handitzen zihoan: euskal langile herriak bazuen bere ordezkaritza. Hauteskundeen ostean, espainiar estatuaren erreformak aurrera jarraitu zuen, **Autonomia Estatutuari** txanda iritsi zitzaionlarik. Beste behin ere, erreformismoa babestutako alderdiek estatuarekin negoziatu, eta egun hain agortutako Estatutua onartu zuten, Ezker Abertzaleak eta abertzaletasunari hurbiltzen ziren alderdi txikiek defendaturako erabakitzeko eskubidean oinarritutako Estatuaren orde. Gatazka politikoa krudelagoa bihurtu zen, estatuaren errepresio gogorra eta erakundearen ekimen ikusgarriak bata bestearen atzetik ematen zirelarik. Edonola ere, Ezker Abertzaleak negoziazioaren aldeko apustua bere egiten mantendu eta horretarako aukerak zabaltzen saiatzen zen. Bitartean, **8oko hamarkadan zehar, frankismoan ezkutuan, lozorroan zein eskuak loturik egondako denetarik mugimendu sozialak hasi ziren sortzen**, eta herri mugimendu indartsu bat KAS-en inguruan. Lemoizeko zentral nuklearraren kontrako borroka, mugimendu intsumisioa, euskararen eta euskalduntzearen aldekoa... eta, nola ez, **gazte mugimendua eta mugimendu feminista**.

Jarrai

Zurrumbilo guzti honen erdian, 1978ko udan HASI eta LAIA alderdietako gazte militanteak KAS-ekin bat egiten zuten, gazte andana bilduko zituen antolakunde berri bat sortzeko asmoz. Hasiere batean KAS Gazteria bezala ezagutuko zena antolatzen eta sendotzen zihoan bitartean, eztabaida potoloak ematen zihoazen gazteek: dena zegoen eztabaidatzeko, dena erabakitzeko. Sortu beharreko antolakundearen oinarri ideologikoak, izaera, antolakuntza eredua eta estatutuen zirriborroa lantzeko, "Debate KAS gazteria. Primera entrega" dokumentua zabaldu zen. Urtebeteko prozesu eratzailerean ostean, gazteen errealitatea hausnartu eta aterabideak planteatzeko antolakunde sozialista eta independentista berria erdituko zuten: Jarrai (KAS).

Hasiere batean KAS-ek testuinguru politikoari lotutako gaiak landu zituen arren, laster hartu zuen gazte problematika lantzeko erronka, eta gazte mugimenduan lanean hasi zen, gazte eremutik nazio eraikuntzari bere ekarpena eginez. Borroka desberdinetan hartu zuen parte: euskalduntzean, Lemoizen... baina bereziki ezaguna dena soldaduska eta intsumisioari lotutako eztabaida da.

Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak: antolatzen hasten

Hego Euskal Herrian Franco hil ostean hasi zen mugimendu feminista antolatzen. **Ipar Euskal Herriarekin harremanetan** egon zen hedapen hori: liburuak mugaz bestaldera pasa, mugaz bestaldeko abortuaren aldeko mugimenduan zebiltzan emakumeak ezagutu... eta 1976tik aurrera egituratzen hasi zen. 1975ean antisorgailuak legeztatu ziren, baina eskuratzea oso zaila zen. Zer esanik ez, **abortua** guztiz legez kontrakoa zen. 1976an **Basauriko 11 emakume abortatzeagatik eta abortua praktikatzegatik epaituak** izan ziren, eta horren harira izugarriko mugimendua sortu zen. Denak ziren industrialdekoak, langileak

eta hainbat umeren amak. Beraz, borrokaldian zehar klase aldagaiak pisu handia hartu zuen. Gertaerak izugarrizko elkartasuna eragin zuen, eta kontzientzia feminista adina guztietako emakumeen artean zabaldu. Epaiaketaren kontrako eta absoluzioaren aldeko kanpaina ikusgarria eta etengabea izan zen: Euskal Herri osoan zehar burutu ziren elkartasuna ekimenak, baita Espainiar Estatu mailako mobilizazio bat ere. Komunikabideetan izan zuen oihartzunak ere feminismoaren hedapenari mesede egin zion. Herri presio guzti horrek ebazpen judizial anbiguo bat lortu zuen, 11 emakumeak espetxeratzea saihestuko zuena.

Egituraketa eredu nagusia emakume asanbladena izan zen. Bizkaia eta Arabako Emakume Asanbladak izan ziren lehenengokoak, eta horien erreferentziapen herri zein auzo asanbladak sortzen hasi ziren. Horrez gain, **alderdi politiko handiek (MK, LKI, HB..) talde feministak bultzatzeko beharra ikusi zuten.**

Alderdi horietako emakumeek mugimendu feministan parte hartu zuten, bertan lantzen zuten ideologia edozein izanda ere, emakumeen askapen borrokan parte hartzeko beharra ikusten zutelako. Horrela, Euskal herriko mugimendu feministan etengabea izan den **militantzia bikoitzaren eztabaida** sortu zen: ea militante feministak mugimendu feministaren baitan soilik antolatu behar diren, ala mugimendu feministatik kanpo ere, beste eremu batzuetan ikuspuntu feminista batetik eragiteko. Lehenengo jarrera mantentzen zutenek bigarrenari leporatzen zieten euren bigarren militantziaren helburu eta lehentasunak aldarrikapen feministen aurretik kokatzen zituztela, horrela borroka feminista beti bigarren postu batean utziz.

1977ko abenduaren 8tik 11ra Euskadiko 1. go Jardunaldi Feministak burutu ziren Leioako unibertsitatean.²³ Izugarrizko arrakasta izan zuten: adina, ideologia eta posizio ekonomiko desberdinetako 3000 emakume inguruk hartu zuten parte. Bizkaiko eta Arabako Emakumeen Asanbladak antolatu zituzten, eta mugimendu feministak erabiliko zituen kontzeptu eta aldarrikapenak definitzen aritu ziren: patriarkatua (parametroak, zapalkuntzak...), masturbazioa, gorputza...

KAS Emakumeak

1978an, Hego Euskal Herrian gauzatutako erreforma politikoari aurre egiteko asmoz, EEBAA-ko emakume batzuek, KAS Koordinadora Abertzale Sozialistako zenbait kidek eta inguruko emakume batzuek **KAS Emakumeak**²⁴ eratu zuten. Horrez gain, KAS Alternatiba Taktikoaren helburu estrategikoei (Euskadi independentea, sozialista, batua eta euskalduna) **Euskal Herri ez patriarkarra eraikitzeko helburua gehitu** zieten.

KAS Emakumeak emakume feminista, sozialista eta independentistek osatzen zuten, eta Euskal Herriko emakume langile eta euskaldunek jasaten zuten zapalkuntza hirukoitzari aurre egitea zuen helburu. Antolakundearen arabera, **emakumearen askapena eta herriarena ezin dira bereizi, eta horiek errealitate bihurtzeko oinarria jendarte sozialista bat da, baina kontuan hartuz emakumearen askapena ez dela independentzia eta sozialismoa lortzearen ondorio automatikoa.** Emakumeen askapena gaurdanik hasi eta egunero ekin

23- Ikusi "Euskadiko I. Jardunaldi Feministak, 1977" (ponentziak) material kaxan.

24- Ikusi "Ezpala aldirakaria" material kaxan.

behar dela zioten, eta hori bermatzeko, Ezker Abertzalearen baitako antolakunde burujabe bat ezinbestekoa zela. Euskal Herri ez patriarkarra lortzeko **lau helburu** finkatu zituzten: sexuen arabera lan banaketa indargabetzea, norberaren gorputzaren gaineko erabakimena, afektu- eta sexu-harremanen garapen libre eta berdintasunezko parte hartzea jendartearen kudeaketa ekonomiko eta politikoan. Edonola ere, barne kontraesan eta garai hartan feminismoarekiko zegoen konpromiso eskasaren ondorioz, 1981ean emandako hausnarketa baten ondorioz disolbatu zen.

Gainera, 80ko hamarkada hasieran, behin erreforma politikoa gauzatu, KAS osatzen zuten antolakunde zein mugimenduek hausnarketa berri bati hasiera eman zioten: behin autodeterminazio eskubidea ukatuta eta autonomiak sortzeko zorian, frankismotik demokrazia burgesarako trantsizioa ematen ari zen, eta hurrengo urteetan garatuko zuen **negoiazio estrategiarako** bere burua prestatu behar zuen ezker abertzaleak. Emandako eztabaiden ondorioz, **KAS-ek koordinadora izaera izateari utzi**, eta bloke gidatzaile (abangoardia) izaterako igaroko da. Horretarako, euskal antolakunde politiko iraultzaileak organikoki autonomoak izango dira, baina nazio-askapenerako borrokaren ildoak elkarrekin markatu eta ikuspegi bateratua izango dute. Urte horietan bertan, **PSOE gobernura iritsi eta ETA zein herri mugimenduarekiko jazarpena areagotu zituen**. Bai ETA-k bai gobernuak ofentsiba izugarri gogortu zuten: lehenengoak estatua negoziatzera behartzeko, eta bigarrenak, ZEN planaren bidez zein sortuko zuen GAL-aren bidez errendizioa behartzeko.

Testuinguruaren gogortasunak, hala ere, ez zuen antolatzeko eta borrokatzeko grina itzali, eta **borroka fronte gehiago eta gehiago zabaltzen joan ziren**: urte horietan izan ziren soldadutzari lehenengo intsumituak eta armadaren inguruan Euskal Herrian sortutako eztabaiden hasiera, Lemoizeko nuklearraren kontrako borroka, euskararen aldeko borroka eta lehen herri euskaltegiak... baita borroka feministaren gorakada ere.

Aizan!

Mugimenduak harrien azpitik ateratzen hasi ziren une horretan bertan, Hego Euskal Herrian ere emakumeak elkartzen eta egunerokotasunean jasaten zituzten zapalkuntzak borrokatzen hasi ziren. Auzoetan emakumezko taldeak eta Emakume Asanbladak sortzen hasi ziren, eta paraleluki, emakume asko hasi ziren Ezker Abertzaleko antolakundeetan militatzen. Antolakunde burujabearen eta borroka desberdinak uztartzearen behararen inguruan, 1981ean KAS Emakumeak-eko militante ohi batzuk esperientzia hori bizi izan ez zuten beste emakume batzuekin batu, eta **Aizan!** sortu zuten, KAS-etik kanpo. Antolakundearen izenak berak gainontzeko feminista abertzaleei antolatzera dei egiten zien.

Zapalkuntza hirukoitzaren inguruko teorizaziotik abiatuz, aldarrikapen feministei eman nahi zieten eduki politikoan sakondu zuten. Euskal Herriko emakumeen egoera azaltzeko marxismoaren metodoak erabili zituzten, eta

emakumeen zapalkuntza maila ekonomiko, juridiko-politiko eta ideologikoan aztertu. Teorizazio horiek garatuta, **euskal emakume langilearen kontzeptua** sortu zuten zapalkuntza hirukoitza definitzeko.²⁵ Emakumeen askapenerako zehaztu zuten estrategiaren helburu taktikoek KAS Emakumeenekin bat zetozen. Aizan!-ek oinarri sozial nabarmena lortu zuenean, borroka feminista eta borroka desberdinen arteko dialektika bideratzeko KAS barruko antolakunde feminista bat sortzeko baldintzak dagoeneko bazeudela baloratu zuten militanteek, eta horrela, **1987an Egizan erditu zuten.**

Euskadiko Emakumeen Bigarren Topaketak

Ezker Abertzalean landatutako hazi feminista horretatik haratago, Euskal Herrian, oro har, mugimendu feminista sortzen hasi zen, eta bere hedapen masiboa **1982an gauzatutako epaiketa bati egotzi izan zaio: Basauriko 11 emakume legez kontrako abortua gauzatzeagatik izan zuten epaiketa, hain zuzen ere.**

Aizan!-ek 1984ko **Euskadiko Emakumeen Bigarren Topaketak**²⁶ Hego Euskal Herrian hedatuta zeuden Emakumeen Asanbladekin batera antolatu zituen, aurreko jardunaldietatik 7 urte igarota. Topaketetan zehar **bi kezka nagusi** agertu ziren: alde batetik, emakumeen zapalkuntza beste inongo zapalkuntzei lotu nahi ez zioten emakumeen kopuru altuagatik, hots, Euskal Herriko mugimendu feministak izaera burgesa hartzearen beldurra; eta, bestetik, mugimendu feminista instituzionalizatzeko arriskuari beldurra. **Indarkeria** ere **gai nagusietako bat** izan zen: garai hartan kaleko bortxaketez hitz egin zen, etxeko indarkeria beranduago hasi ziren lantzen. Kaleak emakumeenak zirela aldarrikatu eta frogatu egin zuten, erasotzaileak jarraitu, etxera laguntzeko komandoak antolatu, erasotzaileen izen eta argazkiekin kartelak atera... Ekintza zuzenak pisu handia hartu zuen ildo horri dagokionez.

Bestalde, **lesbianek ere ikusgarritasuna lortzeko apustua egin zuten**, talde espezifikoak sortuz. Urte batzuk lehenago EHGAM sortu zen, baina bertan gizonetzkoek hartzen zuten pisua, eta diskurtsoa zein barruko jarrerak ez ziren oso feministak. Horregatik, emakume lesbiana askok mugimendu feministan euren aldarrikapenak lantzeko apustua egin zuten, baina bertan heterosexualeen problematikak zuenez pisu nagusia, espazio propio baten beharra ikusi, eta horren arabera jardun zuten.

Topaketa horietan **Aizan!-ek** mugimendu feministak emakumearen zapalkuntza aztertzeko eta horri aurre egiteko, sexu-zapalkuntzaz gain, **genero eta klase aldagaiak kontuan hartu behar zirela proposatu zuen.** Emakumeen eskubideen aldeko borroka nazio eta klase borrokekin batera uztartzeko garrantzia ere azpimarratu zuen, borroka feminista horien menpeko bihurtu gabe, betiere.

Desobedientzia gure bidea! Euskadiko Emakume Gazteen I. Topaketak

Gazte mugimendua zabaltzen joan zen heinean, neska gazteak mugimendu feministan hasi ziren. Era berean, gazte mugimenduan burubelarri zebiltzan

25- Ikusi "Euskal Feminismo y materialismo historico, Rosa Andreu" material kaxan.

26- Ikusi "Euskadiko II. Jardunaldi Feministak, 1984" (ponentziak) material kaxan.



neska gazteek, eurekiko bereizkeria somatu zuten, euren lan eremuetan gizonak beste ez zirela. Neska gazte horiek lehendabiziko aldiz hamaika eztabaida emateko, ekimen posible... zituzten aurrean. Beraz, belaunaldi berriek eztabaidak erreproduzitzeari ekin zioten, eta horrek mugimenduan askoz lehenago zeuden emakumeekin gatazkak sortzea ekarri zuen, hauek eztabaida horiek dagoeneko emanda edo gaindituta zeudela argudiatzen zutelako. Ondorioz, **“emakume gazte” identitatearen inguruan, neska gazteek jardunaldi propioak antolatu zituzten.**

Euskadiko Emakume Gazteen I. Topaketak²⁷ Orion burutu ziren 1986ko urriaren 18 eta 19an. Bertan emakume gazteek zituzten kezka izan ziren hizpide: erreferente feminista falta, eztabaidatzeko espazioen falta, nesken presentzia eskasa gazte mugimenduan, sexualitatea, lesbianismoa, nazio gatazka, soldatapeko lana, harremanak eta indarkeria. Parte hartu zuten talde gehienak herri mailakoak izan ziren: Donostiako Emakumeen Asanblada, Arratia Araneko neska gazteak, Barakaldoko neska gazteak, Zorroagako Emakume taldea... Gazte identitatea azpimarratzeko beharra eta feminista helduekiko mesfidantza oso ondo adierazten zituen Lekeitioko Potxuak talde feministak aurkeztutako ponentziak, baita neska gazteen koordinadora osatzeko proposamena egin ere.

Topaketa hauen ostean neska gazteen antolakuntzak aurrera jarraitu zuen. Oro har, gazte feministak maila lokalean antolatu ziren, eta kasu askotan, euren artean saretu edo talde bat beste batetik sortu. Horren adibide dira Bilboko auzo eta ikastetxeetako talde feministak batzen zituen Neska Gazteen Koordinadora, eta Bizkaiko Emakumeen Asanbladatik sortutako Matarrazkak gazte taldea. Topaketen ondorioz, Hegoaldeko Emakume Gazteen Koordinakundea sortu zen.

Egizan

Esan bezala, Aizan! KAS barruan erakunde autonomo feminista bat sortzeko nolabaiteko aurre-prozesua izan zen. Alde batetik, bere planteamendu ideologikoak eta praktika feministak Ezker Abertzaleko emakume militante askoren kontzientzia feminista piztea eta garatzea lortu zuten, eta, bestetik, Euskal Herriko mugimendu feministaren baitan joera feminista gisa onartua izatea lortu zuen. Baina, **prozesu guzti horrek Ezker Abertzaleak feminismoarekiko zituen barne kontraesanak ere biluztu zituen.** Agerian utzi zuen bere osotasunean hartuta, ezker abertzaleak ez zuela kontzientzia feministarik: Europako ezkerreko mugimendu iraultzaileetan feminismoarekiko eratutako topiko berberak errotuta zituen. Militante batzuen ustez, jatorria XVIII. mendeko emakume burgesen aldarrikapenetan zuen heinean, izaeraz burgesa zen. Beste batzuen ustez, sexu-kontraesana soilik erabiltzen zuen emakumeen zapalkuntza azaltzeko, nazio- eta klase- aldagaiak kontuan hartu gabe, eta beraz, ezin zen iraultzailea izan. Beste askok, nahiz eta borroka feministaren beharra onartu, ez zuten antolakunde espezifiko baten beharrik ikusten, dagoeneko lanean zeuden antolakundeetatik bidera zitekeen borroka sektoriala zela uste zuten eta. Edonola ere, antolakunde espezifikoak sortzeko erabakiak aurrera jarraitu zuen, eta 1987an Egizan emakumeen askapenerako **borroka-eremu**

27- Ikusi “Desobedientzia gure bideak! Emakume Gazteen I. Topaketa feministak” (ponentziak) material kaxan.

espezifiko gisa definitu zuen ezker abertzaleak.

Bere oinarri ideologikoetan emakumeen zapalkuntzaren jatorria (jabetza pribatua eta lan erreproduktibo/produktiboen banaketa) eta zapalkuntza ezabatzeko markoa zehaztu zituzten. Bestalde, Egizan-en helburuak KAS blokearen berberak ziren, hau da, taktikoki KAS Alternatiba lortzea, eta estrategikoki Euskal Herri independente, batu, sozialista eta euskalduna eraikitzea. Egizan!-ek mugimendu feministarekin batera lan egiteaz gain, **hausnarketa teorikoari ekin zion goko hamarkada bukaeran**: bere jardunaren eraginkortasuna aztertu, Euskal Herriko mugimendu feministaren zein emakumeari buruzko analisiak eguneratu, euskal feminismoaren joera teorikoa garatu eta ezker abertzaleko emakumeen arteko saretzea eratzen aritu zen. Horrez gain, bere hausnarketaren zati handi bat **subjektu politiko feminista berriak** sortzeko beharrari bideratu zion. **Alde batetik, mugimendu feminista bera subjektu politiko bihurtzeko beharra planteatu zuen, hots, Euskal Herriko bizitza politikoan eragiteko beharra**. Subjektu feministaren aferari buelta nahikotxo eman zizkieten Egizan!-eko emakumeek. Egizan-en arabera, Euskal herrian subjektu feminista horrela definitzen zen: “sexuen arteko ezberdintasunaz jabetzeko gai izan daitezkeen emakumeak, eta honekin batera, zapalkuntza horren gainditzea gure herriaren askapen nazional eta sozialaren borrokarekin lotuko dutenak. Hiru borrokak batean bihurtzen direla ulertzeko gai izan daitezkeenak”. Gakoa **emakume burujabeak** sortzean zegoen, jakinda ezin zela halakorik sortu nazio burujabe batean eta harreman sozialisten bidez ez bazen. **Klase, nazio eta sexu borrokak eskutik joan behar ziren**, nahiz eta horrek subjektu feminista edo eduki feministak galtzeko arriskua ekar zezakeen.

Bestetik, ezker abertzaleari ere eragile feminista bihurtzeko erronka proposatu zion 1998an, Prozesu Feministaren bitartez.

Emakume lesbianak, itzalpetik argira

Frankismo garaian homosexualak gogorki jazarriak izan ziren, gizonezkoak batez ere. “Alfer eta gaizkileen Legean” homosexualen kontrako zigorrak aurreikusten ziren, eta asko izan ziren kontzentrazio eta lan esparruetara bidalitakoak. Gizonak batez ere: emakume lesbianen ikusgarritasun ezak frankismoaren atzaparretatik babestu zituen. Trantsiziotik aurrera homosexualak euren eskubideak borrokatzeko antolatzen hasi zirenean, emakume lesbianek ere hartu zuten parte mugimenduan. Baina gay-ek bereganatu zuten ikusgarritasuna, eta emakume lesbianen aldarrikapenak bigarren maila batean geratu ziren. Are gehiago, lesbianek mugimendu guzti horren baitan misoginia eta eurekiko interes falta somatu zuten.

Horregatik, euren eragile espezifikoak antolatzen hasi ziren. Horrela, EHGAM-**ez gain, Emakumeen Sexu Askapenerako Mugimendua** sortu zen, eta talde lokal desberdinak koordinatzen hasi ziren. Emakumeen kasuan, saretzea zailagoa izan zen, gay-ekin alderatuta, ez zelako eurentzako hainbeste aisialdirako espazio bereizi existitzen. **1983an Lehenengo Jardunaldi Lesbianoak burutu ziren**. Hala ere, hurrengo urtean, Mugimenduak bere ibilbideari amaiera eman zion, kideek

bide desberdinetan lanean jarraitu zutelarik.

Argeletik Lizarra-Garazira

1989ko urtarrilaren 8an ETA-k bere historiako lehenengo su-eten ofiziala jakinaraziko du agiri bidez, eta behin Gobernuak erantzunda, negoziaketetarako aldebiko su-etena hitzartu zuten. Ezker Abertzaleak negoziaketa prozesuarekin aurreikusten zuen fase berrirako bere egiturak berrantolatzen hasi zen. Akordio politiko berria lortzeko aukeren aurrean, eremuka lan egiten hasi zen, problematika desberdinei alternatiba zehatzak prestatzeko. Nahiz eta Gobernuaren borondate politiko faltak 1989ko Aljerreko prozesua hasieratik porrotera kondenatu, Ezker Abertzalearen inguruan negoziaketak sortutako itxaropenak negoziaketaren aldeko ekimen politikoa bultzatu zuen. Gobernuak, aurreko urteetako etengabeko kolpe errepresiboen ondorioz erakundea zegoena baino ahulago zegoela pentsatuta, ez zituen hartutako hitzarmenak bete. **Gobernuaren eta erakundearen arteko hitzarmenak betearazteko eta negoziaketak berbideratzeko zenbait saiakera egin ondoren, ETA-k bukatutzat eman zuen Aljerreko prozesua.** Hausturaren ondoren, Felipe Gonzalezen gobernuak lehen aldiz aitortu zuen ofizialki "bide poliziala ez zela nahikoa" eta Euskal Herriarekin zuen gatazka konpontzeko, Espainiako Gobernu mahaiaren inguruan eseri beharko zela momenturen batean. Negoziaketa prozesu honen ostean, negoziatziorako eskema baliogarria ez zela argi geratu zen: dena mahai baten eztabaidatzeak arrisku gehiegi zekartzen.

goko hamarkadan, espainiar estatua frankismoaren ondorengo gisa ikusten zen nazioartean, eta beraz, gobernuak 92ko Bartzelonako Olinpiadak eta Sevillako Expo-a erabili nahi izan zituen itxura hori zuritzeko. Horretarako, **ENAM osoarekin bukatzeko hautua egin** zuen, eta bere tresna aurreko hamarkadako berbera izan zen: errepresioa. **Inoiz erakundearen kontra emandako kolpe handiena eman zuen 92ko martxoan Bidarten zuzendaritza osoa atxilotu ondoren.** Era berean, frantses estatuarekin akordioak egin, eta Ipar Euskal Herrian ezkutatuta zeuden iheslarien kontra jazarpena areagotu zen. Hilabete luzez, mugimendua noraezean murgildu zen. Urte horietan bertan, Euskal Herrian aldaketa soziopolitiko sakonak eman ziren: desindustrializazio prozesua hasi eta zerbitzuen sektoreak hartu zuen pisua, mugimendu sozialak zabaldu eta intsumisioena bereziki esanguratsua izan zen... Horri eta negoziaketen porrotari aurre egiteko, Ezker abertzalea berregituraketa fase batean sartu zen, **Oldartzen** eta Iratzar ponentzien artean emango zena. Lehenengoa gailendu, eta nazio eraikuntzaren aldeko hautua nagusitu zen: ETA eta estatuaren arteko independentzia hitzartu bati itxaron gabe, euskal estatua gaurdanik eraikitzen hastekoa. Horrek borroka ildo desberdinen inguruko hausnarketa sakonak bultzatu zituen: Euskal Herri euskalduna erdiesteko beharrezko politikak zeintzuk ziren, zein ekonomi eredu bultzatu, emakume eta gizonen berdintasuna posible izateko zelan lan egin... eta nazioa eraikitzen joateko denetariko ildoak zabaldu zituen. Horrez gain, KAS Alternatiba berrikusi, eta 1995ean **Euskal Herrirako Alternatiba Demokratikoa** aurkeztu zuen ETA-k. Ezker Abertzalea Euskal Herriaren (bere 7 herrialdeen lurraldetasuna aintzat hartuta) autodeterminazioa aitortu eta demokraziaren

oinarrizko baldintzak beteko zituen **Marko Demokratikora** bidean jarri zen.

Nazio eraikuntzako proiektuak martxan jartzen ziren aldi berean, ETAk bere ekintzen hedadura zabaldu zuen, eta espainiar estatuak **errepresioaren izugarritzko gorakada**rekin erantzun. Legez kanporatzeen segida bati eman zion hasiera: **Mahai Nazionalaren espetxeratzea, Egin egunkariaren itxiera, 18/98 makrosumarioaren irekiera**... Errepresioak beste dimentsio bat hartu zuen. Edonola ere, Ezker Abertzaleak ez zion helburuari amore eman, eta 1997-98 bitartean, **Lizarra-Garaziko prozesu soberanistari hasiera eman zion** Irlandako Foroaren baitan. Hasieran fruitu ugari eman bazituen ere, EAJ-PNVren beldurrek eta estatuaren borondate ezak, porrotera kondenatu zuten prozesu hau ere, eta 1998ko azaroan, ETA-k su etena hautsi behar izan zuen.

Euskadiko Hirugarren Jardunaldi feministak

90ko hamarkadan, Ezker Abertzaleak feminismoaren inguruko hausnarketa sakonak eman zituen. Feminismoaren instituzionalizazioak politika feministak garatzeko beharra sortu zuen, emakumeei zuzendutako zerbitzu publikoak agertu ziren... Horrez gain, nazio eraikuntzaren aldeko apustuak agerian uzten zuten **Euskal Herria egunero eraikitzen bazen, eraikuntza hori balore feministen gainean eraiki beharko zela**. Ipar Euskal Herrian mugimendu feminista asko ahuldu zen, eta bitartean, Hego Euskal Herrian, barne eztabaidetan murgilduta zegoen. **1994ko jardunaldiak** oso gatazkatsuak izan ziren. Belaunaldien arteko talka nabaria zen: nagusiek botere instituzionala eskuratu nahi zuten lege aldaketak eragiteko, eta gazteek, kale-lana egin nahi zuten. Beraz, alde batetik, instituzioetarako emakumeen plataforma eta alderdiak sortu ziren; eta bestetik, gazteen amorru guzti horrek herri eta auzoetan talde feministen loraldi bat ekarri zuen.

Horrez gain, mugimenduko sektoreen artean nolabaiteko *“feministometroa”* zegoen, feministagoa nor zenaren inguruko lehia. Hala ere, hamarkadan zehar, aliantzak sortzeko hainbat saiakera egin ziren. Esaterako, Lizarra-Garazin *“feministok badugu zer esan”*; Hondarribi eta Iruneko alarde mistoaren aldeko borroka; Emakumeen Mundu Martxa... eta gutxinaka, mugimendua zaurietatik sendatzen joan zen. Aldi berean, teoria berriak hasi ziren mendebaldeko beste estatu batzuetan agertzen, queer teoria, esaterako. Teoria guzti horiek, gutxinaka, Euskal Herrira iristen joan eta sektore batzuegan eragin zuten.

Titietaraino gaude! Euskal Herriko Emakume Gazteen 2. topaketak

1986tik ia 10 urte igarotzeko zeudela, Hegoaldeko Emakume Gazteen Koordinakundeak bigarren topaketa batzuk deitu zituen 1995eko abenduaren 7, 8 eta 9an.²⁸ Aurreko urteko Jardunaldi feministetan hasi ziren berriro ere emakume gazteak harremantzen eta, urtebete lanean egon ostean, euren txanda iritsi zen. Oraingo honetan ere askotariko taldeek hartu zuten parte: Zintzilik irriak, Arabako Emakume Lesbianen Asanbladak, Ermuko Emakume Gazteok, Matarraskak, Gasteizko PIPIS, Iruñako Neskaltza, Bizkaiako Lesbianen

28- Ikusi “Titietaraino gaude” Emakume Gazteen II. Topaketak” (ponentziak) material kaxan.

Kolektiboak... Landutako edukiei dagokienez, oraingo honetan, talde bakoitzak bere ponentziak aurkezteaz gain, Koordinakundeak berak egitarau proposamen bat egin zuen, zeinetan sexualitatea, antzerkia, hezkidetza, antimilitarismoa, lesbianen harremanak eta borroka moldeak landuko ziren.

Emakumeen arloak ezker abertzalean

Ezker Abertzalearen hausnarketei dagokionez, behin emakumeen askapenerako borroka, borroka-eremu espezifikoak zela adostuta, ezker abertzalearen gainerako antolakundeetan ere garatzen hasi zen, bakoitzak bere eremutik euskal feminismoari ekarpena egiteko. Horrela, **1989an HASI eta Herri Batasunaren mahai nazionaletan emakume arloak osatu ziren**. HASIri dagokionez, emakumearen arloaren zeregina ekarpen teorikoa zen: mugimendu feministaren ekarpenak eta ekimenak aztertuz, ezker abertzaleko gainerako antolakundeei proposamenak egitea. Hala ere, antolakuntza arazoak medio, 1992an desegin zen. Herri Batasuneko **Emakumeen Askapenerako Mugimenduarekin Harremanetarako Arloaren** eginkizuna, ordea, mugimendu feministarekin harremanak eta elkarlana bultzatzea zen. Arlo honek ere zailtasunak zituen barne mailan zein eremu publikoan praktika feministak eskatzen zuen interbentzio eta kontzientziazio feministaren beharrari erantzuteko, eta 1992an funtzioaren inguruko barne-eztabaida bat eman zuten. Horren ondorio izan zen kontzientzia feminista herri eta auzoetatik sustatu behar zela, eta horri erantzuteko, **dinamizatzaile feministaren figura** sortu zen. Hurrengo urteetan, dinamizatzaile feministen eta Emakumearen Arloaren lana gai zehatzen inguruan koordinatzeko saiakera egin zen.

Urte batzuk beranduago, 1996an **LAB** sindikatuaren zuzendaritza organoan **LAB emakumeak** eratu zen, sindikatua sexo/genero zapalkuntzaren kontra borrokatzeko tresna eraginkor bihurtzeko, eta feminismoaren inguruko hausnarketa estrategikoa eta taktikoa bultzatzeko helburuarekin. Horrez gain, antolakuntza mailan eta **ekintza sindikalean perspektiba feministaren zeharkakotasuna bermatzeko, Aukera Berdintasun Plana diseinatu zuten**. Urrats bereziki garrantzitsua da hau, kontuan izanik, sindikalgintza tradizioz gizonezko aurpegia izandako eremu bat izan dela.

**Testua jorrazteko proposatzen diren galderak:*

- Zein izan da emakume abertzaleei egotzi zaien papera? Zein izan da emakume hauen ekarpena? Zergatik ez du izan errekonozimendurik?

- Bere sorreratik, zeintzuk izan dira Ezker Abertzalearen erresistentziak feminismoarekiko? Zertan oinarritzen ziren?

-Zergatik emakume abertzale eta feministak antolatzearen beharra? Zertan data zapalkuntza hirukoitza?

- Zein izan da feminista gazte eta belaunaldi nagusien arteko talka nagusia?

- Zergatik emakume lesbianen espazioak sortzeko beharra?



Prozesu feminista

Edonola ere, emakume abertzale eta feministek ezker abertzaleko antolakundeetan egindako ibilbidea aztertuta, orokorrean mugimenduan feminismoarekiko zegoen atxikimendu edo kontzientziazio defizita agerikoa zen. Era berean, horrek Egizan-ek Ezker Abertzale barnean zein kanpoan gauzatu beharreko funtzioa oztopatzen zuen. Horregatik, Egizan-ek aldaketa baten beharra azaleratu eta bere gidaritzapean, 1998an ezker abertzaleak bere proiektu politikoan sexu-genero zapalkuntzaren aurkako borroka barnebiltzeko prozesua martxan jarri zuen: **“Ezker Abertzale feministarantz...”**.²⁹ **Estrategia feminista** Ezker Abertzalearen proiektuan era praktikoan txertatzeko prozesuari **Ezker Abertzalearen prozesu feminista** deitu zitzaion eta barne zein jendarte eraldaketa gauzatzeko gai izateko, **ezker abertzalea subjektu/eragile feminista bihurtzea zuen helburu**.

Hausnarketaren oinarria “feminismoa, maila teoriko-ideologikoan zein praktika politiko eta antolaketa mailan, jendarte justu eta parekidearen aldeko eraikuntzan lagundu izan” zuela eta lagunduko zuela zen. Hau da, ezkerreko alternatiba integrala izan zedin, ezinbestean feminista behar zuela izan, eta Ezker Abertzaleak borroka feminista sustatzeko konpromisoak hartu behar zituela. Prozesuari hasiera emateko erabilitako dokumentuan esan bezala, **ezkerreko mugimenduen egiteko nagusien artean feminismoa proiektuan barneratzea eta ideologia feministari duen balioa aitortzea zen (eta da)**. **“Ezin da ezkerreko proiektu batez hitz egin, feminismoaz hitz egin gabe”**. Orokorrean jendartearen, eta beraz Ezker Abertzaleko militanten artean ere zegoen ezjakintasuna eta feminismoaren inguruko aurreiritziak gainditzea ezinbestekoa zen: feminismoa deskalifikatzeko kontzeptuen nahasketa interesatua, gizonen kontrako borrokarekin nahastea, emakumeen eskubide eta aldarrikapenak emakumeenak soilik direla ulertzea, iraultza pertsonal eta ez kolektiboa, patriarkatua eta kapitalismoaren ezinbesteko aliantza kontuan hartu gabe egiturazko zapalkuntza izaera ukatzea... Oro har, ezkerreko mugimenduen feminismoa bere oinarri ideologikoetan barneratu arren, garatu gabe geratu den ildoan izan da, bigarren maila batean, itzalpean. Zain. **“Ez zaio lehentasunik aitortu eta ez da emakumeen aldarrikapenak praktikan artikulatzeko estrategiarik eraiki”**.

Ezkerrak, eta Ezker Abertzaleak, ez du borroka feministaren izaera politikoa aitortu, ez da jendarte eraldaketarako funtsezko subjektu gisa ulertu. Hala ere, azken hamarkada horietako borroka feministak izandako garapenak agerian utzi zuen aldarrikapen feministen gaurkotasuna. Are gehiago, boterean zegoen eskuinak sexu bereizkeriaren aitortpenaren diskurtsoa erabiltzen zuen azaleko politika instituzionalak martxan jarrita emakumeen bizi baldintza hobetzen ari zela irudikatzeko. Zerbait aldatu ezer ez aldatzeko. Diskurtso zein praktika instituzional horiek berdintasun faltsu bat eraiki besterik ez zuten egiten, eta Ezker Abertzaleko emakumeen ustez, militantziak diskurtso hori modu natural batean barneratu zuen. Ondorioz, **berdintasun faltsua borrokatzea** zegokien. Emakumeen egoera ezin zela hobekuntza partzialen eta partxeen bidez gainditu ikusita, Ezker Abertzaleak Estrategia Feminista bat behar

29- Ikusi “Ezker Abertzale feministarantz... liburuxka” material kaxan.

zuela ondorioztatu zuten, zeharkakoa eta integrala izango zena. Prozesu feministan Euskal Feminismoaren norabide politikoan zein antolaketa mailan salto kualitatibo bat emateko beharra ondorioztatu zuten. Horrela, norabide politikoari zegokionez, nazio eraikuntzarako proiektuaren baitan **nazio feminista eraikitzeo proposamena lantzeko bidea ireki zen**. Antolaketari zegokionez, ordura arte dinamizazio feministarako tresna nabarmenena izandako Egizan-en eredia gainditzeko beharra planteatu, eta ezker abertzaleko emakumeen artean feminismoaren inguruko hausnarketa desberdinak amankomunean jartzeko, kontrastatzeko eta argitzeko prozesu bat zabaldu zuten.

Aldaketa horretarako lehenengo hazia 2001eko apirileko **I. Nazio Batzarrean** jarri zen, **ezker abertzaleko emakumeak bildu eta borroka feminista bultzatu eta Ezker abertzalearen baitan praktika politiko feminista txertatzeko konpromisoa hartu zutenean**. Zeregin hori gauzatuta, **Egizan-ek bere ibilbideari bukaera eman zion**.

Prozesuaren ostean, hitzetatik ekintzetara

Ondoren, hurrengo urratsak zehaztu ziren: Euskal Herriaren diagnostiko feminista eta nazio eraikuntzarako proposamen feminista diseinatu beharra. Zentzu horretan, **bi zeregin nagusi** identifikatu zituzten. Alde batetik, **emakumeen interesen bozeramaile eta nazio feminista sortzeko bitartekoa izango zen mugimendu feminista bultzatzeko beharra, Aliantza Feministaren** bitartez. Norabide horretan, 1999tik aurrera Euskal Herriko mugimendu feministaren lehenengo Plataforma Nazionalean zein 2000 urteko Emakumeen Mundu Martxan parte hartu zuen Ezker Abertzaleak. Gainera, **2001eko abenduan Emakume Abertzaleen Topaketa Feministak burutu ziren**, emakume abertzale eta feministen sarea osatzeko helburuarekin. Sare horretatik sortu ahal izan zen 2002ko apirilean **Euskal Herriko Bilgune Feminista**.

Bestetik, **Ezker Abertzalea bera sexu zapalkuntzari aurre egingo zion eraldaketarako subjektu feminista izan zedin, aldaketarako barne prozesu bat martxan jartzea**. Ezker Abertzalearen barne zein kanpo jardueran egiturazko aldaketa baten beharra zegoen, eta militantziak bere osotasunean hartu beharreko konpromisoa zen hori. Gabeziak identifikatu eta konponbidean jarri behar ziren: parte hartze desorekatua, kontzientzia falta, emakumeen errealitatea ikusteko ezintasuna... Aldaketa horren bermatzaile eta aitzindari emakumezko militanteak izan ziren. 2003ko **Ezker Abertzaleko emakumeen II. Nazio Batzarrean** hainbat aurrerapauso eman ziren: ezker abertzaleko militanteen kontzientzia feminista maila ezagutzeko egin zuten ikerketa soziologikoaren emaitzak baliatuta, **feminismoa ezker abertzaleko erakunde guztietan sustatzeko barne planaren ardatz nagusiak adostu eta ezker abertzalearen oinarri ideologiko feministak onartu ziren. Prozesuak antolakunde bakoitzean izaera propioa izatea erabaki zuten**. Horrela, alde batetik, antolakunde guztietan aldaketak oinarri berberak izateak borroka feministan norabide eta jarduera kohesionatua izatea ekarriko zuelako; eta bestetik, antolakundeen erantzukizuna bermatzeari eta konpromiso honekiko

barne tentsioa mantentzeari begira, batzuen aurrerapausoek besteei bultzada bat emango zietelako. Beraz, finean, estrategia feministaren bermatzaileak Ezker Abertzaleko antolakundeak eta militanteak ziren.

Estrategia integrala dela esaterakoan, zapalkuntza ematen den eremu guztietan eragingo zuela esan nahi dugu: integrala izango zen bere proposamen zein presio mekanismoetan. Oinarri ideologiko feministetan KAS Emakumeak, Aizan! eta Egizan erakundeek garatutako planteamenduak gaurkotu, eta **subjektu politiko feminista berriak** eraikitzeke beharra azpimarratzen da. Subjektu horiek, ordura arteko ezker abertzaleko antolakunde feminista autonomoz gain, bestelako eragile feministak izango ziren. Balore feministetan oinarritutako Euskal Herria eraikitzeke, Ezker Abertzalea bera ere subjektu feminista bilakatzea ezinbestekotzat markatu zuten: **“subjektu feminista, ez bere proiektu estrategikoetan helburu berdintzaileak barne hartzen dituelako, baizik eta bere jardueran, bere komunikazio moldeetan eta bere borroka formetan sexu parekidetasunarekiko koherenteak diren irizpideak txertatuko dituelako”**.

Emakumearen zapalkuntza espezifikoa izateaz gain, egiturazkoa dela planteatuko dute, jendartearen antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dagoelako. Emakumeen zapalkuntzari alternatiba Euskal Herri independente, sozialista, euskalduna eta *feminista* dela aldarrikatu, eta horretarako **proiektu estrategiko feminista integral** baten beharra ezinbestekoa dela azpimarratu zuten. Ezker Abertzalearen proiektu estrategikoa integrala izango da ez diolako soilik nazio zapalkuntzari erantzungo, edo klase zein genero zapalkuntzari, hirurei baino, horrela sistema kapitalista eta patriarkalaren egiturazko zapalkuntzak suntsitu eta bestelako eredu bat eraikiz. Borrokaren abiapuntutzat emakumeen eskubideen aldeko borroka hartu zuten, klase zein herri gisa dagozkigun eskubideen aldeko borrokaren parean. Eskubideen lorpenean lehen urratsa kontzientziazioa eta aktibazio ziren. Eskubideen aldeko borroka modu iraunkorrean artikulatu behar zen, borrokarako bideak egonkortuz eta dinamika horietara ahalik eta emakume sektore gehien bilduz. Gainera, aukera berdintasunetik haratago, parekidetasuna kokatuko dute helburu gisa. Ziklo honetan, Ezker Abertzalearen helburua Marko Demokratikoaren lorpena zen heinean, **estrategia feministaren helburua parekidetasunari bide emango zion marko demokratikoa eraikitzea zen helburua**.

Politika Feminista

Hurrengo urteetan, prozesu feministaren ondoriozko hazi gehiago landatzen eta uzta jasotzen hasi ziren feminista abertzaleak. Ezker Abertzalea feministarantz, tresna berriak sortzeari ekin zioten: erasoen aurreko barne zein kanpo protokoloak, bilerak zein jardun militante parekidea bermatzeko dekalogoak... Prozesuan zehar, Egizan-en erreferente politiko feminista gisa Ezker Abertzaleko alderdiak ordezkatuko zuela adostu, eta, 2000 urtean **Batasuna** sortzean, antolakunde osoa bustiko zuen **politika feminista** garatzeko erabakia hartu zen.

Tresnez gain, politika feminista ezaugarritu ere egin zuten, baita Euskal Estatua

Ezkerretik Eraikiz dinamikaren baitan udalgintzan zihardutenei laguntzeko **politika feminista sustatzeko gida**³⁰ bat argitaratu ere. Esan bezala, goeko hamarkadan feminismo instituzionalak pisu handia hartu zuen, eta diskurtso feminista lauso bat bereganatuta, mugimendu feminista desitxuratzen zuen. Ezker Abertzaleak politika feminista instituzional faltsu hori salatu, eta benetako politika instituzional feminista bat garatzeko apustua egin zuen. Ezker Abertzalearen arabera, patriarkatua gainditzen lagunduko zuen politika feminista batek honako ezaugarriak izan behar zituen: emakumeon zapalkuntzaren egiturazko izaera kontuan izan behar du; integrala izan behar du, prozesuan zehar adosturiko oinarriak barneratuko dituen **dimentsio ideologiko** batekin, eta eremu guztietan praktikoki eragiteko helburu izango duen **dimentsio praktikoarekin**; emakumeen eskubideak oinarri hartu behar ditu, horretarako **Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta**³¹ erreferentzia izango duelarik; eta, azkenik, emakumeen gidaritza eta parte hartzea bilatu behar du.

Politika feminista zeharkakotasun printzipioan oinarrituko litzateke, eta nahiz eta arlo espezifikoak izan, gainerako lan eremu guztiak bustiko litzuzke. Azken batean, zapalkuntza eremu guzti horietan ematen da, eta guzti horietatik eraldatu behar da. Genero-ikuspegia, beraz, politika guztietan txertatu behar da, eremu guztietan gauzatu behar da, eremu guztietan eragin behar du. Berdintasun politika hori gauzatzeko, Ezker Abertzaleak **egitura desberdinen sorrera proposatzen zuen**: gaur egun hain ohikoak diren Berdintasun Arloak, berdintasun planak diseinatu eta gauzatzeko; emakumeen parte hartzea ahalbidetzeko edo errazteko organo edo kontseilua, zeinetan eremu sozio-politikoan, mugimendu feministan, eremu politiko-instituzionalean zebiltzan emakumeek Berdintasun Arloko langileekin batera emakumeen egoera aztertuko zuten; eta, azkenik, udal sailen arteko batzorde bat, zeharkakotasuna bermatzeko. Horrez gain, diagnosian, horretan oinarritutako planifikazioan eta balorazio metodologian oinarritutako berdintasun planen proposamena egin zuen.

Bilgune Feministaren sorrera

Prozesu ostean, Ezker Abertzalea bera subjektu feminista izateko bidean zegoen jada. Hala ere, Egizan-en desagerpenak Ezker Abertzaleko militante ez ziren emakume feminista eta abertzaleak lan espezifikoan feministarako espazio gabe utzi zituen. Zer esanik ez, horretan burubelarri aritzeko gogoz emakume andana zegoen, eta arrazoiak ez ziren falta. Esan bezala, emakume sare bat existitu existitzen zen, baina hori ez zen nahikoa emakume horien gogoak asetzeko, eta beraz, nazio mailako **Emakume Abertzaleen Topaketak** antolatuta zituzten Leitzaan 2001eko abenduaren 14, 15 eta 16an, **“Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortuko dugu!”** lemapean. Topaketen antolakuntzan ibilitakoek zein bertaratutakoek, “eguneroko bizimoduan eta borrokan ikuspegi feminista lantzeko konpromisoa” hartzen zuten, “nork bere eremuan jardunaz eta beharrezkoak dituen lan eremuak erabiliz”. Euren eskura zeuden tresnak baliatuko zituzten “emakumeak zanpatuta gauzaten kateak hautsi eta katerik gabeko Euskal Herria” sortzeko.

30- Ikusi “Politika feminista sustatzeko gida” material kaxan.

31- Ikusi “Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta” material kaxan.

Topaketetan gai desberdinak landu zituzten: emakume identitateaz hausnartu zuten, gazteria subjektu feminista gisa nola kokatu, legedia desberdinen aurrean emakumeen egoera zein zen aztertu, indarkeria sexistari aurre egiteko zituzten tresnen egokitasun edo nahikotasunaren inguruan eztabaidatu, inmigrazioaz eta amatasunaz hausnartu...Horrez gain, eta borroka eremu desberdinetan ikuspuntu feminista batetik eragiteko helburua hasieratik bertatik mahaigaineratu zuten heinean, egun oso bat eskaini zioten sektoreka emakumeen egoera, papera eta erronkak aztertzeari. Sektore horiek bost izan ziren, jendarte feministaren eraikuntzan estrategikotzat jo zirenak: sozioekonomia, kultura, irakaskuntza, komunikabideak eta instituzioak.

Azkenik, Euskal Herrian borroka feministak izan beharreko erronkak zehaztu zituzten, aurrera begirako horiei ekiteko. **Erronka horiei erantzuteko sortu zen Euskal Herriko Bilgune Feminista**. Bilguneak Euskal Herriko emakumeen egoeraren irakurketa tristea egiten zuen bere sorrera dokumentuan. "Aldarrikapen eta borroka latz eta historikoen ondorioz espazio publikora irten bagara ere, bigarren mailako subjektu moduan aritzen gara" oraindik ere. Lortutako garaipen txikiek sistema neoliberal patriarkarraren oztopoz inguratutik jarraitzen dute, eta gainera, oztopo horiek sotilak dira, berdintasunaren jendartean bizi garela dirudi, "gauzak aldatzen ari direnaren sindrome pean". Aldaketak egon badira ere, inolaz ere ez nahikoak. Egoerari zegokionez, irakurketa tristea egiten zuen Bilguneak, politika neoliberalak Euskal Herrira iristen ari baitziren, hamarkada bat beranduago emango zen krisi sistemikoa aurreikusi ezinik. Berdina instituzioei dagokionez. Egondako aldaketa instituzionalek berdintasunaren aldeko leloa ia unibertsala bihurtu dute, baina honek ez du itzulpen praktikorik egitasmo eta dinamika sozial edo politikoetan. Horregatik, azken urteetako mugimendu feministaren beherakadaren ondoren, Bilguneak emakumeak kontzientziatu eta antolatzeke arrazoiak egoten jarraitzen duela uste du. Are gehiago, ezinbestekoa dela. Jendartearen benetako aldaketa lortzeko, "emakume feministen arteko aliantza estrategikoak adosten eta gizon progresistei gurekin batera patriarkatuaren aurka ekiteko espazio berriak eskaintzen" hasteko garaia zen.

- Etorbizuneko Euskal Herri Feminista egun batetik bestera sortuko ez zela jakinda, **EHBF-k Euskal Herrirako Plan Feminista Estrategikoa proposatu zuen**, jendarte eredu feministarantzko trantzisioa kudeatzeko bitarteko gisa, garaiko egoeran eta garaian askapen prozesuak zuen estrategiaren araberakoa.

Ilegalizazioen garaia

Lizarra-Garazitik aurrera, estatuak hautu argia egin zuen: egurra. Ezker Abertzalea suntsitu arte. Sistematikoki, Ezker Abertzalea osatzen zuten antolakundeak legez kanporatzeari ekin zion: EKIN, HB, Xaki, Egin irratia, Amnistiaren Aldeko Batzordeak...

Ezker Abertzaleak, baina, bere eraikuntzarekin aurrera jarraitu zuen oztopoen



gainetik. Gazte Mugimenduari dagokionez, Jarrai gazte antolakundeak eta Ipar Euskal Herriko Gazteriak gazte antolakundeak, Euskal Herria gaurdanik eraikitze bidean urrats bat gehiago eman, eta **Haika** gazte antolokunde nazionala sortu zuten Kanboko Haikaldian. Ondoren, 4000 gazte inguruk parte hartu zuten Amaiur prozesu eratzailari ekin zioten. Koadro eta masa antolokunde gisa definituko du bere burua, antolokunde baino, bere burua mugimendu gisa ulertuz. Edonola ere, ibilbide laburra izan zuen Haikak: olatu errepresiboak irentsi, eta ETaren agindupean kale borrokaren antolatzaile zela egotzita eta inola ere ez frogatuta, **legez kanporatua izan zen Hego Euskal Herrian**.

Oztopoen gainetik, gazte antolokunde feminista

Euskal gazteriak erantzun zabala eman zioen errepresioari, baina masa antolokunde ilegal bat edukitzearen ezintasunean tresna berri bati jaiotza emango zaio: **Segi** gazte antolokunde. Hego Euskal Herrian, Haika sortzeko prozesuan parte hartu zuten gazte gehienekin batera egingo du aurrera, Ipar Euskal Herrian, ordea, Haika legezkoa izanik, antolokunde berriaren beharrak ez zirudien horren begibistakoa zenik, eta talka txiki batzuk eragin zituen barne mailan. Dena dela, Segik bere bidea hasi eta berehala beste sarekada eta legez kanporatze bat etorri ziren. Legezko antolokunde baten faltan, hamarkada luze batez hegoaldeko gazteriak ez du antolokunde iraultzaile legezkorik izateko aukerarik izango. Gatazka gainditzeko aurreikuspenekin, ilegalizazio fasea epe laburrekoa izango zela buruan, eusteko apustua egin zen, legez kanpo herriz herri milaka gazte eta herritar antolatuz. Epe ertainean ordea, egindako inbertsio militante guztiek, oztopo izugarriak topatuko dituzte, errepresiotik hasita gazteriarekin lan egiteko ezintasuna, ia-ia klandestinitate egoeran garatzen delarik militantzia.

Segiren prozesu eratzailaren irudia arrain anitzak izan ziren, eraikuntza lanetan murgilduta. **“Amuarraiak begi bi, sei eskailuk hamabi”** dinamikarekin, Euskal Herria eraikitze gazteriar antolatu eta bakoitzak bere ekarpena egitera dei egiten zion. Gazte antolokundearen I. Biltzarra 3 ponentzian banatu zen: Matxixako, mundua eta euskal herria ulertzeko hainbat irizpide; Izustarri, edo ezker abertzalearen estrategia; eta, azkenik, Monpas, edo euskal gazte mugimendua eta gazte estrategia independentista. Munduko eta Euskal Herriko kokapenean, **feminismoari dagokionez, EHBf-ren antzeko irakurketa egiten zuten, baina gazte ikuspegi batetik**. Feminismoa “emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituko den jendarte estruktura” gisa definitu zuen Segik bere hastapenetan, “emakumeen zapalkuntza egoera gainditu eta bestelako indar erlazio batetan oinarrituko den jendarte eraikitzea, parekidetasunean oinarrituko dena” helburu duena. Patriarkatua jendarte kapitalista guztien oinarri gisa kokatzeaz gain, bereziki gizonen emakumeengan zuten botere sozio-ekonomikoa azpimarratu zuen. Gainera, zapalkuntzaren subjektu nagusia zalantza gabe emakumeak badira ere, gizonen ere patriarkatuaren zapalketa jasaten zuela aldarrikatu zuen. **Belaunaldi gazte haiek berdintasun faltsu batean hezitakoak** zirela, eta asko hori sinetsitakoak adierazten zen Monpas-en, horrela are

kontserbadoreago bilakatuz. Mende berrira egokitzen jakin ez duen mugimendu feministaren beherakada eta emakume gazteentzako erreferentziarik eza azpimarratu, eta emakume gazteek euren zapalkuntza ez ikustearen arrazoiaren artean kokatu zuen. Hala ere, lez arin batean Euskal Herrian mugimendu feminista berri bat sortzen ari zela komentatzen zuen, neska gazteentzako erreferente izan behar zena, "emakume gazteen kontzientzia piztuko duten borroka desberdinak garatuz, betiere norabidea eta helburua argia izanik".

Ezker Abertzalearen strategiari dagokionez, independentzia eta sozialismoa kokatzen zituen helburu estrategiko gisa, eta nazio eraikuntza, horretarako bidea. **Nazio eraikuntza horren garapen praktikoaren baitan kokatu zen prozesu eratzailean feminismoa.** Bertan, Plan Estrategiko Feministaren puntu nagusiak barneratzen ziren, eta baldintzak sortzeari begira, eskubideen aldeko borrokaren apustua. Estrategia feministari ekarpena eginez, Segik nazio eraikuntzan feminismoa barneratzeko konpromisoa hartzen zuen, eta horretarako lehentasunez 3 helburu finkatu zituen: "Euskal Herriko emakumeen bizi eta lan baldintzak hobetzea, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu ez-hierarkikoak sortzea eta berdintasun faltsuaren ustea aldatzea". Horretarako, feminismoa eremu guztietara zabaltzea ezinbestekoa zela uste zuten, baina sozioekonomian, kulturean, komunikabideetan eta hezkuntzan indarra egiteko beharra nabarmendu zuen. Horrez gain, Ezker Abertzalearen apustu feminista mahai gainean, bestelako politika feminista baten alde egitearen beharra azpimarratu zuen, emakume gazteen parte hartzea ahalbidetuko zuena.

Eragiletza edo subjektuari dagokionez, Segiren apustua **mugimendu feminista indartzea** zen, eta beraz, subjektu anitzen alde egiten zuen: ez zen feminismoa lantzeko subjektu bakar bat egon behar. Hala ere, bai uste zuten neska gazteei aitzindari funtzio bat zegokiela, eta neska gazte identitate horren inguruan talde feministak sortzea bultzatzeko konpromisoa hartu zuen. Emakumeen arteko aliantzei ere garrantzia berezia ematen zien. Antolakundearen lan feministari zegokionez, zer esanik ez, feminismoa gazte estrategiaren baitan kokatzen zuen, ildo espezifiko zein zeharlerro gisa. Ildo espezifiko gisa, lanketa berezitu bat eskatzen zuelako, eta zeharlerro gisa, gainerako ildoetan ere itzulpen bat izan behar zuelako feminismoak.

Prozesu feminista gazte antolakundeetan

Oztopoak oztopo, prozesu feministarekin aurrera jarraitu zuen gazte antolakundeak. Horrela, Ezker Abertzalean zehaztu bezala, bere barne diagnostikoaren araberrako plangintza eta jarraipenerako mekanismoak zehaztu zituen. Antolakunde bakoitzak gauzatu beharreko **diagnostiko** horren helburua hirukoitza zen: alde batetik, antolakundearen argazki kualitatibo zein kuantitatibo egitea; bestetik, maila guztietan antolakundeak izan zitezkeen oztopo eta beharrak identifikatzea, euren konponbiderako euskarriak aztertuz; eta, azkenik, diagnostikoak antolakundeak bustitzea, kontzientzia eraginez eta kontraesanak agerian utziz. Horrez gain, diagnostikoak bi dimentsio izan zituen: proiektu eta ildo politikoari buruzkoa, eta barne funtzionamendu eta egoerari

zegokiona.

Egoera soziopolitikoaren azterketan oso elementu interesgarriak atera zituzten. Batzuk dagoeneko Segiren eraketa ponentzietan azalduzko diskurtsoarekin bat datoz, belaunaldi berrien deskribapena ematerakoan: "Belaunaldi hau, «demokrazia oso»-ko garaian kokatzen da. Gizartea despolitizatu egin da eta orain amnesikoa bihurtu da (frankismoa gaindituta dago...), akomodatua, indibidualista, kompetitiboa, arrazista... eta, noski, «berdintasun eta askatasun sexuala» lortu da. Gazterian sustatzen den eredia kosmopolita da, munduan bizitzeko prest, apolitikoa baina «solidarioa», identitate kultural sendorik gabekoa, kontsumista eta bere arrakasta pertsonala besterik ez zaiona axola. Maskulino edo femenino da, baina molde berriekin: mutila ez da bakarrik indartsua, sensiblea ere bai eta neska «suharra» izaten hasten da (gorputzari kultua...). Balore eta identitate erreferentzial hauek konformismoa eta errealitatearen kontzientzia falta sustatzen dituzte." Bestalde, **gatatzaren ondoriozko generoari lotutako identitateak** ere nabarmentzen dituzte "mutil heroia" eta "neskalagun konplizearen" figurak, adibidez.

Ildo politikoari dagokionez, barne diagnostiko prozesuan agerian geratu zen ildo espezifiko baten gabezia, eta feminismoari lotutako ekimen zein mobilizazioen deialdiak azken unean egitearren, harremanak ez zirela zaintzen, eta mugimendu feministarekin elkarlan iraunkorrik ez zegoela.

Parte hartzeari dagokionez, ekimen zehatzen gainean egin zen diagnostikoa. Gazte eskolek hartu zuten balorazioaren zati handi bat, argazkia ateratzeko oso baliogarriak ziren eta: nahiz eta emakume zein gizonezko hizlariak egon, emakumezkoak ez ziren parte hartzaileen erdira iristen. Beste adibide bat txosnen muntaketa izan zen, zeinetan agerikoa zen gizonezkoak ibiltzen zirela batez ere.

Euskarri komunikatiboak aztertzerakoan, karteletan identifikatu zen hutsunerik handiena: tentsioa, konfrontazioa edo errepresioa irudikatzen zenean, gizonezkoak agertzen ziren karteletan; aisialdia eta jai giroa irudikatzerakoan, berriz, emakumezkoak. Eskuorri eta antzeko euskarrietan, ordea, bi pertsona baino gehiago agertzekotan nahiko parekoa zela ondorioztatu zen, nahiz eta pertsona bakarra agertzekotan gizonezkoak izan. Aldizkaria, azkenik, positibo baloratu zuten: hobetzeko asko egon arren, genero ikuspegia eduki zein irudi aldetik nahiko zainduta zegoen.

Gazte Antolakundearen **barne funtzionamenduaren atalean**, militanteen neska eta mutilen profilean ez zen desberdintasun berezirik nabaritu, genero aldagaitik at. Azken batean, oso militantzia gaztea zen. Galdetegia osatutako erdiak 19-21 urte artean zituen, eta %65ak 3 urte baino gutxiago zeraman militatzen. Dena dela, diagnostikoaren ondorioetan bai aipatzen da antolakundeko neska militante gehienek urtebete zeramatela militatzen, Amaiur prozesuaren inguruan hasi baitziren antolatzen: ordura arte, gizonezko kopurua altuagoa zen. Horrez gain, inkesta osatutakoan **gehienek (%93!) heterosexual gisa** definitzen dira,

bestelako aukerak ia agertzen ez direlarik.

Militantziari dagokionez, oro har konpromisoa altua zela azpimarratzen dute ondorioek, eta neskek inposatutako rola gainditzeko esfortzu berezia egiten zutela. Hala ere, nesken papera hain aktiboa ez zela ere aipatzen da. Beste faktore batzuen artean, familiaren presioa azpimarratzen zuten, izan ere, familiak neska gazteei euren rol sozialak erreproduzitzeko galdatzen zitzairen, eta beraz, denbora zein lehenetasun aldetik militantzian oztopo bihurtzen zen hori. Une horretan bertan Batasuna ere diagnostikoa burutzen ari zen, eta hori bera zen Ezker Abertzaleko emakumeen militantzian identifikatzen zuten arazo handienetariko bat: adina batetik aurrera emakumeek militantzia uzten zutela lana eta familiarekin bateragarri ez zelako.

Ardura banaketei dagokienez, funtzio politikoetan kuantitatiboki, edo bestelako lan kargan, ez da alderik somatzen, baina bai gauzatzen diren lan motetan. Horrez gain, parte hartutako emakume gehienek euren parte hartzerako oztopo moduan lotsa eta esperientzia falta identifikatzen zituzten. Militantzia zikloa bataz beste 5 urtetakoa izaterakoan (eta emakumeen kasuan normalean laburragoa), hori aldatzea zaila zen, esperientzia hartzeko epe laburra zen eta. Bestalde, bileren inguruan hausnartzerakoan, emakumeen asistentzia askoz ere altuagoa zen.

Guzti hori mahai gainean, antolakundeak erabaki eta konpromiso desberdinak hartu zituen: segurtasun faltak gainditzeko formakuntza planteamenduak, erreferente feministak sortzea, diskurtsoan ikuspegi feminista barneratzea, militantzia zikloa luzatzeko apustua egitea, lan banaketa orekatuago baterako mekanismoak sortzea...Hurrengo urtetik aurrera, ikuspegi feminista hori plangintzan barneratu eta prozesu feministaren helburuak garatzeko plangintza zehaztu zen, Segi ere subjektu feminista bilakatzeko bidean.

Ezker Abertzalea, diagnostikoak eskuan, plangintza feminista zehazten hasi eta tresnak sortzen hasi zen. Horietariko bat izan zen **Talde Lana eta Bilerak Hobetzeko Dekalogo**a. Bertan bileren aurretik egin beharreko lana (data zehaztu, gai ordena finkatu...), bileran zehar zaindu beharreko funtzio zein jarrerak (denen parte hartzea bermatu edo hori erraztu, dinamizatu, akta hartu, lan banaketa egokia egin, formak zaindu, errespetuz jokatu...) eta ondorengo (balorazioa, akta pasa egiten bada...). Tresna honekin praktika militante feminista lortu nahi zen gutxinaka, guk geuk egiten ditugun sistema kapitalista eta patriarkalaren erreprodukzioak identifikatu eta eraldatuz.

Anoetako proposamena

Panorama politikoa tentsio une gorenera iritsi zen 2004ko martxoaren 11n, hauteskunde espainiarren bezperetan. Iraqueko inbasioan Estatu Batuekin bat egitearen ondorioz, erresistentzia arabiarrek Madrileko hainbat tren geltoki eta bagoietan lehergailuak zartaraziko ditu, 200 hildakotik gora eraginez. PP-ko gobernuak, nahiz eta estatuko zerbitzuek hala ez zela jakin, "dena ETA da"

tesiarekin atera zen publikoki. Izugarritzko tentsio uneak bizi izan ziren kaleetan, **Anjel Berruetaren heriotza** horien artean gorena izan zelarik. Erakundeak ekintza gauzatu izana ukatu zuenean, Gobernuaren iruzurra agerian geratu zen, eta igande horretan bueltan itzuli zitzaion: PSOE-k hauteskundeak irabazi zituen.

2003ko azaroan Batasunak **Orain Herria Orain Bakea** leloaren baitan Anoetako belodromoan eginiko ekitaldian, gatazka gainditzeko alternatiba proposamen berri bat luzatu zuen. Ezker abertzaleak historikoki defendaturiko zutabeez gain gako berriak ditu ere proposamenak. Besteak beste, ETAk egin ordez, Batasunak berak luzatzea proposamena berritasun bat da bere horretan. Negoziazio eta akordiorako bi karril proposatzen ziren: bata ETA-ren eta espainiar eta frantziar gobernuen artekoa; eta bestea euskal agente politiko, sozial eta sindikalen artekoa. Lehenengoan gatazkaren desmilitarizazioaz; preso, iheslari eta deportatuez; eta biktimez hitz egingo zen. Bigarrean, berriz, estatus politiko berri bat izango zuen eszenatoki baterako trantsizioa adostuko zen, zeinetan erabakitze eskubidea errespetatua izango zen. Akordio horrek euskal herritarren babesa izan beharko zuen, akordioaren sinatzaileek estatuaren aurrean berme papera bete beharko lukete eta. Proposamenaren indarra inork gutxi ukatuko du hurrengo urteetan, eta ETAk berak, publikoki bere egingo du proposamena 2005eko urtarrilaren 15eko agiri batean. Ondoren irekiko zen negoziaketa prozesuan eskema honi jarraituko zai. Zapateroren gobernu aldaketarekin itxaropen berriak piztu ziren, eta ETAk elkarrizketa prozesu bat abiarazteko proposamena helaraziko dio gobernu espainolari, agiri ezberdinen bitartez eta zuzenean gutun bitartez 2005eko abuztuan.

Behin prozesurako oinarri ustez sendoak ezarrita, ETAk “su-eten iraunkorra” adieraziko du 2006ko martxoaren 22an, aurrez adosturiko bermeen gainean. Oinarri horiek Zapaterok adostutako adierazpena 6 hilabeteko epean gehienez irakurtzea, atxiloketen etetea, Ezker Abertzaleko alderdien partehartze normala *de facto* onartzea, eta finean, salbuespeneko neurrien indargabetzea ziren. Denok dakigun moduan, baldintza horietariko bakarra ez zuen estatuak bete. Hilabeteetan, negoziazio prozesua guztiz blokeatu zen, eta Ezker Abertzaleak aurrera egiteko saiakera desberdinak egin arren, azkenean, porrot egin zuen. Gupil errepresiboak abiadura bizian biraka jarraitu zuen.

Errepresioak blokeatuta

Baldintza kaskarretan bazen ere, prozesu feministak aurrera jarraitu zuen antolakundeen baitan. Baina denborarekin, **errepresioaren espiralak gora egin ahala, Ezker Abertzalea erantzun dinamika batean murgildu, eta prozesu feminista bezalako hausnarketak bigarren maila batean geratu ziren**. Nahiz eta prozesua berhartzeko saiakera bat baino gehiago egin, etengabeko sarekadek behin eta berriz oztokatzen zioten Batasuna eta Segiri barne lan horrekin aurrera jarraitzea. Edonola ere, euren diskurtsoan mantentzen saiatu ziren. **Erantzun dinamikak militantzia eredu zehatz bat bultzatu zuen**, oso konprometitua, ausarta, aktibista, eraginkortasuna bilatzen zuena, oso produktiboa, hausnarketan baino ekintzan oinarritua, edozein momentutan



disponible izatea galdatzen zuena... **egun balore soilik maskulinotan oinarritutako militantzia eredia deituko genukeena, eta klandestinitate urte horietan emakume militante kopurua asko jaitsi zen.** Arrazoiak anitzak ziren: militantzia eredia, errepresioaren ondorioz betiere neskekin gizonetik baino zorrotzagoa izaten den familiaren presioa, amatasuna segurtasunarekin bizi nahi izatea, aita kartzelan egonda seme-alaben egonkortasuna bermatu nahi izatea, euren ekarpena neurtzeko gailu horien arabera baloratua ez sentitzea...

Ziklo Politiko Berria

Ezker abertzaleak noraeza ideologiko eta estrategiko batean galdurik zegoela sumatzen zuen. Errepresioaren zurrunbiloan horren sarturik, ordea, militante askok ez zuten argi ikusten nondik jo behar zuen eztabaidak. Gazte antolakundeetan, adibidez, epe motzeko estrategietan harrapatuta egotearen sentazioa zabala zen. Baina ez hori bakarrik, gazteriaren ganako amildegia eta alternatibak eskaintzeko gaitasun eza ere nabarmena zen. Esan daiteke, Segiren hausnarketa hau beste maila batzuetan, eta beste mota bateko lehentasunekin, baliozkoa zela gainontzeko ezker abertzaleko antolakundeentzat. Horrela bada, estrategia eraginkor bat finkatzea urgentziazko prozedura zen, hamarkadetako borrokaren emaitzak galtzeko arriskua zegoen eta. Besteak beste, herri mugimenduaren indargabetzea, noraeza estrategiko eta teorikoa, eta herri sektore ezberdinenganako urruntzea zela eta, eztabaida azkartasunez egitea derrigortu zuen. Beste urgentzia bat ere urteetan irabaziko hautesle kopurua galtzeko arriskua zen. Azken hauteskundeetan nabarmenki egin zuen behera, bestelako alderdietara bideratu zelarik bozka. Udal hauteskundeekin ziklo hori behin itxita, berriz ere berreskuratzea zaila izango zen.

Lizarra-Garazitik ezker abertzalearen analisiaren arabera aldaketa politiko eta sozialerako baldintzak objektibo eta subjektiboak egon bazeuden, eta gauzatzen ez bazen, gure erantzukizuna zen soilik. Hala ere, ezker abertzaleko sektore batzuentzat baldintza objektibo nahikorik ez zegoen aldaketa prozesu batetarako, eta hauek sortu egin behar ziren. Eszenatoki demokratiko bat lortu arte, ezin zen indar metaketa oinarri zuen prozesu soberanista bat abiarazi. Horretarako berme nagusiak, nazio eraikuntza eta borroka armatuak izaten jarraituko zuten. Anoetaren negoziaketa eskemaren ondoren lorturiko marko demokratiko batera iritsi arte, ezin zen prozesu demokratiko bat abiarazi. Ordea, beste sektore batentzat, borroka urte luzeetan sorturiko aldaketarako baldintzak galduko genituzke, estrategia berdinarekin jarraitu ezker. Beraz, estrategia errotik aldatu beharra zegoen.

Indar metaketa eta prozesu demokratikoa ardatz eta aldebakartasuna tresna hartuta, Estatuaren borondatearen aurretik, Euskal Herrian fase politiko berri bat zabaltzea beharrezkoa zen. Eztabaida ordea, antzeko terminoetan garatu zen su-etenaren amaieraz geroztik 2009 arte, ezker abertzaleko sektore ezberdinetan, ez aurrera ez atzera ezin eginik. Azkenean 2009-10 ikasturte hasieran eztabaida prozesu zabal eta zail bat irekiko da ezker abertzalean, estrategia aldaketa integral baten hasiera izango dena, ez noski polemikarik gabekoa.

Prozesu feministaren egokitzapena estrategia berriari

Ezker Abertzalea estrategia berria martxan jartzeko prozesu horren baitan, Prozesu Feminista ere berregokitu egin behar izan zen, baita feminismotik prozesu demokratikora egin beharreko ekarpena definitu ere. Aldaketa politiko eta soziala abian jartzeko momentu horretan, **emakumeen eskubideen bermea, eta bizi baldintzak hobetzeko borroak ezinbestekoak ziren**. Ez soilik aitortza, baizik eta konpromisoak eta tresna juridikoak sortzea. Krisi ekonomiko testuinguruan etengabeko mobilizazio eta grebek horretarako aukera ematen zuten, hau da, emakumeen zapalkuntza espezifikoak kaleratzeko.

Gatazkaren konponbideari dagokionez, emakumeen subjektutasuna azpimarratu eta parte hartzea ahalbidetzea zen erronka. Emakumeek euskal gatazkaren konponbidean ahotsa izan behar dute, eta horretarako bitartekoak jarri behar dira. Horri erantzuten dio sentsibilitate desberdinetako emakumeek osatutako Ahotsak-ek, edo beranduago egingo diren foro desberdinetan emakumeen presentziak. Gorabeherekin landuko den arren, ideia eremu guztietan emakumeen egoera azaleratu eta emakumeak beraiek aldaketaren subjektu bihurtzea izango da: zergatik behar dugu emakumeok independentzia? Zer suposatzen du kartzelaratzek emakume izanda? Eta preso baten senide emakume izanda? Zelakoa da emakumeen kontrako errepresioa? Zelan pairatzen dugu emakumeok espezifiko gatazka? Eta zelan eragingo dugu bere konponbidean?

Horrela, emakumeen askapena Euskal Herriaren askapenari, eta beraz lehenago, Marko Demokratikoaren lorpenari lotuta egongo da. Izan ere, prozesu demokratikoan oinarritzko eskubide demokratikoak bermatuko badira, emakumeen aukera berdintasuna, erabakitze eskubidea eta parte hartze sozio-politiko ere bermatu beharko dira, horretarako mekanismoak sortuta. Era berean, marko horretan mugimendu feministaren erreferentzialtasun sozio-politiko aitortuko litzateke, eta prozesuan jokatu behar duen papera aintzat hartuko da, izan ere, etorkizuneko Euskal Herria feminista izan dadin, subjektu feministen parte hartzea ezinbestekoa izango da.

... eta emakume gazteak Kukutzan Jaiki ginen (Portugaletara joan aurretik)

2008ko apirilaren 12 eta 13an Euskal Herriko hamaika eragile feministak Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak deitu zituzten Portugaleten.³² Antolatzaileak oso anitzak izan ziren: Bilgune Feminista, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Medeak, Arabako Emakumeen Asanblada, Amalatz, Emakume Internazionalistak, Plazandreak, 7menos20, Lanbroa, Herne eta Altsasuko Feministak... Azken hamarkadan zehar mugimendu feministan emandako zatiketa gainditzeko urrats garrantzitsua izan zen elkarlan hori. Ezker Abertzalearentzako lorpen handia zen lehenbizikoz jardunaldi horiek Euskal Herri mailakoak izatea, eta mugimendu feministak lurraldetasun aitortza hori egitea.

32- Ikusi "Euskal Herriko IV. Jardunaldi feministak" (ponentziak) material kaxan.

1300 emakumek hartu zuten parte, espero zena baino askoz gehiago. Programa oso mardula izan zen: 23 ponentzia aurkeztu ziren, eta beste hainbeste tailer. Plenario eta lan taldeetan ere parte hartzea oso altua izan zen eta gaiak askotarikoak: eskubideen gaia, berdintasun politikak, feminismoaren instituzionalizazioa, parte hartze politikoa, emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen parte hartzea gatazkaren konponbidean, emakumeak lan munduan, prostituzioa... Eztabaiden edukia, gainera, oso estrategikoa izan zen. Gai nagusiak indarkeria sexista, emakumeen prekarietatea eta identitateak izan ziren. Bereziki aipagarria da emakume talde autonomoek izan zuten protagonismoa: antolatzaile ezezik, aitzindari papera izan zuten. Nahiz eta oso jarrera desberdinak agertu, puntu komunetara heltzeko nahia nabaria zen. Sindikatuei dagokionez, LAB izan zen ponentzia bat aurkeztu zuen bakarra, eta ELA-k tailer bat prestatu zuen. Gainerako sindikatuek ez zuten parte hartu. Ezker Abertzaleko militantziaren zati handi batek hartu zuen parte jardunaldiotan.

Jardunaldien testuingurua baliatuta, aurreko egunean, apirilaren 11n, Emakume Gazte Feministek **Neska Gazteen Asanblada** deitu zuten Kukutza gaztetxean. Plana ezin hobea zen: arratsaldean asanblada burutu, iluntzean aisialdirako eskaintza eta gaztetxean bertan lo egiteko aukera, eta hurrengo egunean denok Portugaletera neska gazteen ahotsa Jardunaldietara eramateko! Asanbladan neska gazteek emakume eta gazte izateagatik pairatzen ditugun, baina askotan erantzun gabe geratzen diren eraso eta zapalkuntzen inguruan hausnartu zen "Emakume gazteok jaiki, eta lotu feminismora!" lemapean. 200 neska inguru batu ziren, jaiki neska gazteen sarea izango zenaren sorrera egun hartan.

Makrosarekaden urteak

Mugimendu feministaren garapen hori ematen zen aldi berean, gazte mugimenduaren arteko elkarlana garatzeko saiakerak ematen ari ziren. Guri dagokigunez, horien artean azpimarratuko dugu 2009ko azaroan gazte antolakundearen kontra emandako makrosarekada. Ia 40 gazte Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak elkarlanean atxilotuak izan ziren; beste batzuek ihes egitea lortu zuten arren, aurrerago atxilotu eta estraditatuak izan ziren. ETA-ren gazte antolakundearen zuzendaritza osatzea leporatzen zieten. Baina bai gazteak torturatu zituzten gorputz polizialek bai espetxera bidali zituen Grande-Marlaska epaileak bazekiten zer ziren gazte haiek: gazte asanbladetako kideak, mugimendu feministako partaideak, ikasle antolatuak... hala frogatzen zuten autoetan jasotako dokumentuek, torturapeko deklarazioek zernahi ziotela ere. Sarekada gainera, ez zen edozein unetan eman: gazte mugimendua osatzen zuten eragile desberdinek hilabeteak zeramatzaten lanean "**Ekin dezagun batera, bota hordagoa sistemari!**" lelopean antolatutako topaketak antolatzeko. Sarekada egun batzuk lehenago gauzatu zen. Kasualitatea? Ez zen hile horietako eraso bakarra izan: uda horretan bertan itxi zuen Audientzia Nazionalak Gazte Sarea proiektu komunikatiboa ere.

Zailtasunak gora behera, topaketek aurrera jarraitu zuten, eta bertaratutako gazteek horrelako erasoan aurrean elkarrekin erantzuteko beharra nabarmendu

zuten, gazte gisa. Larunbat horretan Bilbon burututako manifestaldi nazionalaren aurrealdean joan ziren gazteak. Erasoen aurrean irmotasun eta duintasun irudi handia izan zen.

Gazte antolakundea klandestinitatean sakonago murgildu behar izan zen, sarekadak argi utzi zuen: edonor izan zitekeen atxilotua, torturatua, espetxeratua. Gazte mugimenduan militarizatzeak, dagoeneko ez zuen bertan lan egiteko konpromisoa soilik eskatzen, noizbait kartzelaratua izateko mehatxua beti hor egotea jasateko konpromisoa galdatzen zuen. Baldintza horietan, gazte antolakundea gheztizatzen joan zen, klandestinitateak hala behartuta gazteriatik aldentzen, bere lana guztiz baldintzatua, jendartearen begietara zeharo kriminalizatua... Urtebete beranduago, 2010eko urrian eta abenduan, bigarren makrosarekada bat eman zen. Oraingoan 28 gazte izan ziren atxilotuak, une horretan gehienak, mugaz bestalde beste batzuk. Ihes egitea lortu zutenek, Izpuran itxialdi bat burutu zuten, euroaginduaren kontrako mugimenduak babestuta, eta sentsibilitate oso desberdinetako zinegotzien etxeetan babestuta zeudela atxilotuak eta estraditatuak izan ziren, zuzenean kartzelara bidaliak izateko.

Baina gazteriak antolatzen jarraitu zuen, ahal zuen heinean bere herri eta auzoetan alternatibak eraikitzen saiatzen... Errepresioaren aurrean amore eman gabe, arrazoia daukanaren tinkotasunarekin.

Gazte mugimenduaren beherakadari buelta eman asmoz, **marasma prozesua** jarri zen martxan, eta gazte antolakundea, azken urteetan behin eta berriz errepresioak etendako bere buruaren inguruko barne prozesuarekin aurrera jarraitu zuen.

Kuleroak burura eta salto egin mundura!!

Sortu eta Emakume Gazteen III. Topaketak prestatzen hasi zen Jaiki, Euskal Herriko txoko desberdinetako neskak batu zituzten asanbladen bitartez. Asanbladotan herri zein auzoetako talde feminista desberdinetako kideek, Bilgune Feministak, Segiko hainbat kidek, Medeak... aritu ziren. Horrela, 2010eko maiatzaren 7, 8 eta 9an "Kuleroak burura eta salto egin mundura" izenarekin ospatu ziren **Euskal Herriko Emakume Gazteen III Topaketak**. Hiru egunez formakuntzarako zein hausnarketarako espazioa izan zen Hernani. Ordurako ibilbide bat zuten gaienez gain (indarkeri sexista eta autodefentsa, hezkidetzeta, EHko mugimendu feministaren historia...), momentuan pil-pilean zeuden eztabaidentzako tartea egon zen: identitateak, king eta queen ekintza, harreman ereduak... Gainera, borroka eta sormena uztartzen zituzten esperientziak ezagutzeko aukera bat izan zen, pantojismoa edo igandeko egitarau osoa, adibidez.

Topaketak auzolan ekimen izugarri bat izan ziren, txandak eta bestelako lanak jardunaldietan bertan parte hartzaileen artean banatu zirelarik. Izugarritzko giroa sortu zen emakume gazteen artean, topaketak lanean jarraitzeko bultzada

handia izan ziren.

Zirkulua bezalakoa da borroka

2012ko maiatzaren 15ean, gazte antolakundearen urteurrenean, **Segi-k bere ibilbidea amaitutzat eman zuen** publikoki. Azaldu zuen legez, errepresioak bere lana baldintzatu zuen, bai, gazteriatik urrundu zuelako lan publikoa egin ezin izaterakoan, bere izena zikintzerakoan, behin eta berriz sarekaden bidez lana oztopatuz. Baina lan horren beharizanak hor jarraitzen zuen. Bide luzea geratzen zen Euskal Herri independente eta sozialistara iristeko, eta hurrengo gazte belaunaldien gain uzten zuen erronka horrekin jarraitzeko lekukoa.

Deiadarra ez zen ezerezean galdu. Hilabete gutxitan, Euskal Herri osoko gazteak hasi ziren gazte antolakunde berri bat sortzeko prozesurako talde motorrak sortzen. Urtez luzez gazte antolakundearen militatutako jendea, bere herriko gazte asanbladan aritutakoa, sekula inon aritu gabeko gaztetxoak, sekula inon aritu ez baina gogoz zeuden ez hain gaztetxoak, ikastetxea txiki geratzen zitzaizen ikasleak... Segiren hausnarketa egokia zen: antolakundea iraungitua egon zitekeen, baina gazte antolakuntza inola ere ez.

Gu sortu ginen enbor beretik...

Estrategia berria aurrera eramango zuten antolakundeak sortzeko prozesuari ekin zion Ezker Abertzaleak 2012-2013 ikasturtean. Prozesu eratzailleek ezaugarritutako kurtsoa, zalantza gabe. Ezker Abertzalearen alderdi politiko berria, Sortu, aurkeztu zen 2011ko otsailaren 8an, eta hainbat hilabete beranduago hasi zuen bere eraketa prozesua, Sortzaile. Eratze prozesua Ezker Abertzalearen oinarri sozialarekin batera eman zen, eta bi ponentziaren inguruan eztabaidatu zen: Oinarri ideologikoak eta antolakuntza eredia batetik, eta ildo politikoa eta komunikazioa, bestetik.

Feminismoari dagokionez, ponentziek eztabaidarako mamia eduki zuten, eta hainbat emendakin jaso ziren gaiaren inguruan. Sortuk bere eztabaida ponentzian Ezker Abertzalearen helburu estrategiko historikoa kokatzen zuen, hau da, Euskal Herri independente, sozialista, feminista eta euskalduna, internazionalismoaren, ekologismoaren eta aniztasunaren balioetan oinarrituta.

Nazio eraikuntza helburu horiek lortzeko tresna nagusia izango da, eta eraikiko dugun Euskal Herria feminista izango bada, eraikuntza hori balio feministen gainean egin beharko da. Ezingo dugu behin lortuta feminista bihurtu. Kapitalismoa errotik erauztea ahalbidetuko digun Euskal Herri sozialista eraikitzeko, bizimodu berriak eta pertsonen arteko harreman berriak sortu behar dira, eta feminismoa ezinbesteko gakoa da horretarako, nahiz eta ponentzian aipatzen ez den. Beraz, Sorturen jarduna feminista izan beharko da, eta horretarako, bere militantzia ere.

Hala ere, **ponentziei egindako kritika nagusietako bat feminismoari paper**

azaroak 25

**GAZTEOK
AUTODEFENTSA
FEMINISTA!**



pasibo bat aintzatesten zaiola da. Are gehiago, aurrerago aldatuko zen paragrafo batean, emakumeak subjektu pasibo bezala, edo kanpoko subjektu bezala kokatzen zituen. Ponentzietan feminismoari balio moduan egiten zaio erreferentzia behin eta berriz, eta ez proiektu politiko gisa. Era berean, mugimendu feminista aipatu ere ez da egiten.

Edonola ere, beharbada feminismoak Sorturen proiektu politikoan duen garrantzia ponentzietan islatzen ez bada ere, Sortu lanean hasi bezain laster lantalde feminista sortu zuen, barnera zein kanpora begira egin beharreko lanketa feministari ekiteko. Bere lehenengo funtzioetako bat formakuntza eta kontzientziazioa izan da, aurreko urteetako lanari jarraipena emanez.

... noizbait ginaden, gu ernai...

Etengabeko aldaketa giro horretan hasi zen Hego Euskal Herriko gazte antolakunde berria sortzeko **Zukgua prozesu eratzailea**, Ipar Euskal Herrian **"Heldu da tenorea!"** dinamikaren bidez **Aitzina gazte antolakunde**a izango zenaren sorrera prozesua ematen ari zen artean.

Prozesu eratzailea aipatutako talde motoreek dinamizatu zuten eta Ezker Abertzaleko gazte antolakunde independentista eta sozialista sortzea zuen helburu, eta aldi berean, gazte belaunaldi berriak borrokara lotzeko prozesu bat zein formakuntza prozesu bat zen. Prozesuan 3 behin-behineko ponentziaren gainean eztabaidatu zen: lehenengoa egoeraren azterketa orokorrari buruzkoa; bigarrena, ziklo politikoaren irakurketaren ingurukoa; eta, azkena, gazte estrategiaren definizioari buruzkoa. Ponentzia bakoitza herriz herri landu zen metodologia parte hartzaile batekin, eta ondoren, emandako eztabaiden arabera, emendakinak egiten zitzaizkion hasierako behin-behineko ponentziari.

Feminismoari dagokionez, bigarren ponentzia eztabaidatzerakoan, jauzi kualitatibo garrantzitsua eman zen, sortuko zen antolakundearen izaera markatuko zuena: behin-behineko ponentzian helburu estrategiko gisa independentzia eta sozialismoa kokatzen zirela, emendakin batek **helburu estrategiko horiei feminismoa gehitzea proposatu zuen**, horrela, feminismoa proiektu politikoaren elementu bat izatetik, feminismoari proiektu politiko izaera aitortuz. Bloke horren emendakinak bozkatzerakoan izugarrizko eztabaida piztu zuen proposamena izan zen, baina eztabaidak gora behera, aurrera atera zen. **Independentzia, sozialismoa eta feminismoa izango ziren etorkizuneko gazte antolakundearen helburu estrategikoak.** Gazte estrategia eztabaidatzerakoan, afera hori berrirori jarri zuten hainbatek mahai gainean: sozialismoak ez du feminismoa barnebiltzen? Estatu bat feminista ala parekidea da? Teorian zein praktikan feminista garela esan dezakegu, edo antolakundeari jarriko diogun abizen bat da? Aurrera egin bazuen ere, gauza bat argi geratu zen: **gazte antolakundeak bere burua feministatzat izendatzeak ez zuela izatez feminista bilakatzen, izenak ez duela izana egiten, eta militantzia izango zenak oraindik ere feminismoa lantzeko beharra zuela.** Ondorioz, antolakundearen sortzerakoan, bitartekoak jarri beharko ziren feminismo izenetik izanera jauzi egiteko.

2013ko martxoaren 2an ospatu genuen Lizarran Ernai gazte antolakunde iraultzaileak gure I. Kongresua. Bertan batu ginen Zukgua prozesuan parte hartutako gazteok, eta irmotasunez adierazi Euskal Herri independente, sozialista eta feminista bat lortu arte gure borrokarako konpromisoa. Norbere herri zein auzora itzuli eta berehala ekin genion lanari. Baina prozesuan ateratako ondorioak ahaztu gabe. **Antolakunde sortu eta berehala, erronka horri ekin eta lau urtetako barne prozesu feminista baten diseinua egin genuen: Urrats Feminista..**

Hamaika egiteko ari gara! ... eta estrategia feminista baten beharra

2012an, Bilgune Feministak 10 urte bete zituen,³³ **Emakume Abertzaleen V. Topaketak** antolatzeke urte berean. Beraz, topaketok, momentu horretan Euskal Herriko emakumeon egoeraren diagnostikoa egin zein 10 urteetako ibilbidearen errebasoa egiteko aukera eman zuten.

Egoeraren azterketari dagokionez, asko izan ziren landutako gaiak: hezkidetzeta, indarkeria sexista, osasuna, kultura zein arte eredu hegemonikoa eta arte feminista, sexualitatea... eta testuingurua kontuan hartuta, egoera sozioekonomikoak eta emakumeen etengabeko prekarizazioak pisu berezia hartu zuten. Azken batean, bi-hiru urte horietan onarturiko erreformek emakumeen egoera okertu egin dute, senideen zaintzagatik existitzen ziren laguntza eta prestazioak ukatuz, askok horren ondorioz enplegua zaintza lan horiek burutu ahal izateko utziz, lehenengo kaleratuak bihurtuz, feminizatutako lanetako soldatak jaitziz... Emakumeok egoera sozioekonomikoa iraultzeko egin beharreko lana azpimarratu zen, eta lehenago ere egiten bazuen ere, azken urteetan Bilgune Feminista Euskal Herrian eredu hau borrokatu eta balore feministetan oinarritutako beste eredu bat eraikitzeke sortutako espazio desberdinetan murgildu da buru belarri: Gune sozio-sindikalean, Karta Soziala sortzeko prozesuan, greba desberdinetan emakume langileen ahotsa kalera ateraz...

Bestalde, momentu horretan Euskal Herrian mugimendu feministak zuen egoeraren inguruan ere aritu zen Bilgunea. Lau korrante nagusi identifikatu zituen: BF-k berak batez ere ordezkaturako euskal feminismoa, desberdintasunarena, berdintasunarena eta queer teorien eta transfeminismoaren inguruan sortzen hasi diren talde batzuk. Mugimendu feminista osatzen duten hainbat eragile historikoak badira ere, talde lokalen sorrera etengabea izan da, sortzen, desagertzen eta birsortzen ibili badira ere. Harremani dagokienez, nahiz eta aliantza taktikoak soilik existitu, orokorrean harremana dago Mugimendu Feministaren artean.

Bilgunea bera erreferente politiko feminista da maila lokaleko talde askorentzat, neska gazteon taldeontzat batez ere, eta horien artean Ernairentzako ere. Azken batean, Bilguneak gauzatzen duen euskal feminismoa da emakume ezkertiar eta abertzaleon eredu.

33- Ikusi Bilgune Feministak bideoa, 10 urteko ibilbidearen laburpena: <http://youtu.be/oE1HVeIXtK8>

10 urteetako jardunaren balantze positiboa egin zuen Bilguneak: *“zapalkuntza hirukoitzaren teorian sakondu da egungo emakumeon errealtatera egokituz; emakumeen, eta bereziki emakume abertzale gazteen kontzientzia feminista pizteko edo sendotzeko tresna izan da Bilgune Feminista; herri mailako esku-hartze eta antolakuntza feminista garatuz joan da, tokian tokiko errealtate sozio-politikoaren ezaugarrien arabera moldatuz; Euskal Herriko Mugimendu Feministaren gainontzeko erakundeekin borrokarako hainbat akordio erdiesteko gai izan gara; nazioarteko mailan planteatutako mobilizazioak aintzat hartuz Emakumeon Mundu Martxaren itzalpean adostu genuen Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Karta; instituzioen aurrean, parte-hartzea eta interpelazioa saiatu gara uztartzen ...”*

Edonola ere, estrategia berhartu, balantze orokor bat egin eta eguneratzeko unea iritsia zela mahaigaineratu zuen. Etengabeko eraldaketan dagoen Euskal Herrian, estrategia feminista gaurkotzea da Bilgune Feministak hartutako erronka.

**Testua jorratzeko proposatzen diren galderak:*

- Zerk bultzatu zuen Ezker Abertzalea prozesu feministan murgiltzea?
- Zergatik politika feministaren izaera zeharkakotasunean oinarritzearen beharra?
- Errepresioak ze eragin izan zituen prozesu feministaren garapenean?
- Zein da Bilgune Feministaren erronka? Zergatik da gure erreferentea?

3. Ahalduntzerako borroka urratsak: Praktika feministaruntz 20 min

Ariketak:

1. Ariketa (Ordu 1, 30 min)

Helburua: Ernaik helburu estrategikotzat duen feminismoa ezaugarritzen hastea izango da bloke honen helburu nagusia. Horretarako, helburu zein praktika feministaren inguruan hausnartu eta honetan trebatzen hasiko gara, gure praktika politiko feminista definitzen hasi gaitezten.

Dinamikaren azalpena: Kaieraren azken bloke hau, atalka jorratuko dugu. Horretarako, lehenengo bi blokeekin egin dugun bezala, edukiak irakurri eta hausnarketari ekingo diogu. Hausnarketa, kasu batzuetan indibiduala eta beste batzuetan taldekakoa izango da eta testuan zehar hau baliatzeko galdera ezberdinak topatuko ditugu. Edukiak irakurriko ditugu eta tartean dauden galderei gure buruarekin erantzuten joango gara. Eztabaida kolektiboari hasiera emanez.

2. Ariketa (40 min)

Helburua: Pertsonala politikoa da! aldarrikapenari jarraiki, gure buruak esparru ezberdinetan kokatu eta horiekin erlazionatutako elementu ezberdinen inguruan hausnartuko dugu.

Dinamikaren azalpena: Ariketa hau banaka egitea proposatzen da, bakoitzak bere buruarekin hausnartuz. Halere, amaieran denon artean hausnartu dugunaren inguruan ondorio batzuk ateratzen saiatuko gara, kontutan hartuz helburua ez dela inor epaitua sentitzea, ezta deseroso egotea, eremu hauen izaera politikoa aitortu eta horien garrantzia mahaigaineratzea baizik. Beraz, isiltasunak errespetatuko ditugu eta inor, nahi ez badu, ez dugu hitz egitera bultzatuko.

Hausnarketarako eremuak:

Harremanak:

- Nolakoak dira nire eguneroko harremanak? Norekin egoten naiz?
- Nire ingurune hurbileko pertsona hauek jatorri etniko-kultural berdinekoak dira?
- Nire ingurune hurbileko pertsona hauek militanteak dira?
- Horietatik zenbat dira heterosexualak? Zenbat gay? Zenbat lesbiana? Zenbat bisexual?
- Horietatik zenbatek dauka bikotea? Zenbatek monogamoa*?
- Bikotea izan dut nonoiz? Bikoterik gabe bakardadean sentitzen naiz? Hala bada, zergatik?

Sexualitatea:

- Probatu dut nire buruari plazerra ematen? Ezagutzen dut nire gorputza, niretzat gustukoa dena?
- Orain arte izan ditudan edo etorkizunean izatea nahiko nituzkeen harreman afektibo-sexualak nolakoak dira?
- Noizbait nire hautu afektibo-sexuala zalantzan jarri dut? Esango nuke hautu askea dela?
- Sexu-hierarkiaren taulan³⁴ nire burua kokatu beharko banu, non kokatuko nuke?

Estetika moldeak:

- Orokorrean, harremantzen naizen jendearekin, denek estetika molde berdina dute?
- Nolakoa da nire janzkera?
- Nolakoa nire ibiltzeko era? Eta nire hitz egiteko modua, tonua?
- Nire buruarengan presio estetikorik nabaritzen dut? Zertan? Zergatik?
- Nire estetika-kanpoko itxura, zein neurritan erantzuten dio nire nahi eta gustuei eta zein neurritan besteen nahiei? Besteei atsegin egiteko zaintzen dut nire itxura?

Etxeko eremua:

- Norekin bizi naiz? Orokorrean, etxean nork burutzen ditu lanak? Nork sukaldatu, nork zaindu norbait gaixo dagoenean, nork garbitu, nork entzun, nork lasaitu gaizki nagoenean,..?
- Nik ze nolako aportazioa egiten dut? Ardura hartzen dut horretan?
- Baloratzen dut etxeko eremuan burutzen den lan hori guztia? Burutzen duenari dagokion errekonozimendua egiten diot? Baita nik egiten dudanean ere?
- Nire ongizatea nik neuk besteekin batera auto-gestionatzen dut edo beste norbaitek bermatzen dit?

Kontsumoa:

- Nire beharriaren arabera kontsumitzen dut edo behar dudana baino gehiago erosten dut?
- Produktu bat erosten dudanean hori produzitzeko prozesu guztiari erreparatzen diot edo soilik emaitzari?
- Produktuaren jatorria kontutan hartzen dut? Produktua non erosten dudana kontutan hartzen dut?

3. Ariketa

Helburua: Gure artean ematen diren botere-harremanez jabetzea. Nire pribilegioen zein gutxiespenaren gaineko kontzientzia hartzea.

Dinamikaren azalpena: Ariketak 2 atal ditu. Lehenengo ariketa, guztiak batera egingo dugu eta bigarrena talde txikietan.³⁵

³⁴- Ikusi sexu-hierarkiaren taula dinamizazio gidan.

³⁵- Dinamikaren iturria: Joxemi Zumalabe Fundazioa.

1.ariketa. Dinamika osoa dinamizatzaileak gidatuko du. Ariketan zehar ezin da hitz egin ez eta kontaktu fisikorik izan.

1) Gu zapalduak:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait zapaldua, humilatua, gutxietsia sentitu denak:

- Bere hizkuntza, jatorri edo identitate kolektiboagatik.
- Egotzi dioten sexu/generoagatik.
- Bere maila sozioekonomikoagatik
- Bere ikasketa maila edo ikasten duen horregatik.
- Bere adinagatik.
- Bere aukera sexuala-afektiboarengatik.
- Bere diskapazitate (galera) fisiko/mentalagatik.
- Bere itxura fisikoagatik.

2) Zapalkuntza eremuak:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait honako eremuren batean, zapaldua, humillatua, gutxietsia sentitu denak:

- Eskola/ikastetxe/unibertsitatean
- Familian
- Kuadrilan.
- Militantzian
- Bere harreman afektibo/sexualen eremuan.

3) Gu zapaltzaile:

Kalea gurutzatu dezala, noizbait beste pertsonaren bat zapaldu, humillatu edo gutxietsi duenak.

2.ariketa. Ariketa honetan bizi izandakoa aztertuko dugu. Ariketak forma ezberdinak har ditzake.

Hausnarketarako galderak bakarka landuko ditugu, gogoeta indibiduala eginez, ondoren gogoeta partekatuko dugu. 4 galdera landuko ditugu, binaka (1-2/3-4).

- 1) Nola sentitu zara? Zer sentitu duzu?
- 2) Zerk jo dizu arreta? Zer nabarmenduko zenuke?
- 3) Zer ikasi duzu? Zein da zure ikaspena?
- 4) Zein lotura ikusten diozu zure eguneroko jardun/lan politikoarekin?

3.

**AHALDUN-
TZERAKO
BORROKA
URRATSAK:**

PRAKTIKA
FEMINISTARANTZ

Sarrera

Kaiera honetan zehar, mugimendu feministaren garapen historikoari erreparatu diogu, bertan garatutako eztabaidez, teoriez, borrokez, erronkez,.. busti gara; baita euskal feminismoaren garapena eta ezker abertzalearen baitan emandako prozesu eta ibilbide feministaren nondik norakoak aztertu ditugu ere. Bi elementu horiek ezinbestekoak dira Ernairen kokapena egin ahal izateko, nondik gatozen eta zertara goazen argi izateko.

Aurretik esan bezala, Ernaik behin feminismoa helburu estrategiko moduan hartuta, lau urtetako barne prozesu feministari ekin genion Ernaiko militantzia osoa herriz herri: Urrats Feministari. **Bere helburuak gure baitan kontzientzia feminista errotu eta horren arabera praktika garatzea izanik, antolakundea bera subjektu feminista bilakatzea dugu hortzimuha.** Lau urte horietako bakoitzak bere helburu propioak ditu, bata bestearen ondoriozkoak.

Lehen urtean, feminismoa bizi eredu oinarri gisa aztertu genuen, eta **feminismoaren oinarriak** landu genituen, baita **sistema kapitalistaren eta patriarkatuaren ezinbesteko ezkontza** ere, eta eraldaketa gugandik hasten den heinean, **praktika militante feminista** baten beharra azaleratu genuen. Praktika feminista hori ezaugarritzeko **feminismo eredu teoriko zein praktikoa** lantzeari ekin diogu bigarren urte honetan, horretarako mendebaldeko feminismoen historia eta feminismoak Euskal Herrian eta bereziki Ezker Abertzalean izandako ibilbidea aztertuz. **Praktika hori edukiz betetzeari** ekingo genioke hirugarren urtean, eta azkenik, **proiektu politiko independentista, sozialista eta feminista definitzen hasi** laugarren urtean. Urrats bakoitzaren eduki zein helburuek elkar ukitzen dute, azken batean, ezinbestean oso loturik daude. Bestalde, nahiz eta lau urteko ibilbidea aurreikusi, 4 urte horiek igarotzerakoan, bide honek emandako fruituen diagnostiko bat egin eta aurrera begirako urrats berriak zein norabidetan eman zehaztu beharko dugu: ez gara lau urtetan bat batean feminista bilakatuko, eta badakigu: eguneroko eta epe luzeko apustua da hau.

Urrats Feminista aurrera eramateko sortu genuen **Kaiera** liburuxka, esku artean duzun hauxe bera, eduki teorikoz eta horiek lantzeko metodologia parte hartzailez osatutako lan tresna. Kaieraren bidez, formatzeaz gain, hausnartzea eta eztabaida berriak mahai gainean jartzea bilatzen dugu. Horrela, nahiz eta hausnarketak taldean eman, militante bakoitzak betaurreko moreak jarri eta berau subjektu feminista bihurtzea da helburua, horrela gure inguruan ikuspegi feminista batetik eragingo dugularik. Bestalde, urratsak ezaugarritzen duen barne prozesuaz gain, Ernaik kanpora begirako feminismo ildo propioa behar duela ikusi eta feminismoa zehar-lerro gisa jorratuko dugu hemendik aurrera, guk geuk ematen ditugun hausnarketak kaleratuz, gazteriaren artean hausnarketa piztuz eta antolakuntza zein borrokarako grinak hauspotuz.

Hirugarren bloke honetan, feminismoaren ibilbidea aztertu ondoren, Ernairen jardun feminista definitzen hasiko gara. **Subjektu politiko feminista baldin bagara, estrategia, diskurtso eta praktika feminista zehatzak jarri behar ditugu martxan,** eta militante guztioi dagokigu honen inguruan eztabaidatu, ahaldundu eta borroka

feminista abiarazi!.

Non gaude? Egoera aztertzen

Estrategia feministaren zehaztapenean Bilgune Feminista dugu erreferente. Leitzako V. Topaketetan, Bilgune Feministak estrategia eguneratzeko unea iritsia zela mahaigaineratu zuen aldaketa garaian murgildutako Euskal Herrian: *“borroka feminista ere testuinguru horretan kokatu behar da eta ikuspegi luzea, argi luzeak, ezarri behar dizkio bere hausnarketari eta Estrategia Feministaren proposamenari”*. Hori da emakume feminista eta abertzaleok dugun erronka, eta erronka honi erantzuteko markoa Emakume Abertzaleon VI. Topaketak. Topaketa hauek, “Euskal feminismoaren erronkak XXI. mendean” izenpean, Euskal Herri feminista bateranzko oinarriak eztabaidatzeko espazioa irekitzera datoz. Azken urteotan emandako eraldaketa sozial, politiko eta ekonomikoek testuinguru berri bat ekarri digute. Honek, egoeraren analisi bat eskatzen du borroka feministaren norabidea berdefinitzeko. Bilgune Feministak ariketa hau dinamizatzeko hautua hartuz, diagnostiko bat proposatu du, alternatiba feminista bat eraikitze bidean ditugun aldaketarako gakoak hautemateko. Hauek dira bertan planteatzen zaizkigun klabe batzuk:

Egiturazko krisi batek zeharkatzen du gure testuingurua. Merkatu finantzierok hartu dute politikaren espazioa eta kontserbadurismo ideologikoaren gorakada eman da. Bidegurutze honetan, prekarizazioan murgildu gara eta bizitza duin bat izatea gero eta zailagoa egiten zaigu, batez ere gizartearen sektore zapalduenetan. Honekin batera, **zaintzen krisia** bizi dugu, eta honen aurrean abiarazi diren neurri murriztatzaileak, kapitalismoaren birfundazioa bilatzen dutenak, **emakumeen etxeratzea zein prekarizazioa, eta familia heteropatriarka indartzeko helburua dute**, besteak beste.

Gatazkaren konponbidean **Euskal Herriko ziklo politiko berria** irekitzen zaigun honetan, feminismoari irekitzen zaizkion aukera eta oztopo berriak identifikatu behar ditugu. Oro har, esan daiteke prozesu demokratikoan emakumeen parte hartzea ez dagoela bermatuta eta zailtasunak daudela ikuspegi feminista txertatzeko ziklo politiko berrian.

Azken hamarkadetan, borroka feministari esker, emakumeok subjektu autonomo gisa aitortuak izan gara maila ekonomiko, politiko eta juridikoan, nahiz eta krisi honek kolokan jartzen ari ditu izerdiz irabazitako hain bat eskubide. Dena dela, **parekidetasun formal baten atzean generoaren araberako jendarte egitura hierarkikoa dirau. Eredu publiko eta pribatuaren arteko dikotomiak bere horretan jarraitzen du**, eta izugarria da eremu bakoitzean dauden eskubide eta beharren arteko amildegia. Emakumeak lan merkatuan parte hartzeak ez du ekonomia antolatzeke eredu berri bat ekarri. Sexuen araberako lan banaketa ematen da eta bizitzak bizigarriak izan daitezen beharrezkoak diren zaintza eta lan erreproduktiboak, emakumeen ardura izaten jarraitzen dute, errekonozimendu ekonomiko eta sozialik gabe eta baldintza prekarioetan aurrera eramaten direnak. Hori horrela, “emakumeak denboraren akrobatik” direla esan da, bere denboraren

jabe izateko berebiziko zailtasunak izanik. Tartean, denbora faltak eremu politikoan aritzeko trabak areagotzen ditu. Hortaz, feminismitik, **denbora auzi politikotzat aldarrikatu egin da**. Bestalde, botere espazioetan desoreka bitxia ematen da, ez baitator bat emakumeen prestakuntza maila lan merkatu zen eremu politikoetan daukan presentziarekin.

Estereotipo eta iruditegi sinbolikoari dagokionez, gizarte heteropatriarkar eta kapitalistak behar dituen kontsumo subjektu eta objektuak asetzeko emakume eta gizon ereduak indartu dira. Zentzu horretan, gero eta goizago ezartzen dira generoaren agindu estetikoak, eta 4 urteko neskatxak ikusi ditzakegu emakumeen moda patroien esanetara. Bestetik, identitate eta sexualitate eredu berriak azaleratu diren arren, heteroarauaren diktadura da nagusi, harreman afektiboetan maitasun erromantikoaren eredu hegemonikoa izanik. Eredu honek bikote heterosexualaren harremanak gorai patzen ditu harreman posible guztien artean, betiereko maitasuna aldarrikatzen du, monogamoa, eskusiboa, kontrolpekoa, "laranja erdiaren" paradigmaten baitan.

Nora goaz? Ernairen ekarpena estrategia feministaren gaurkotzean

Aipatu gakoekin, eta gure artean eztabaidatzen identifikatuko ditugun beste askorekin, egun euskal feminismoak aurrera jarraitzeko dituen erronka eta korapiloak antzemateko saiakera egin dugu emakume abertzale eta feministok. Ostera Euskal Herriko borroka feministaren norabide orokorra zehazteko, hau da, estrategia feminista zehazteko. Estrategia feminista zehazterakoan, baina, eragile bakoitzak bide horretan hartzen dituen konpromiso eta borroka zehaztu beharko ditu. Hortaz, **zein izango da Ernairen gazte ekarpena? Non eragin nahi dugu? Zein izango da gure borroka nagusia? Zeintzuk gure aliantza estrategikoak?** Argi dago Euskal Herri feministarantzko bidea ez dugula bakarrik egingo, hortaz, garrantzitsua da Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin harreman eta aliantzak sortzea, borroka espazio eta lanketak definitzea.

Feminismoa modu integral eta erradikal batean borrokatzeko, hainbat elementu dira aintzat hartzekoak:

Hasteko, borroka ideologikoari dagokionez, patriarkatuaren logika historikoa eta ondorioak ezagutu eta azalerratea ezinbestekoa da. Zapalkuntza egitura oso bat dela jakinik, gaur egun jendartean funtzionatzeko dituen mekanismoak identifikatu eta salatuz, arretea berezia jarriz kapitalismoarekin duen aliantza estuan. Honekin batera, feminismoari aitortza politikoa zor diogu, patriarkatuari aurre egiteko askapen teoria eta praktika moduan.

Bestalde, koiunturari erantzun eta emakumeen zapalkuntza eta erasoen aurreko erantzunak planteatzea berebizikoa da. Zentzu honetan, subjektu politiko feministak sortzea, bere aitortza politikoa lantzea, eta emakumeen arteko ahalduntze eta aliantza bultzatzea ekinbide garrantzitsua da.

Azkenik, generoen arteko botere harremanak gaintzeko harreman pertsonal eta kolektiboaren eredu berriak eraiki, eta balio, praktika eta harreman alternatiboak

eremu guztietan garatzea izango dugu xede: lagunekin, harreman sexu-afektiboetan, militantzia eremuetan...

Beraz, ez da erronka makala ez, gurea! Bide luzea dugu aurretik Euskal Herri independente, sozialista eta feminista eraikitzeko, eta Ernaik ausardiaz zein determinazioz aurre egin beharko dio ibilbide honi, urratsez urrats, utopian babestuz, honek ahalbideratzen baitigu pausoak ematea. Bide honetan zehar oztopoak izango ditugu, korapiloak, bide zuzena inoiz ez delako errazena, haatik, bai ausartena, hunkigarriena.

Bidea hasi bezain laster aurkitu dugun lehen korapiloa: subjektutasunaren afera.

Subjektuez osatutako korapiloa: zernahi gara?

Feminismoak badu egun, eta Ernaik horrenbestez, erronka konplexu bat aitzina: emakume izendatuak direnek jasaten duten zapalkuntzari erantzutea eta, aldi berean, emakume eta gizon multzoetan banantzen gaituzten aginduak desobeditzea. Azkenaldiko feminismoak egin dituen proposamenak jarraituz, generoaren muga eta ezberdintasunak auzitan jarri ditugu, hau da, zernahi garelako aldarrikatu dugu. Baina generoa auzitan jartzeak sistematikoki honekin amaitzea dakarkigu? Gizarteak horrela sailkatu eta mailakatzen gaituen heinean, ez al dauka zentzurik kategoria horien baitan borrokatzeak? Teoria posmodernoek subjektua bera kolokan jarri dute, hura osatugabea, aldakorra eta anitza delakoan. Hau feminismoarentzat azken aldiandako korapilo nahasgarri eta zailenatarikoa suposatu du, feminismoa ez baita ikuspegi teoriko huts bat, burujabetasunaren aldeko mugimendu politikoa baizik. Mugimendu politikoa orok subjektuak behar ditu. Hortaz, nor izango da, burujabetza feministaren subjektua?

Bestalde, "ideologia handien" (nazionalismoa, sozialismoa...) gainean egon diren kritikak orokortasunak egitea oztopatu dute, etorkizuneko gizarte "ideala" marraztea ekidin eta erlatibotasunean jautziz. Izan ere, edozein orokortasunak eta eredu idealak hortik kanpo geratzen diren ahotsak ezkutatu litzuzke. Alta, orokortasunak ez egiteak "status quo" iraultzea galarazten du ere, utopia marraztea zailtzen du, aldaketa sozialerako marko bat garatzea oztopatuz. Hori horrela, azken joera teoriko posmodernoek identitate zurrunen salaketa ahalbideratu badute ere, aldaketa sozialerako subjektu politikoa zatitu eta, hein batean, ahuldu dituzte.

Dena dela, feminismo identitarioaren ("emakumea" kategoria aldarrikatzen duen feminismoa, alegia) krisiaz hitz egitea ez luke krisi bat suposatu beharko bere horretan, aliantzarako aukera bat baizik. **Audre Lordek**, feminista, lesbiana eta beltzak, zera zioen: "Feminismoa diferentzien etxea da", hortaz, guri dagokigu diferentzia hauek artikulatzea eta borroka komun baten baitan kokatzea.

Modu orokor batean, hau da feminismoak gaur egun daukan bidegurutzera. Nola kudeatu aniztasuna? Nola sozializatu planteamendu teoriko hauen konplexutasuna? Nola sortu aniztasuna errespetatuko duten subjektu politikoa sendoa? Nola aitortu gure artean ematen diren zapalkuntza ezberdinak (klase soziala, arraza, sexu-generoa, aukera sexuala...) eta nola ahalbideratu zapalkuntza maila ezberdinen

arteko elkarlana kontrabotere sendoa artikulatze bidean?

Eskuz beteriko bidea

Aurreko atalean ondorioztatu dugunez, ernaiako gazteok ez gara Euskal Herri feminista helburu duten bakarrak. Horretarako bidean abiapuntu desberdinetatik ibiltzen hasitako eragile zein norbanakoak daude, eta bidean zehar, elkar topatuko dugu.

Mugimendu feminista borrokan feministan parte hartzen duten kolektibo eta pertsonen osatzen dute, baina feminismoak bezain anitza da mugimendua bera. Egun, euskal herrian hiru korrante feminista gailentzen direla esan dezakegu: desberdintasunaren feminismoa, berdintasunarena eta euskal feminismoa. Horrez gain, azken urteetan queer mugimenduaren espresioak ere sortu dira, talde lokal batzutan egituratuta.

Korrante desberdinetatik haratago, feminismoa borrokatzeko oso modu desberdinak daude. Literaturaren bidez, hausnarketa eta ekarpen teorikoen bidez, talde lokaletatik herri mugimenduan eraginda, hezkuntza sistema barnetik eraldatuz... baina, oro har, borroka feminista ezaugarritzen duten elementuak eskemak apurtzea eta kalean presente egotea dira.

Euskal Herri idenpendente, sozialista eta feminista eraikitzeko bidean, mugimendu feminista behin eta berriro topatuko dugu. Bidea mugimenduaren ondoan egingo dugu, batzuetan paraleloki, beste batzuetan elkarren ondoan... eta beste batzuetan, eskutik. Azken batean, jendarte feminista xede dugun heinean, eraldaketari ekiteko aliatuak bilatzea ezinbestekoa dugu, gurekin batera kontraesanak azaleratu, borrokatu, ereduak eraikiko dituzten aliatuak. Bidelagun horietariko batzuekin, momentu zehatzetan aldarrikapen batzuk kaleratu besterik ez dugu egingo, aldarrikapen batzuk direlako batzen gaituena, ez helburu dugun proiektu politikoa bera. Hori izan daiteke Abortoaren Aldeko Plataformetan, Martxoaren 8ko Koordinadoretan edo antzeko eredu anitzetan topa ditzakegun eragile desberdinekiko egoera. Behin-behineko aliatuak edo aliatu taktikoak dira: ez dugu bide osoa elkarrekin egingo, helmuga desberdinak ditugulako, baina elkarri laguntzen diogu, eta patriarkatuaren aurrean batuta indartsuagoak gara. Bide osoa ez bada ere, urrats dezente emango ditugu elkarrekin! Gainera, feminismoa ulertzeko modu desberdinak dituzten militanteak ezagutzeak politikoki elikatu egiten gaitu, gure eredu bere eraikitzen laguntzen digu, ideia berriak barneratuz, dagoeneko zaharkituak geratu zaizkigunak gaingiduz... etengabeko mugimenduan.

Era berean, **gure proiektu politikoarekin bat egiten duten bidelagunak** ere aurkituko ditugu. Lehenago edo beranduago egingo dugu topo, baina behin elkartuta, eskutik egingo dugu bidea! **Gure aliatu estrategiko izango dira.** Eta, Ernaiaren kasuan, nortzuk dira horiek? Independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu dutenak. Zentzu horretan, aipamen berezia merezi du Euskal Herriko Bilgune Feministak. Aurreko atalean Bilgunearen sorrera aztertu dugu, egun Ezker Abertzaleko feministontzako burutzen duen funtzioaren inguruan hausnartzea dagokigu.

EKAINAK 28

**SEXU ASKAPENAREN
ALDEKO
NAZIOARTEKO
EGUNA**



zer nahi gara!

GORPUTZ GUZTIAK. PRAKTIKA GUZTIAK

ernai

Bilgune Feminista da gaur egun euskal feminismoaren ordezkari nagusia, eta korrante hau eraikitzen jarraitzen duena. **Euskal Herriko errealitatea kontuan izanda, Euskal Herrirako feminismo bat eraikitzen du, horrela feminismotik Euskal Herria bera eraikitzeko.** Helburu horrekin hartzen du parte herri mugimenduan, mugimendu feministaren baitan, egoera sozioekonomikoa iraultzeko martxan jarritako proiektu desberdinetan... eta lanketa horregatik da emakume abertzaleontzako erreferente politiko feminista, nolabait, bide-orria eta diskurtsoa zabaltzen dituen.

Horren adibide da, herri eta auzo desberdinetako talde feministek, nahiz eta Bilgunearen baitan ez antolatu, BF dutela erreferentziatza, bere kanpainak gauzatzen dituztela, euren diskurtsoak eraikitzerako orduan kontuan hartzen dutela... Ernairen egoera ere hori bera da. Mugimendu feministan aliatu estrategiko, bidelagun bat izatekotan, Bilgune Feminista da hori.

Ondorioz, lantzen dituen ildoetan ekimen komunak, kanpaina komunak zein elkarrekin eraiki ditzakegun proiektuak gauzatzea garrantzitsua da, herri, eskualde zein nazio mailan. Era berean, EHBF-k hausnarketarako zein formakuntzarako eskaintzen dituen espazioetan parte hartzea ere garrantzitsua eta aberasgarriak da, Emakume Abertzaleon Topaketa Feministak, kasu.

Eta gu... non kokatzen gara zurrumbilo honetan?

Bestalde, Mugimendu Feministari dagokionean eta Ernairen feminismo ildoari buruz ari garenean, gure burua non kokatu zalantzak sor dakizkiguke. Izaera feminista batek mugimendu feministako partaide egiten gaitu? Edo proiektu politiko feminista baten atzetik ibiltzeak? Edo feminismoa barne zein kanpo ildo gisa lantzeak? Antolakunde misto bat izateak mugimendutik kanpo uzten gaitu? Edo feminismoa gure borroka nagusi ez izateak?

Printzipioz, Ernai ez da mugimendu feministaren parte, gazte problematika lantzea helburu duen antolakunde bat baizik. Horrek ez du inola ere kentzen, ildo feminista lantzen dugunean borroka feministari ekarpen bat egiten diogunik, edo mugimendu feministako espazio batzuetan parte hartu ezin dugunik. Esaterako, Abortuaren Aldeko Plataformak mugimendu feministaren espazioak dira, baina feminismoa lantzen duten bestelako antolakundeek ere har dezakete parte bertan: alderdi politikoeak, sindikatuek... Momentu horretan, zentzu batean, eragileok ere mugimendu feministaren parte gara.

Militantzia eredu: pertsonak erdigunean

Ernairen ekarpen feminista ezin da soilik maila abstraktu edo teoriko batean geratu, ezinbestean bere praktika politikoa feminista behar du izan, feminismoaren balio eraldatzaileen baitakoa, eta bizi eredu askatzaileen gakoetan kokatua. Baina, zeri buruz ari gara praktika feminista deritzogunean? Horixe izango da hurrengo lerroetan argitzen saiatuko garena.

Argi dugu Ernairen praktika feminista ezin dela intentzioen zerrenda bat izan, Ernaik abizen feminista duen heinean, abizen horri izana eman eta etorkizuneko euskal herria morez jantzi behar dugu. Horren erantzukizuna gudan aurkituko dugu. Izan ere, Ernai bera eta honen proiektu politikoa ez da ideien multzo bat, ezta praktika batzuen multzoa ere, Ernai pertsonok osatzen dugu: denok Ernai gara, Ernai gaude! Beraz, Euskal Herri independente, sozialista eta feminista lortzeko bidean gutako bakoitza ezinbestekoa da eta eraldaketa honetarako aurrerapausoak gutako bakoitzaren urrats txikietatik hasiko dira.

Hortaz, gure eguneroko jarrerak, hitz egiteko moduek, harremantzeko moduek, kontsumorako joerak,.. eraldaketa handiago baten ezinbesteko parte dira, izaera kolektiboa hartu dezaketenak eta eraldaketa sakonagoaren pizgarri izan. Bide honetan, askotan politikotzat jo ez ditugun elementuak politizatu beharrean gaude: egunerokotasuneko praktika inkonzianteak, sotilak, mikroak.

Ernaik feminismoa helburu estrategikotzat definitu zuenetik, diskurtso mailan aldaketa sakona gertatu bada ere, praktikan gauzak oso errotuta daudela oraindik deritzogu. Izan ere, berdintasun faltsuan heziak izan gara, gizarte kapitalista eta patriarkar honetan, eta nahi edo nahi ez, balio horien arabera jokatzeko gehienetan. Beraz, oraindik asko dugu ibiltzeko horiek landu eta eraldatzeko. Horretarako, hurrengo lerroetan lanabes ezberdinak eskaintzen ditugu. Hausnarketa pertsonal zein kolektibotik abiatuz, eraldaketarako erremintak sortzea dugu helburu, gure proiektu politikoa egunero egikaritzea ahalbidetuko dutenak.

Praktika feministaren oinarrian, kontzientzia feminista lantzea, balio feministetan oinarritutako subjektibitate inkonformistak, aktiboak eta eraldatzaileak eraikitzea, eta talde funtzionamendu parekide bat garatzea daude. Kaiera hau osatzen duten lerroetan zehar ikusi dugun legez, feminismoa ez da sentimenduez, elkarren arteko zaintzez, gozamenek,.. hitz egitea soilik. Alternatiba politiko integrala den heinean, eremu pertsonala politizatze eta mahaigaineratzeko aukera emateaz gain, bada indarkeria estrukturalari, zapalkuntzari, hierarkiari, inposaketari aurre egiteko borroka ere. Beraz, horrek guztiak determinazioz eta erantzukizunez feminismoa gure proiektu politikoa lehenera ekartzera eramaten gaitu.

Hortaz, praktika pertsonal zein kolektiboaren bitartez, klabe feministetan eraikitako bizi eredu askatzaileak etengabe elikatu eta barnera zein kanpora begira erreproduzitzen diren generoen arabera botere harreman hierarkikoak saihestuko ditugu, jarrera zein eraso sexistei aurre eginez.

Hurrengo lerroetan, praktika feminista garatzerako orduan kontutan hartu beharreko elementu ezberdinei erreparatuko diegu: ahalduntze pertsonal zein kolektiboa, mikropolitikaren eremua, eta gure proiektu politiko feminista.

Ahalduntze pertsonaletik kolektibora

Ernaik sexu-genero, klase, identitate etniko-kultural, hautu sexual, edo beste edozein arrazoi dela medio ezartzen diren zapalkuntzak alde batera utziko dituen

praktika militanterantz jo nahi du eta balio feministetan oinarritutako praktikak horretarako beta eskaintzen digu, desiratzen dugun utopia gure eguneroko jardunean ernaltzeko.

Ernai subjektu feminista bilakatu nahi dugu, hortaz, hura osatzen duten pertsonak subjektu feministak bilakatzea dugu hortzmuga. Bide honetan, ahalduntze prozesu pertsonal zein kolektiboa dugu oinarri. Baina nola ulertzen dugu ahalduntzea? Horra definizio posible bat:

“Prozesu bat da, zeinaren bidez zapalduko pertsonak haien bizitzen gaineko kontrola irabazten duten, betiere beste pertsonekin elkar harremanean, eguneroko eta gizarte egituretako jardute eraldatzaileetan parte hartuz eta beraiengan eragina duten kontuetan eragiteko ahalmena areagotuz. Baina boterearen jardute hau ez da besteen gainean aplikatu nahi baizik eta besteekin batera (...), ez da menderatzearekin loturik lihoakeen boterea”

(Joxemi Zumalaben, 2014an zitatu: Del Valle, 1999).

Ahalduntzea, beraz, gure buruen eta taldearen kontzientzia hartzeko prozesua da, gure posizio soziala, politiko zein ekonomikoa indartzen duena. Kontzientziario hori ezinbestekoa izango da erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartze handiagoa izateko, antolatze eta boterea eraikitze. Izan ere, ahalduntzearen bidez, burujabeak izateko oinarriak jartzen ditugu: autoestimua hobetzea, gaitasunak eskuratu eta garatzea, autogestioa lantzea... Ahalduntzea prozesua izateaz gain, emaitza ere bada.

Pertsona eta herri burujabeak izateko, gure buruei subjektu izaera aitortu behar diegu. Gizarte patriarkar honetan, emakumeoi burujabetza sistematikoki ukatu zaigu: gure gorputzetan, osasunean, hezkuntzan, historian, arlo sozial zein ekonomikoan... Subjektu izaera hori ukatzerakoan, erabakiak gure kabuz hartzeko eskubidea ere ukatua zaigu. Hori dela eta, eraldaketa sozialerako ezinbesteko subjektu garen heinean, gure buruak ahaldundu eta burujabeak izatea berebiziko garrantzia du. Prozesu honetan, autodefentsa feminista garatzea ezinbesteko lanabesa da.

Ahalduntze pertsonal zein kolektiborako bide honetan, guztiok eman edo aldatu behar dugu zerbait. Zentzu honetan, maskulinitate hegemonikoaren rol, estereotipo zein balioak eraldatu edo baztertzeko erronka garrantzitsua irekitzen zaigu.³⁶ Eguneroko praktikan, kolektiboki, sexu-genero sistemak sortarazten dituen desorekak identifikatu eta zehazki aztertzea dugu xede. Horretarako, mugimendu feministak egindako proposamenak bidelagun, ahalduntzerako eta agerikoak zein ezkutuko jarrera sexisten lanketarako bitartekoak diren espazio erosoan sorrera ezinbestekoa da. Finean, militantzia ereduaren nagusi diren balio sexisten berrikusketarako bide berriak zabaltzea ezinbestekoa zaigu; hau da, desoreka hauen jatorriaz jabetu, eta beste era batean lan egiten lagunduko diguten tresnak edo bitartekoak birpentsatu. Hauxe izango da gure hurrengo urrats feministaren erronka nagusia.

lido honetan, ahalduntze prozesuari gaurtik hasita bidea irekitzeko, gure buruekin

36- Honen inguruan gehiago hausnartzeko ikusi material kaxan: Azpiazu, Jokin “Maskulinitateak: eraldatu, irauli ala baztertu?” eta “Partes de mí que me asustan”.

hausnarketa abiarazteko proposamena ekartzen dizuegu. Gai ezberdinen inguruan, gure buruari galdetu, trebatu, frogatu... egingo dugu, hausnarketa pertsonalaren bidez gure buruei termometroa jartzeko. Bilatzen duguna ez da, inondik inora, ni edo besteak epaitzea, izan ere, ondorengo galderen erantzunak ez ditugu zertan besteekin konpartitu behar, soilik eroso sentitzen bagara, eta besteekin konpartitzeko nahia badugu egingo baitugu.

Argi dago kontraesanen munduan bizi garela, inor ezin dela perfektua izan, ehuneko ehunean bere ideiekin bat koherentea izan. Ideiak hauek etengabe mugimenduan, eraldaketan, kritikan... baitaude. Halere, iraultza gure baitan hasiko dela ulertzen badugu, ezinbestekoa da gure bizitzako esparru guztiak birplanteatzea, zalantzan jartzea, normaltasunetik eta arauetatik at bizitzeko apustua egitea, eta zernahi izaten hastea!

Horra hor, bakoitzak bere buruarekin egiteko proposatzen ditugun galderak:

- Noizbait zure burua konbentzitu duzu gauzak beste modu batetara egitea posiblea dela? Balio sozialista zein feministetan bizitzea posiblea dela?
- Noizbait probatu duzu zure baloreak praktikan jartzera?
- Gure eguneroko txikitasunetik mila aldaketa sortu eta bultzatu ditzakegula uste duzu? Noizbait sentitu duzu aldaketa horiek gauzatzearen plazerra?*
- Iraultza posiblea dela ikustearen plazerra?
- Noiz izan zen militatzen gozatu zenuen azken aldia? Zerk eragin zuen zure gozamena?
- Zein gaitasun dauzkatzu? Zer gustatzen zait? Zer ez? Horiek kontutan hartzen ditut/dituzte militantzia esparruan?
- Talde baten parte sentitzen naiz? Proiektu baten parte? Sinisten dut egiten dudan horretan?
- Zerk eraman ninduen militatzera? Zer positibo aporteratzen dit?
- Nola sentitzen naiz taldean? Ausartzen naiz hitz egitera? Uste dut nire iritzia kontutan hartzen dela? Beste batzuen bano gutxiago? Beste batzuen bano gehiago?
- Taldean nire egoera pertsonala kontutan hartzen da?
- Konpromisoak hartzerantz prest nago? Noiz? Zergatik? Konpromiso gutxi hartzeak taldean eragiten du? Konpromiso gehiegi hartzeak nire egoera pertsonalean eragiten du?
- Saiatzen naiz taldean giro ona izan dadin?
- Militantzia ate batzuetatik barrura eta ordu zehaztuta, ekintza zehatz batzuei loturiko jardueratzen al dut?

Mikropolitikak

Eraldaketa gure baitan hasteak, hausnarketa eta aldaketarako abiapuntua indibiduala izatea suposatzen du. Haatik, iraultza sakona eta erreala izateko, kolektiboa behar du izan. Zentzu honetan, gure eremu pertsonala birplanteatzeaz gain, taldeko eremuan zalantzan jarriko dugu ere, bide honetan, mikropolitikak izango ditugu lanabes.

Baina, zer da politika? Zeri deitzen diogu politikoa? Joera zabaldua dago politika soilik eremu zehatz bati lotzeko: instituzioak, alderdi politikoak, ideologiak... Baina ez al dira pertsona ororen eremu oro lan politikorako eremu? Gutako bakoitzak izan

ohi ditugun kezka edo bizipen pertsonalek ez al dute ezer sozialetik? Politikotik?

Patriarkatu zein kapitalismoen erroak eraldatzeko, egunerokotasunean egiten dugunari garrantzia eman behar diogu, politizatu behar dugu, agerikoak diren jarrera sexistez gain, modu sotilean zein inkonziejentean gertatzen den hori identifikatu eta eraldatzeko. Afera honetan, egunerokotasunean egiten dugunari, gure praktika indibidual zein kolektiboei, taldean dugun funtzionamenduari, pertsonen, taldeen eta proiektu politikoaren zaintzari,.. erreparatuko diogu. Talde barneko giroa, harremanak, funtzionatzeko moduak ere, politika dira, eta politizatzeak, militanteon eta taldearen ongizatean zein eraginkortasunean eragina izango dute. Horri taldeen *mikropolitika* deritzogu.

Eremu pertsonala, antolakuntzazko eremuak eta egiturazkoak, interkonektatuta eta elkarreraginean dauden eremuak dira. Hori dela eta, kolektiboen mikropolitika lehen mailako garrantzia hartzen duen gako bihurtzen zaigu. Mikropolitikaren eremuan, hiru elementu elkar-eraginean daude: militantea, taldea eta proiektua. Zaila da zehaztea non hasten den bat eta non amaitu bestea.

Talde lanak zein talde bizitzak kidearengan eragiten du eta horien izaerek edo moduek kidea deseroso egotea eragin dezake. Aldi berean, taldea osatzen duten kideen ezaugarriek aldatzen dute taldea bera. Izan ere, proiektu politikoaz gain, militanteen izaera, interes zein ezaugarriek osatu eta birmoldatzen dute taldea. Horretaz gain, proiektu politikoak kidearengan du eragina: gutako bakoitzak zenbat dugu proiektutik edo taldetik? Gu geu definitu gaitzeko gure proiektuak, gure taldeko militantzia esperientziak izan duen eragina aintzat hartu gabe? Azkenik, taldeak lortutako gaitasun eta mugek, eragina izango dute proiektu politikoa landu, gauzatu edo borrokatzerako orduan eta, aldi berean, proiektua beraren ulermenak talde beraren izaera eragin dezake. Beraz, hiru elementu horiek zaindu beharra daukagu gure ekinbide politikoa bermatu nahi izanez gero. Zaintza, ez da eremu pribatuko afera, praktika politiko eraginkorrerako baldintza bada ere.

Militantziaren baitan, badago joera gure eguneroko lanean eraginkortasuna plazerra edo ondo pasatzeari kontrajartzeko. Barre egiteak, jolasteak, elkar ukitzeak, elkar ezagutzeak, musikak, dantzak... militanteon subjektibitate eraldaketarako, zein talde kohesiorako elementu garrantzitsuak dira. Militantzia bera sorkuntza prozesu gisa uler dezakegu, eta sorkuntza kolektibo honetan, errespetua, elkar ezagutza, kidesuna, dibertsitatea, ulermena, gustura egotea eta onarpena moduko baldintzak kontutan hartzekoak dira. Izateko, bizitzeko, sentitzeko, egiteko milaka era daude eta helburu politiko komun batzuk konpartitzeak ez luke zertan aniztasun horren galera eragin behar. Proiektu politikoaren eraikuntzak, aniztasun hori jasotzeko ahalmena beharko luke izan, eta ez gehiengoaren "normaltasunaren" altzoan aritzera eraman. Hortaz, bakoitzak bere burua zaintzeaz arduratzeaz gain, taldea osatzen duten kideen osasun, animo, gogo, interes, aukera, sentimendu, behar eta abarrei adi egotea ezinbestekoa zaigu gure zein kideen ongizatea bermatzeko.

Kideen zaintzak berez talde bizitza hobetzen badu ere, taldeak talde gisa bere



zainketa propioa ere behar du. Bertan sortzen diren elkarrekintza, inertzia, etabarrena. Hau da: non egiten ditugu bilerak? Zelan eta noiz? Zein da gure arteko giroa? Gure jardunean konfiantza, segurtasuna, babesa, elkartasuna... dira gailentzen direnak? Kideen zaintzak, talde bizitzaren zaintzak, gutako bakoitza gustura aritzea eragin dezake. Horretaz gain, talde bizitza elikatu dezake ere, emankortasun politikoa eta proiektu politiko beraren garapena biderkatuz. Dena den, sarri kideen zaintzak talde zaintzarekin zein proiektuaren zaintzarekin kontrajarri daitezke, soilik kideen zein taldeen zaintzari erreparatzen badiogu gure helburu politikoak alde batera uztea ekar dezakeelako eta alderantziz, soilik proiektu politikoan arreta jartzeak kideen zein taldeen zaintza alde batera utzi dezake. Hortaz, hiru eremuen arteko oreka eta desorekaren arteko tentsioan mugitzea ezinbesteko zaigu.

Oraingo honetan, kideen eta taldeen zaintzaren eremuan desoreka egitea proposatzen dugu. Horretarako, dinamika ezberdinak planteatzen ditugu, gure taldearen osasunari heltzeko eta gure arteko giroa hobetzeko helburuari erantzun diezaioketenak. Ondorengo dinamikek, erreminta kutxa bat osatzen dute, talde eta pertsonen zaintzari heltzeko lanabesak dira. Taldeen eta pertsonen beharizanen arabera lantzea proposatzen dugu, beraz, ez dugu zertan denak egin behar, gure beharren eta nahien arabera baizik. Alta, oso garrantzitsua da dinamika hauek burutzeari ekiten diogunean, espazio seguruetan egitea, hau da, konfiantzazko eremuak izatea, non erosotasunez eta era erlaxatu batean aurrera eramango ditugun.

*Proposatutako dinamika ezberdinak:*³⁷

- Taldean lantzeko tresnak.
- Gure buruak zainduz dinamika.
- Gorpuztasuna lantzeko jolasa: besarkadak-muxuak
- Beldurrak lantzeko tailerra.

Gure proiektu politiko feminista!

Gure proiektu politikoaz ari garenean, Euskal Herri independente, sozialista eta feministari buruz ari gara.

Independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu gisa kokatzeak, lehenengo biak hainbeste urtez entzun ondoren, eskemak apurtzen ditu. Batek baino gehiagok ere gure buruari jarri diogun abizen hutsal bat dela pentsatuko du. Baina urtebeteko jardunean, ezetz frogatu dugu. Eraldaketa gugandik hasteko barne prozesu bat abiatzeaz gain, aurten kanpora begira ere feminismoa lantzeko apustua egin dugu: gure artean erreproduzitzen ditugun mikromatxismoak azaleratuz, guk geuk amesten dugun maitasun ereduaren seinalatuz, egungo eredu ekonomikoak emakumeoi suposatzen dizkigun zapalkuntza gehigarriak salatuz.

Ernaik, eta Ezker Abertzaleak, proiektu politiko feminista bat, lortzea ez, eraikitzea, dugu helburu. Eta proiektu bat ez da bat-batean eraikitzen, eguneroko lanak luzea eta gogorra suposatzen du, kontraesanak onartuz eta atseden barik

37- Dinamika guztiak material kaxan topatu daitezke, III blokean.

aurre eginda. Eraldaketak trantsizioak dakartza, eta trantsizioak gogorrak dira, kontraesanak gaintzea mingarria. Baina jendarte feminista bat eraikitzeke ez dago beste biderik: patriarkatua hezurretaraino sartu digute; hezurrotatik atera behar dugu orain.

Horrela eraikitzen da proiektu politiko feminista. Azken batean, zer da ba gure proiektu politikoa? Jendarte antolatzeke nahi dugun sistema edo eredu, eta horren egunerokotasunaren eta ekonomiaren kudeaketa. Proiektu politiko hori feminista dela diogunean, balore feministetan oinarrituta dagoela esan nahi dugu, eta horrek hamaika itzulpen izan ditzake, gaur egun irudikatzea asko kostatzen zaizkigunak. Azken batean, batzuk oso landuta izan ditzakegu: irizpide justu edo feminista batzuen arabera ondasunak zelan banatu, lan baldintzak zeren arabera antolatu, zaintza lanak zelan antolatu, hezkuntza curriculum-ean zein eduki barneratu... Edonola ere, proiektu politikoa integrala izan dadin, eremu guzti guztietarako alternatiba osatzen joan behar dugu: kontsumo eredu, elikaduran, hezkuntzan, aisialdian, lan munduko eremu guztietan, kulturaren...

Bestalde, eta aurrera begira, patriarkatuaren eraginik gabeko jendarte zelangoa izango litzatekeen asmatzea oso zaila da. Esaterako, zelangoa izango litzateke pertsonen itxura generoaren araberako gorpuzkera eta estetika gabe? Zelangoak izango lirateke familiak, egungo eredu hegemonikoaren gailentasunik gabe? Existituko lirateke? Zelangoak pertsonen arteko harremanak, botere asimetriarik gabe?

Proiektu politiko feministaren gauzpen material eta irudikapen horietan sakondu behar dugu... eman behar ditugun urratsen norabidea zirriborratzen jarraitzeke. Bide luze bezain interesgarria!

**Jo ta ke,
independentzia, sozialismoa eta feminismoa lortu arte!!**

URRATSEZ URRATS... BURUJABETZA FEMINISTARA!!

Urratsez urrats egiten da bidea. Ez da bide erraza erabaki duguna, atzera bueltarik ez duen bidea delako gurea. Pixkanaka, bidearen oinarriak jartzen hasi gara, ideologikoki eta praktikoki. Betaurreko moreak jarri genituen lehen urratsean eta geroztik ez ditugu kendu, haatik, begirada more horretan sakondu dugu: gure baitan errotuz joan den kontzientzia feministak borroka feministaren aitzindaritzaz hitz egin digu, feministak izatearen arduraz eta erantzukizun politikoaz, baita gozamenaz, plazerraz ere. Geroztik, etengabe egiten digu oihu patriarkatuaren zantzuen aurrean, baita patriarkatua gure eguneroko praktiketan islatzen denean ere. Eta erantzutera behartzen gaitu, besteen begiak irekiaraztera, kontzientzia gehiago astindu eta beste eredu batzuk sortzera, bizi eredu askeagoak, bizi eredu berritzaileak. Urrats hau, feminismoan gure buruak trebatzeko ezinbesteko pausua da, formakuntza ariketa ikaragarria da, badakigu, baina ezinbestekoa ere, eta ikaragarri bezain aberasgarria izana espero dugu. Gure buruak teoria zein historia feministan murgiltzeaz gain, gure praktikak zalantzan jartzeko gonbitea ere izan da urrats hau, gure bizi moduak zalantzan jartzera eramaten gaituena: zer garen, zer nahi dugun izan, nola harremandu, nola gozatu, nola borrokatu,...

Eta pausoz pauso egiten ari garen ibilbide honetan, urrats honek hurrengo urratsei bideak ireki dizkio: teoriatik praktikara salto egiteko garaia heldu zaigula ulertuz, hurrengo urratsetan praktika feministari ekingo diogu. Oinak non genituen aztertu, pausatuko ditugun helmuga zein den zirriborratu eta gaurdanik hasita feminismoan trebatzen hasiak gara, pertsona askez osatutako herri libre batean bizi nahi dugulako, Euskal Herri burujabe eta feminista nahi dugulako, lortuko dugulako.

Ikasturte honetan emandako urrats honek denetariko sentimendu eta momentuak ekarri(ko) dizkigu: bertigoa irakurri eta barneratu behar ditugun eduki guztiak ikusita, nagia, baita grina eta jakinmina ere, gure buruak trebatzeko aukera, gure gogoak, pentsamoldeak, gorputzak edota jarrerak zalantzan jartzeko uea, gure sentimenez hitz egiteko tartea, pertsonala politizatzeakoa e.a. Ezingo dugu honen guztiaren emaitzak bihar jasotzea espero, baina prozesuari begiratzuz, lehenengo urrats hauen emaitzak eta ondorioak ikusten joango gara pauso gehiago emateko indarberrituz.

Sistema osoak kapitalismoaren beharrak asetzeko patriarkatuarekiko lotura nola baliatzen duen ikusirik, guri dagokigu gugandik hasita bizi eredu hori iraultzen hastea. Historian zehar erresistentzia feminista antolatu eta gauzatu duten emakume guzti horien pausuak aitzindaritzat hartu eta ahanzduran geratuko ez direla argi dugu. Horregatik, gu norbanako moduan, baina baita gu gazte antolakunde moduan, borroka horren testigua hartu eta mugimendu feministarekin batera goaz lan egitera, burujabetza feminista eskuratzera! Urrats hauek ez dira hausnarketa eta kontzientziazio hutserako, ahalduntze politikorako urratsak dira, subjektu feminista burujabeak sortzeko.

Baina bide asko dugu aurretik, eta urrats asko emateko ere bai. Praktika feminista bat garatuko du Ernaik, baina, nola ezaugarrituko dugu? Zertan oinarritu behar da? Nola garatu behar dugu ahalduntze prozesu kolektiboa? Nola hautsi inposatu dizkiguten genero rolekin? Nola garatu praktika politiko parekidea?

Gauza asko ditugu oraindik hausnartu, erabaki eta praktikan jartzeko. Urrats asko emateko. Beraz, jar dezagun praktikan gure egunerokotasunean ikasturte honetan zehar landu duguna, emaitzak ikustean indarberritu, eta hurrengo urratsa eman dezagun!! Oinak morez margotuta egingo dugu bidea!

Euskal Herria, 2014ko negua

Heteroaraua: Praktika sexual zehatz batzuetatik haratago, instituzio politiko eta ekonomikoa da heteroaraua, sexualitatea eta generoa eraikitzen duen egitura bat, eta munduaren ikuskera oso bat errealtatea bi kategoriatan (gizonak eta emakumeak, feminitatea eta maskulinitatea) bateragarrietan (heterosexualak, bikotea, familia nuklearra, koitua) banatzen duena. Heteroaraua legetatik gauzarik soilenera doa, eta normaltasunaren marra finkatzen funtzionatzen du, bertatik kanpo uzten dituenak estigmatizatuz eta indarkeriarekin zigortuz. Horrela bermatzen da desiren kontrola soziala, eta harremanen eta afektibitatearen antolakuntza (maitasun eredu erromantikoa, bikote, monogamia, gorputz moldeak, amatasuna...) genero eta kapitalismoaren aparatua bere horretan mantentzeko.

Zisgenero: pertsona baten genero identitatea eta sozialki asigmatutako genero kategoriatan egiten dutenaren fenomenoari "zisgenero" deritzo. Hau da, genero identitatea, asigmatutako generoa eta honi jarraiki dagokion jarrera bat egiten dutenean.

Mugimendu heretikoak: mugimendu heretikoak eliza kristauaren balioen kontra jardun zuen eta sistema feudalaren aurrean, beste eredu bat eraikitzea zuen xede. Heretikoak, eliza katolikoaren kontra jarduten zuenari esaten zioten, elizari zein honen aginduei men egiten ez ziotenak.

Androzentrismo: Gizonezkoen dagozkien berezkitasunak eta ezaugarriak unibertsoaren ardatz eta errealtatea aztertzeko parametro gisa kokatzen ditu. Horrela, gizateria gizonezkoarekin nahasten du, gizonezkoa giza espeziearen esperientzia unibertsal gisa irudikatuz. Emakumezkoak gizonezkoekiko bigarren maila batean utzi eta ezkatzen ditu.

Metarrelato: Modernitatea ideologia handietan oinarritu zen, esaterako, garapen teknologikoarenganako fedean, liberalismo ekonomikoaren ideietan, klase borrokaren premietan edota ideologia nazionalistetan. Ideologia hauek, oraina azaldu eta justifikatzeko errelatoak sortzeaz gain, etorkizunerako proiektu funtzioa izan dute, errealtateari zentzua ematen diote etorkizunean kokatzen den azken soluzio baterantz aurrera egiten duen garapen logiko baten moduan. XX. mendeko azken hamarkadetakoa aldaketa historikoek (neoliberalismoaren birfundazioa, SESBen erorketa, garraio eta komunikabideen teknologiararen garapena, globalizazio prozesua...) mendebaldeko metarrelatoen haustura ekarri dute eta errelatibismoa eta absolutua heltzeko ezintasuna ezarri da gure kulturari.

Unibertsalizazioa: prozesu historiko edo ezaugarri kultural zehatzak eta lokalak mundu milan orokortzeko irakurketa partzialak, boterea mantentzeko interesarekin egiten direnak

Etnozentrismoa: mundua kultura propioaren parametroetatik aztertzeari deritzogu. Gure talde etnikoa besteen gainetik kokatzea suposatzen du, edota gure kulturaren elementuren bat beste kultura batzuen elementuen gainetik kokatzea.

Patologizatu: Jarrera, desira, sentipen edota bizipen batzuk normaltasunetik kanpo kokatzeagatik pertsona bat gaixotzat hartzea, eta horregatik estigmatizatua eta sozialki jazartua izatea.

Hibrido: bi elementu edo gehiagoren arteko nahasketa. Zerbait modu ez esentzian, ez monolitikoan, ez estankotan, etengabeko eraldaketan – eratoritzean dagoela ulertzen dugunean, izaera hibridoa duela esango genuke.

Binarismoa/ Dualista: munduaren ikuskera eta errealitatea antolatzeke era da, bi binomio, bi ezaugarri edo kategoria kontrajarrien arabera ordenatzen dena (ongi-gaizki, maskulinitate-feminitate, txuri-beltz, ipar-hegoa). Pentsamolde honek kontrol funtzioa betetzen du, kulturalki kategoria hauek ez baitute balio berdinak, eta euren arteko botere harremanak sortzen direlako, hau da, zapaldu-zapaltzaile harremanak. (ikus 1. Kaiera).

Falozentriko: Sexualitatearen eremuan, zakila kokatzen du sexu harremanen erdigunean (Ikus 1. Kaiera). Kultura eta gizartearen eremuan, kultura patriarkalaren oinarriari egiten dio erreferentzia, non elementuak modu kontrajarri batean ulertu (binarioan) eta bat pribilegiatu eta bestea gutxiesten duenean, maskulinitateari atxikitako balioak gailenduz.

Monogamia: monogamia maitasun harremana bat beste pertsona batekin eraikitzea onartzen duen maitasun eredua da. Amodioa elkarri fidelak diren bikoteka antolatzea ezartzen du eta maitasun erromantikoa erabiltzen du lotura hori mantentzeko (Ikus I Kaiera).

IRAGANETIK AZTERTUZ

- AMORÓS, Celia eta DE MIGUEL, Ana (2005): *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización. Del feminismo liberal a la posmodernidad*; Minerva Ediciones, Madrid
- AZURMENDI, Mikel (2012): "A vueltas con el término aquelarre", REIV Kuadernoak, Eusko Ikaskuntza.
- BUTLER, Judith (2002): *Cuerpos que importan: sobre los límites materiales y discursivos del "sexo"*, Paidós, Buenos Aires
- D'ATRI Andrea. *Feminismo y marxismo: más de treinta años de controversias*
- D'ATRI, Andrea. *Pan y rosas*
- DAVIS, Angela (2004): *Mujeres, raza y clase*. Ediciones Akal. Madrid, 1981.
- De BEAUVOIR, Simone (2005): *El segundo sexo*, Feminismos, Madrid
- DE MIGUEL ÁLVAREZ, Ana (...) "La articulación clásica del feminismo y el socialismo: el conflicto clase-género"
- FEDERICI, Silvia (2004): *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Madrid: Traficantes de Sueños. <http://www.traficantes.net/libros/caliban-y-la-bruja>
- FIRESTON, Shulamith (1976): *La dialectica del sexo*, Editorial Kairós
- FOUCAULT, Michel (1987): *Historia de la sexualidad 1. La voluntad del saber*, siglo XXI, Madrid
- FREIDAN Betty (2009): *La mística de la feminidad*, Catedra
- HEINEN, Jacqueline (1978): *De la 1ª a la 3ª Internacional. La cuestión de la mujer*. Editorial Fontamara. Barcelona.
- KOLLONTAI, Alexandra (1980): *Autobiografía de una mujer emancipada*. Editorial Fontamara. Barcelona.
- LAMAS, Marta: *El género: La construcción cultural de la diferencia sexual*, México
- MILLET, Kate (2010): *Politica sexual*, Catedra,
- NASH, Mary (2012): *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimiento*; Alianza Editorial, Madrid
- NAUSIA, Amaia (2012): "Mujeres solas y brujería en la Navarra de los siglos XVI y XVII", REIV Kuadernoak, Eusko Ikaskuntza.
- OCHY, Curiel (2007): "Crítica poscolonial desde las prácticas del feminismo antirracista", *Nómadas*, Zk 26, 92-101.
- Pariseko komuna: <http://andreadatri.blogspot.com.es/2011/05/la-participacion-de-las-mujeres-en-la.html>
- PÉREZ GARZÓN, Juan Sisinio (2011): *Historia del feminismo*. Catarata. Madrid.
- RUBIN, Gayle (1989): *Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad*
- (1996): "El tráfico de mujeres: notas sobre la 'economía política' del sexo"
- SOLA, Miriam eta URKO Elena (2013): *Transfeminismos. Epistemes, ficciones y flujos*, Txalaparta, Tafalla
- URÍA RÍOS, Paloma (2009): *El feminismo que no llegó al poder. Trayectoria de un feminismo crítico*. Talasa ediciones. Madrid.
- VARELA, Nuria. (2008): *Feminismo para principiantes*. Ediciones B. Barcelona.
- WITTIG, Monique (1980): *El pensamiento heterosexual y otros ensayos*, Editorial Gai y Lesbiana
- ZETKIN, Klara (1976): *La cuestión femenina y la lucha contra el reformismo*. Editorial Anagrama. Barcelona.

IZENDAPENAK IZANEZ BETETZEN!

Liburuak

- ABASOLO, Patxi; MENDEZA, David; BUSTILLO, Joxerra (2014): "Nuestro mayo rojo. Aproximación a la historia del movimiento obrero vasco (1789-1990)". Txalaparta. Tafalla.
- BABIANO, José (2007): "Del hogar a la huelga. Trabajo, género y movimiento obrero durante el franquismo". Catarata. Madrid,
- BRAVO SUESKUN, Carmen (1977): "De la domesticidad a la emancipación. Las mujeres en la sociedad navarra (1961-1991)". Gobierno de Navarra. Iruña.
- GONZALEZ GOROSARRI, María; BARINAGA, Eduardo (2010): "No lloréis. Lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes". Ttartaló. Donostia.
- LASARTE URANGA, Arantza (2013): "Ikuspegi dualistatik subjektu anitzera: subjektu politiko feminista Sortu alderdi politikoaren prozesu eratzaillea". Ikasketa feministak eta generokoak masterreko tesia. Leioa.
- LÓPEZ ROMO, Raúl (2008): "Del guetto a la calle. El movimiento gay y lesbiano en el País Vasco y Navarra, 1975-1983". Gakoa Liburuak. Donostia.
- RINCÓN, Aintzane; ANZIZAR, Arantza (2014): Ametsak egi bihurtuz. San Nikolaseko lehen andereñoak (1963-1969), Getxoko Udala

Aldizkariak

- "Emakumea eta Euskal Herria". Ezpala, Ezker Abertzaleko aldizkaria o. zenbakia. 1996

Txostenak

- Ezker Abertzale feministarantz... beste pausu bat
- Ezker abertzale feministarantz... sexuen arteko harreman parekideak sortzeko urrats berria.
- Ezker Abertzale feministarantz... politika feminista sustatzeko gida
- Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria eraikiko dugu! Bilgune Feminista, 2000
- 30 urte... ta aurrera. 1978-2008

Ponentziak:

- Amaiur prozesu eratzaillea

- Matxixtako
- Izustarri
- Monpas

- Euskal Herriko Jardunaldi eta Topaketa Feministak:

- Euskadiko I. jardunaldi Feministak, 1977, Leioa
- Euskadiko II. Jardunaldi Feministak, 1984, Leioa
- Desobedientzia Gure bidea! Emakume Gazteen Topaketa feministak, 1984, Orio
- Euskadiko III. Jardunaldi Feministak, 1994,
- EGIZANen feminismo abertzalea. Euskal Herriko 1994ko Ihardunaldi Feministak.
- Neska gazteok Titietaraino Gaude! Topaketak, 1995, Orio,
- Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak, 2008, Portugalete
- *Gazte Zukgua, Norbanakotik kolektibora ponentziak:*

- Prozesu eratzaileria, Egoeraren azterketa orokorra (2012)
- Prozesu eratzaileria, Ziklo politikoaren irakurketa (2012)
- Prozesu eratzaileria, Gazte estrategiaren definizioa (2013)

- *Sortzaile, Sorturen eratze prozesua.*

Ponentziak:

1/2 ponentzia. Oinarri Ideologikoak eta Antolakuntza Eredua (2012)

2/2 ponentzia. Ildo Politikoa eta Komunikazioa (2012)

- *Euskal Herrirako Estrategia Feminista hausnartzen. BF, 2012*

Bestelakoak

- Feminismoa Euskal herrian. Emagin-en saioetako apunteak

AHALDUNTZERAKO BORROKA URRATSAK: PRAKTIKA FEMINISTARUNTZ!

- Euskal Herriko Bilgune Feminista:
Sexualitatearen eztabaida

- Euskal Herriko Bilgune Feminista: *Euskal Feminismoaren erronkak XXI. Mendean.*

- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014):
Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantziatz eta horizontaltasunaz hausnartzen.

